

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXXVII Zenbakia.

1996

Urrilla-Gabonilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Aita Santi'ri omenaldia	1
Helsinki'tik Aita Santi Gogoratzen. – Kistí	4
Kisti eta Aita Santi	9
Erdíaroko Euskal ízenen idazkera (II atala) B. Latiegi	11
Astigarríbia eta Tritium Tuboricum. Anes Arrinda	17
Euskera berría? Pujana tar Pedro	26
Lhande eta Lafitte'ren iztegi'ko LL eta Ñ dun itzak. Zataraindarra	30
Gure Gízonak.– Basarri	36
Gure Gizonak.– Martin Garzia Alkorta-Latxaga	39
Euskerazaintza eta Errioxa .– Latxaga	42
"Ríkardo Arregi" dalako kazetaritza saria.– Latxaga	44
Bortüzale.– June Casenave	48
Oroimenezko íruzkiñak	5 -54
Uso Zuria. – Albisu tar Anastasio	55
Esaldi jatorrak.– Oñatíbia tar Manu (Kanpo eta barruko azaletan)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO



Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINNTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

AITA SANTI ONAINDIARI OMENALDIA

Larrea, Amorebieta, 1996-X-19.

Goizean goiz asi giñan Euskalzaleak eta Euskerazaintzakoak, eta beste Aita Santi'ren lagun eta euskeraren maitale ugari, Larrea'ra elduten.

Amar ta erdietako batzarrean batu giñan.

Amaikak eta erdietan, iragarrita egoan lez, Komentuko eleizan gendun eleiz-jai labur bat.

Ekintza laburra izan zan: Aita Eliseo'ren neskatillen koruaren abesti batzuk eta Eleiz liburuetakoko atal bat irakurtea.

Aita Santi'ren bizitza gogoratuz irakurri zan zatia, SIRAK'en Jatiturgia'ri buruzko atala izan zan.

SIRAK.— Jakituria

Ene seme, ibili zaitez gaztarotik irakatsiaren billa,
eta zaartzarorarte jakituria aurkituko dozu.
Urreratu zakioz goldatzen eta itaitzen dauanaren antzera,
frutu ugari itxaronik:

irakatsiari ekinik, nekatu egingo zara une baten,
baiña bereala aren frutuak jango dozuz.
Eroari irakatsia nekegarri yako,
eta zentzunbageak ez dau aretan irauten;
arri astunak lez zapaltzen dau burugabea,
eta onek berealaxe astintzen dau beragandik.
Izan be, irakatsia, bere izenak adierazoten dauanez da:
ez yake askori agiri.

Entzun , ene seme, nire eritzia
eta ez baztertu nire burubidea;
sartu oiñak aren sare-artean
eta eskiñi samea aren buztarriari;
makurtu lepoa irakatsia eroateko,
eta ez samindu aren katez;
jo aregana biotz biotzez,
jarraitu aren bideak zure indar guztiaz;
ibili zaitez aren lorratzen billa, eta lortu egingo dozu;
eta aren jabe egin zaitezanean, ez egiozu joaten itzi;
azkenez, aren atsedena lortuko dozu
eta atsegingarri biurtuko yatzu;
aren kateak gordeleku indartsu biurtuko dira;
aren lepokoa, jantzi apain;
aren buztarria, urrezko pitxi;

aren ugelak, purpurazko lokarri;
jantzi apain lez eroango duz,
jaietako korea lez jarriko dozu buruan.
Ene seme, zeuk nal ba dozu, jakitun izatera elduko zara:
alegiñak egiten ba dozuz, zurra izatera elduko zara;
entzutea atsegin ba' dozu, ikasi egingo dozu;
belarria makurtzen ba dozu, irakatsia artuko dozu.
Zoaz, sarritan zaarren batzarrera;
eta, an jakitunik ba dago, alkartu zakiozp
Arduratu zaitez azalpenak entzuten;
esakuna batek be ez dagitzula igesik egin;
barutsua nor dan jakiten zoli egon, eta jo aregana gizean goiz;
jan dagizala zure oiñak aren ataurreak.
Erabili egizu buruan Gorengoaganako bildurra
eta ausnartu egizuz eten bagarik Aren aginduak:
Berak emongo dautsu adimena
eta, zure gurariari dagokionez, jakitun egingo zaitu.

Eleizkizun labur onen ondoren, konbentuko lurretan, bide egalean dagon monumentura joan giñan.

Ango jai "Zer" aldizkarian Egileor'tar Jon'ek esanda lez egin zan. Ara bere azalpena:

Ederra benetan aurtengo Urrillaren 19'an ONAINDIA'tar SANTIAGO (guztientzat "AITA SAÑTI"), Karmeldar Aita Agurgarriari egin jakona.

Karmeldar lekaide onek guztiz ondo irabazita euki dau egin jakon goratzarrea. Ainbat eta ainbat idatzi ta argitaratu dau geure euskera eder eta maitean; batzuk bere barru-barrutik sortuak eta beste batzuk kanpotar izkuntzetatik itzuliak, batez ere latinietik.

Eta gaiñera orretariko asko izan ziran makilkada denpora latz eta gogorretan argitaratu ebazanak. Orduko denporetan edozer gauza argitaratzeko guztiz gatxa izaten zan baimena lortzea, oztopoa baiño besterik ez egoalako alde guztietatik, baiña gura "Aita Santi'k" ekin eta ekin lortzen ebazan baimenok.

Orregaitik, barriri esan bear da guztiz ondo irabazita euki dauela egin jakon goratzarrea.

Goratzarre ori bere LARREAN beban izan zan eta onelan izan be: Lenengo Eleizkizun laburtxu bat izan genduan, ango neskatil abesbatzaren abestiz languduta.

Ondoren AITA SANTI'ren oroitarrria dagoan tokira joan giñan eta antxe Olazar'tar Martin abade Jaunak, Euskerazaintza'ren Lendakariak, agertu eban irudia.

Oroitari ori Karmeldarren lekaidetxerako bidean jarrita dago, baiña euren lurraldean eta lekaidetxe orretara eldu baiño lentxuago, eskumaldean, iturri bat dagoan tokiaren ondotoxoan. Aita Santi'ren irudia ondo egiña dago ta bere egiñlea Lertxundi'tar Mikel Angel irudigille trebea izan da.

Irudia agertu ondoren Karmeldar lekaide batek bedeinkatu eban eta jarraian espatadantzari batek oorezko auresku bat dantzatu eban.

Gero Olazar'tar Martin'ek, ZER 211- 2n orrialdean agertzen dan idazki labur bat irakurri eban; idazki orretan iru-lau lerro bakoitzaren ostean, errepjka lez, "AITA SANTI'ri OMENA ta GORATZARREA" erri osoak esaten eban laguntasuna emoteko.

Ori amaituta gero bertsolariak be parte artu izan eben eta euren artean lenengo bertsoa bota ebana Legarreta'tar Asier Mungitar gaztea izan zan; ondoren aspaldiko Puxana'tar Basilio Zeanuritarra izan zan eta amaitzeko, zelan ezer bota barik!, geure Solozabal'dar Paulin ospetsua, onetariko jaietarako beti gertu egoten dana

Amaitzeko, len aitatu dan neskantil abesbatzak, AITA ELISEO Karmeldarrak zuzenduta "Agur Jaunak!" guztiz ondo abestu eban, jai labur baiña eder oneri atzena emoteko.

Jai orretara, Uribeetxebarria'tar Tomas, Bizkai'ko Foru Aldundiko Kultur Jauna ta bere ondorengoa dan Legarreta'tar Jose Manuel etorri ziran. Antxe egon ziran baita Gurtubai'tar Alberto, Zornotza'ko Alkate Jauna ta bere ondorengoak diren Odriozola'tar Kepa, Kultur Ziñegotzia ta Bustinzá tar Aitziber, euskerearen aldeko arduraduna. Beste batzuen artean Aurre'tar Anton Jauna, aldi baten Gernika'ko Batzar Nagusietako Buruzagi izandakoa ikusi ta agurtu genduan.

Antxe be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Batzarkideak eta beste bost-sei EUSKERAZAINTZA'koak batu giñan. Eta baita erritar asko batu ziran onelako omenaldian parte artu gura ebelako, geure Aita Santi ospetsua danorena zalako.

Bertan jarrita geratu dan oroitarrian, AITA SANTI'ren irudipean auxe irakurten da:

Oroitari ori, Bizkai'ko Foru Aldundia'ren eta Zornotza'ko Udala'ren laguntzaz egiña izan da.

Azkenez, geure oitura onak ez galtzeko, lagun arteko bazkari on bat izan genduan. Orretarako berrogei bat lagun batu giñan.

Jai orren argitasun labur oneri amaia lez eskakizun bat egiten dautse LARREA'ko Lekaideai, au da: Oroitarri orren ostean (3-4 neurkin atzeratuta) emengo zugatz eder bat landatu egien, olan Aita Santi'ri gerizpea emon eta bera zaintzen dagola irudituko jaku.

Zugaitz ori, Lexarra, Urkia, Aretxa (bertotarra) edo beste antzekoen bat izan lei.

Omenaldi au egiteko laguntasuna emon daben guztiai, eskerrik beroena emonaz amaitzen dau.

(EGILEOR JON'ek "ZER" aldizkarian)

HELSINKITIK AITA SANTI GOGORATZEN

Helsinki 1996-IX-15

Euskerazaintza
Getaria 21
20005 Donostia

Aita Onaindiaren gomutarako omenaldia antolatuko dela-ta, nire aspaldiko adiskideaz daukadan zenbait pentsamendu eta oroitzapen bialdu nai nizueke, aren ezaguna izan naiz-eta ogeitamabost urte. Eriotzaren berria otsailean onera, Finlandiára, ere eldu zanean, nekaldian itz gabe geratu nintzen, eta urrutinongoen. Orain, zuek eratuko duzuen omenaldiari esker aukera daukat aldetjko trjsturazko eta maitasunezko pentsamenduak adierazteko eta bera maite duten beste guztien artean bere omenaldian onela parte artzeko.

Urrutiko Finlandian bizi naizenez, denborazko tarreak ere aundiak izan dira Aita Onaindiaren eta nire artean, elkar ikusi gabe. Helsinkin bizi den andrazko bat naiz, euskaltzale amorratua, Euskalerriarekin betiko meiteminduta geratu den arrotz bat. Azkenaldiz, 1992garren urtean bisitatu nuen Euskalerrria eta Larrea, Bilbon azterketara sartzeko asmoz nenbilenean. Orduan, ekainean, Aita Onaindia eta biok elkar ikusi genduen azkeneko aldiz. Bilboko izkuntz-eskolan azterketa egiteko erabakia artua nuelako Euskalerrrian nongoen, adiskide baten bultzaketari esker, eta adiskide berak kotxean Larreara eraman ninduelako Alta Onaindia ikusteko aukera neukan beraz. Etxebarriko nire adiskideari esker beroenak oraindik ere...

Aurreko aldiz, 1988garrenean, Bilboko kaleetan zear genbiltzan Aita Onaindia eta biok, Muxikara, Enbeitatarren etxera elkarrekin joan aurretik, bertsolari-sendiarekin bazkaltzera. Bilbon genbiltzanean aldi artan, idazlanak egiteko bortizki animatu ninduen, eta nik, asmoak egiaztatzeke jza eman nion. Gogoan zeukan arek, leenago nere maixu zen Xabier Peñari esan izan niola, euskeraz zeozer idatziko nuela oraindik, eta itz ori bete gabe neukan, eskutitzak kontuan artu gabe, noski, pertsona batek besteari mintzatuz idatzitakoak. Eskutjztetako multzoa bai no ez nuen idatzi izan. Euskera erabiltzeko eskutitzak idaztea, ederto ori ere. Baiña euskal erriari idatzi bear nion, Euskalerriarrentzat, euskaldunen izkuntzaren zabalpenaren, erabileraren onerako. Ondoko orrialdeok, nere euskal oroitzapenak, Aita Onaindiaren gomutarengatik, euskal erri osoari zuzenduta bioaz.

Alta Santi, leenen-leenengo aldiz, Enbeitatarren baserrian euskera ikasten nengoenean topatu nuen, 1962garren urtean. Bapatean, nere aurrean zegoen eta itz batzuk trukatu genituen, nere aldetik euskera oso koxkorra erabili banuen ere. Nongoa nongoen esan bear nion, eta mapan nere erria "goian" dagoenez, zeruan dagoela aitortu nuen. Eta mapan beerago ta egoalderago joanez, Euskalerrrian naiko inpernura etorriak ginela. Ez ditut gure itzak zeazki gogoratzen, baiña uste dut praile ura neri ziria sartzen saiatu zela, eta ni edozein modura probokaziora labainarazteko aaleginak egin. Eta nik tintakeriak esan, artara bultzatuta. Praileak eta mojak, nere begietan interesgarriak ziren,

luteranuen erri garbitik nentorrenez, praileak, mojak, eta katolikotasuneko galnerako apaintasuna leen ikusia izan gabe. Baina ni, luteranu ere izan gabe, are garbiago, erlijjiogabeko paganu garbi-garbia nintzen.

Euskera ikasten, gainera, zerk bultzatu ninduen, asiera-asieratik? Deabruak, ain zuzen. Eskolako aurrerantz, oso goiz, aldizkariaren batetan irakurria nuen, euskera izkuntza guztiz arrarua daukagula, antz eta kidesun gabekoa beste inongo izkuntzarekin munduan eta beste izkuntza guztiak baino zailagoa. Ain zaila ornen zen, Deabruak berak ere ezin zuela ikasi. Orduan, nik bai ikasi gura... Urte batzuk igaro ziren. Erri ezberdinetatik kartalagunak eukitea modan zegoen, eta nik ere karta ugari idazten aritu nintzen. Kartalagun bat, Bizkaian neukan, euskotarra eta euskaltzale, euskeraz ez bazekien ere. Eskola, azkenean amaituta, eta jarraian bederatzi ilabete lanean arituta gero, biletea erosi nuen. Gabonak igaroak ziren, urte berria asia zen, 1962garrena. Nere leenengo atzerrirako biagera abiatu nintzen, trenean Euskalerriara. Barkuan leenbizi Estokolmora, eta andik aurrera trenez. Itzulbidea egiteko, bidetxartelik ez nuen erosi, baiña ortarako gordeta geratu bear zen dirua ondo aparte jarri nuen eta pentsatu nuen, azkenez ori baino eskuan ez gertzean, etxeratzeko biletea erosteko ordua litzatekeela. Ez nekien noiz arte geratuko nintzen Euskalerrian, zortzi egun, amasei egun, ala egun batzuk geiago ere. Ez nuen pentsatu, Euskalerrian euskera ikasten bereala geldituko nintzanik, orretarako ez neukan dirurik. Nor ikustera joan, leenbiziko, argi eta garbi zegoen: nere kartalaguna, neri bizkaierazko gramatika bialdua izana. Euskalerrira leenengo aldiz be joan baino leen, ikasketa teoriko pixkatxo bat asia nuen, bi gramatika eskuratuak baintuen, Bilbotik bizkaierazkoa, eta gainera Irunetik gipuzkerazkoa, nere leenengo egiazko euskaldunek, begiz begi ikusi nituenak, Finlandian bejn topatu nituen bi ikaslek neri gero bialduta. Bilbon, Hotel Euskaldunera joan nintzen. Andik, nere kartalagunak bere etxera eramanez ninduen, eta bere eginkizuntzat artu zuen, euskeraz benetan ikas dezadan bidea aurkitzen laguntzea. Auzoko abadeak, euskeraz ez zekienak euskerari buruzko arazoak obeto ezagutzen zituen beste abade batengana joateko aolkatu zigun, eta onek berriz Xabier Peñarengana, Bilbaoko La Ribera-kalean zegoen Euskaltzaindi-ra. Xabier Peña irakasleak baserritara bialdu oi zituen bere ikasleak, praktikan ikas zezaten, eta ni egunen batean Muxikara gidatu ninduen, Enbeita sendia ezagutzera, nere mirespen aundiko gauza arri-garrian, bertsolaritzan, ain berezia den sendia. Enbeitatarren artean, egunero-ko euskera bizia entzuten geratu nintzen.

Bertsolaritza zen Alta Santiren arrazoia ere, Urretxindorraren zenbait bertso edo aren bisitzari buruzko dokumentu apuntatzea-edo, Ormaetxe baserrira etorri zenean.

Euskaldunek eta euskotarrek, Euskalerriko biztanle guztiek, ondo artu ninduten, euskera ikas nezan lagundu zidaten, eta ez nintzen alde egingo, Helsinkitik deitu ez baliren, etxeratzeko aginduz. Au, maiatzean gertatu zen. Euskeraz nekez nekjen, urtarriletik maiatza arte Euskalerrian egonez, baina eskutitzetako piloa egitearen garaia asi zen. Eta oporretan, Euskalerrira bisitatu nuen. Euskalerrian, bere alderdi ederrak, mendiak, ibarrak eta itsasoa, bere abestiak eta musikaren soinuak, bere erriantzak eta, batez ere, bere erritar zintzoak - eta izkuntza zaarra- neri biotzean sartuta, berarekin maiteminduta utzi ninduen.

Urteak aurrera igaro ziren, eta bi aur jalo zitzaizkidan. Txikiak zirenean, euskeraz ikas zezaten gogo bizia neukan. Bi izkuntza ikastea, umetatik, aberasta-

sun aundia da —euskaldun guztien abantaila gaurko munduan— eta nire aurrek suomieraz gain euskeraz ere jakin zezaten opa nuen. Bilbon bizi ginen aldi baten, ain gogoko nuen La Ribera kaleko zearkale batean uri zaarrean, eta aurrak ikastolara eraman nituen. Aita Santi, garai artan, Larreako komentuko burua zen. Aukera neukan, arro arro, nere Finlandiarako eskutitzetan aipatzeko: "—nere emengo adiskide bat, komentu aundi bateko abade nagusia da, eta guri bisita egin zigun—". Komentuak, suomitarrontzat, leku misterioitsuak, oso exotikoak dira. Komentuko nagusia nere adiskide bezela aipatzean, nere lagunak bekaizti egiteko itxaropenez nengoan. Baina bukatu zen garai au. Laster itzuli ginen Finlandiara, aurrek eskolara joan bear zuten, beren errian Finlandian, eta euskeraz ikasitako puxkaz aitzu, geroago.

Bein berriro, 1978garren urteko udako oporretan, Euskalerrira biajatu ginen, laneko lagun bat, bere alaba txikiarekin, eta ni neure semealaba biekin, lagunaren berebilean. Donostjako adjskjde baten udako etxea okupatu genduen, eta Peñatarrekin eta Aita Santirekin elkartu ginen, eta elkarrekin Euskalerrian zear ibili ginen. Apaizez ain interesatua nengoenez, oinarri ez gutxikoen nere paganutasunean izanez, orduko biajeon "Regla de gran patriarca San Benito" eroso nuen bidean, eta Aita Santi onetaz konturatu zen eta gogoan ondo gorde zuen. Arritzen naiz, ez bazuen barneko itxaropena, ni ere egunen baten katoliko egingo nuenez, eta bearbada moja ere! Bere barneko pentsamenduak ez zizkidan inoiz agertu, nereak arretaz entzun ordea bai.

Nere interesa eta jakinnaia, fedearen fenomenoari buruzkoa zen eta bere bitzitza guztia kontzienteki fedeari dedikatutako pertsoneri buruzkoa. Batzuek, beren burua fededun aitortzen dute, besteek bereziki ukatzen dute. Alere, denok fededunak gara, eta obe litzateke noizean bein ausnartzea, jende laikoak ere bai, zer sinisten dugun, benetan. Fedea, nere ustez, gizaizaeran izkutatzen den oinarrizko gauza da, fedekonzeptua bearbada ez era estuan ulertuta, baina... nere ustez, gainera, era zabalean ulertu bear da beti. Fedea, era estuan ulertuta, ez da azkenean egiazko fede, buruz jkasitako ikaskizuna baizik. Fedea, era zabalean ulertuta, denok buruan daukagu, buruan edo biotzean. Fedea, norbere azken azalpena da, bere-berea, inguruan duen munduarentzat, eta mundua sakonki ulertzeko modua. Lainoan bezela izkutatuta egon daiteke fedea, baina or dago. Naiko denbora luzean modan egon da sekularitasuna, eta bildur naiz, aldi bakoitzeko modaren menpean egoten direnak, beren delako sekularitasuna ere azkenean zer den ondo pentsatu gabe bizi izanik, prestatu gabe geratuko direla urrengo fedezko moda dakarren olatu indartsuaren azpian.

Izan daiteke gaur eguneko egiazko arazo larri bat: fede aundirik ezin euki, zientziak fedea desegin duelako, sinismen txikiek berriz ez dute izpirituaren egarria asetzen. Nondik atara, bapatean, fede aundi bat, bera eskatzen duen moda datorrenean? Obe legoke, izpirituak garenaz oartzea, moda guztietatik aparte. Animaliak ez dauka, ez bururik ez biotzik, instinto utsa dauka. Ikasten duena, reflexoz ikasten du animaliak, ez buruz ez eta biotzez, ez ditu-eta. Gorputzezko eziketaren bidez ikasten ditu, irakatsitako trebetasunak. Bere egipenen ondorjoak, bere larruan somatu bear dituen kastiguen eta sarien bidez ikasten ditu: noiz jotzen duten, noiz laztatzen duten ikasiko du, erantzukizunezko maixu on baten modura konsekuenteki jokatzen badu ezitzaileak. Gizona ere ezia izan daiteke animaliaaren modura, irakatsitako reflexoen bidez jokatzen. Baina, gizonak gaitasun gelago dauzka. Gauza batzuk buruz ikasiko ditu —izkuntza arrotzak esate baterako, beste biderik ez dago-ta, buruz

ikastea baino, memorian mekanikoki gordetzeko itz eta esaerak— eta beste gauzak biotzez ikasi bear ditu, au da, berexe burubiotzean duen inteligentziaz baliatzen. Burua eta biotza bat dira, gizonaren kasuan, gizaulermenaren ezaugarriak dira, teorikoki banagarriak bainan ez praktikoki, errealitatean. Ulermen sakona da, gizona animaliatik bereizten duen fenomeno arrigarria. Fedea, nire ustez.

Fedearazoa eta izkuntza -nere biotza ukitzen duten bi gauza dira, eta Aita Santik au ondo ulertu zuen. Bi gauza auek zituen Aita Santik ere berexe biotzaren barnean oso garrantzizko: fedearazoak, batetik, apaiza zenez, eta euskal arazoak eta euskera, bestetik, euskalduna eta olerkaria eta kulturgizon jakintsua zalako. Funtsean, interes eta keka berdinak genituen, arazo askotan eritzi bera ez bagenuen ere. Gogoratzen naiz, Gabonetako Olentzeroren aurka agertu zuela bere eritzia, aren sinismenaren arauerako Gabonetako benetako protagonistaren, Jesu Kristo jaioberriaren lekura zetorrela alako izakia, Jainkoaren lekuan goratua izateko eskez eta exigentziaz. Erregeen lekura letorke, nere ustez, inori lekua kentzeko etortzekotan, baina ez dut uste olako indarrak daukanik.

Euskalerriko jendea ezaguna ez banu ere, baina ikasliburuen bitartez bere izkuntza bai, izkuntza au maiteko nuke. Izkuntza agurgarri au, arriarotik beintzat gaur arte bilakatu dena, eta oraingo korronteen azpian itotzen utzi bear ez dena, Europako kultur-izkuntza zaarrena da. Euskara, zaila da? Ezetz. Deabruak ori esan du, bere ideia zen, bere ideia diaboliko maltzurra. Berak ere ez duela ikasi, eta ez duela jnon gomendatzen! Deabrua deabru. Euskera ez da beste izkuntzak baino zailagoa, eta neri errezagoa zait, gaztelania baino, neure izkuntzaren, suomiraren antza daukalako. Gaztelania arrotzago geratzen zait. Baina ikasketa eginez, ekin eta jarrai, ikasten dira izkuntza arrotzak ere. Norbere izkuntza, zailegi eta arrotz izaten uztea, beste izkuntza bat errezagoa eta ez -ain- arrotz delakoan, egoera makurra da. Baina egiazko egoera, Euskalerrian, eta egoera ain ulergarria, izkuntza, bizitza praktikoan "bigarren mailako" fenomeno da-ta. Izkuntza erabiltzea, gjarztean, gizon indibidualaren arnas artea bezelakoa da, berexe bizitzan, ezinbestekoa, baina batere konturatzen ez dena, beste egipenak eta lanak garrantzizkoagoak dira-ta. Ondo ikasi dugun izkuntzan, geurean, konturatu gabe aritzen gara, baina nekez ikasi bear den izkuntza arrotzaz egitea, kosta zaigu. Euskalerrian ibili naizenean ezin izan dut inpresioa baztertu, euskera bigarren mailako izkuntza "arrarua" dirudila Euskalerrian. Egoera ez da aldatu, legezko ofizialtasuna lortua bada ere; ofiziala da euskera, baina mugatuz; erderaren kalterako gertatzen ez den einean, geiagorako ez; eta alderantziz ez, erdera ez da Euskalerrian ofizial, euskeraren kaltera obratzen ez den einean bakarrik.

Euskera erabiltzea ez da agur Euskalerrian debekatu. Ez da legez ezeztu eta ezinezko egin. Orduan, euskaldunek euskeraz egitea besterik ez da bear. Euskera agortuko da, euskaldunek euskeraz egiten ez badute, eta beste azalpenek ez dute balio. Erderak ez du euskera ilko; erdaldunek erderaz egiten dute, eta orretarako eskubidea dute. Euskera, euskalkiek ez dute ilko, autzitik bizkortu egiten dute. Euskera ez da agortuko, nork bere euskalkian aritzen bada, etxean, auzoan, leku giztietan, lanean eta lagunartean. Euskera ofizialak ere ez du euskera ilko, artifiziala delakoan, ori esatea akiakula da, alperrekoa; artifizialegi den gauza berez ilko da; euskera il egingo da, erabiltzen ez baldin bada, eta ori da gertaera guztia.

Idazmodu artifizialak, gogoak kenduko dizkiola erriari, dakien euskera erre-

za ere erabiltzen? Onela pentsatu dut. Hatxea, antxinako protoeuskera agian egon bada ere, oraingo euskeraz idaztea eta irakurtzea, alperreko moduan zallago egiten duela pentsatu dut. Extra zailtasun bat gaineratu dio, bestela ere egoera delikatuago dagoen izkuntzari. Euskera, nire begiz ikusita, ez da espainola edo frantseza bezelakoa, neure izkuntza suomiera bezelakoa baino, eta fonema ez den letrarentzat ez leuke erabilerarik. Hatxez idaztea, aukera bat izaten utzi bear litzateke nere aburuz, eta erabiltzea, aozkatuz, bultzatu eta lagundu leiteke, baina hatxegabeko textoei ere, ez litzateke errua leporatu bear, euskera batua ez direla, falta den bakarra, hatxea baldin balitz eta beste okerrik ez balegoke. Euskalkiak idatzita ere erabiltzea, tradizioa dagoenez, bultzatu eta aurreratu bear da, eta bide onetan Aita Santik erakutsitako bidean jarraitu nai dut nik ere, Bizkaian bizkaieraz berba egiten eta idazten, bizkaitarren artean.

Alta Santiren arrazoiak, eta nireak, hatxe gabe idazteko, arrazoi berak izan ote dira? Nireak azaldu nizkion. Bere aburuak ez dizkit neri, nik nereak berari baizen zabalki azaldu. Aren pentsamenduen aurka banentorren ere, beti ere aurrera bultzatu eta animatu ninduen, itza erabiltzeko, neure pentsamenduak azaltzeko eta aurrera lantzeko. Iruditu zitzaidan ongi ulertzen zuela nere esana inoiz nere aurka ez zetorrelako oker nagoela eta ixilik egon bear nukeela esanez. Baina, bearbada batzutan, oker nengoela pentsatu zuen, eta arazo orren gaineratik ere, pentsamendu eta ulerpen aundiagok, zituen eta ez zidan agoa itxi nai itz egiteko, ezta bidea ebaki, neure modura ibiltzeko.

Euskera batuari arazoan, korapilo linguistiko ordez korapilo aundiago, zallago bat dagoela usnatzen dut. Gauza beldurgarria da, euskaldun izatea. Orain Aita Santi zuzen ezin idatzi, neure kezka azalduz, nere arima idazkian lasaituz, pazientzia aundiko adiskide entzule baten aurrean; euskaldun guztiei idazten jarraitu bear, bertsoa botatzen bezela. Bertsoa bota gabe, ezin geratu, ezin negonean nago.

Gizabizitza, izpiritubizitza denez, maite ditugunak, bai gurekin bizitzaren goraberetan zutunik daudenak eta bai gure tartetik betiko joan direnak, gure izpirituaren partaide dira gu bizi garen artean. Urbileko norbait iltzen denean, txoke bezela artzen dugu kolpea. Baina denbora aurrera doanean lasaitzen gara, onela gertatu zait neri orain, eta elkarrekin euki diren lanak aurrera jarraitu bear direla konturatzen da, besterik ez dago-ta egiteko gu bizi garenean. Eta orixe egiteko dago. Lanak aurrera eramanez. Alta Santiri, nere adiskide sendoari, laguntzaile aundiari, egia da, ezin orain idatzi eta orrial bialdu. Nere barneko arazoak, egiak, kezka, susmoak itxaropenak Aita Santiri explikatzen nenbilenean, ezinezkoa zela aitortu nuen azkenean. Bide bakarra bertsoak dira, bertsoak era zabalean ulertuta. Gauzak itzez itz, zeazki, adierazita, zenbat nai luze eta zabal eta zientifikoki ere, zeozer adierazi gabe geratzen da beti. Itz egitean eta idaztean eta gauzak azaltzean, zeozer oker eta makur adierazita geratzen da, beti berriro, baina barneko bearrak bultzatuta adierazten saiatu bear, alere, eta olerkian eta abestian eta ipuietan zerbait esatea lortu daiteke, onenean.

Kirsti Kalliosalo

KISTI ETA AITA SANTI

(Aita Santi'ren idazkien artean, KISTI'ri buruzko au aurkitu dogu)

Kisti, idazlea dogu, Finlandikoa izan arren, euskeraz idazten dau. Itzaurre pitin bat eskatu eustan, emen daukazu berau.

Begiaurrean dozu berau, berak egin egiña, ainbat eta ainbat orrialdekoa. Ez naz azken saiatuko. Nik ba dakit bere bizitzatik zerbait.

Bein, arratsalde baten, Enbeitanean nebillan Keparen olerki billa, 1971 garrenaren inguruan; aren olerki liburua "GURE URRETXINDORRA" Buenos Aires'en argitaratua. Sukaldean, andik etxeratzeko nengoela, neskatilla gazte dotore bat jatxi zan goitik bera, Jelsinki'ko Kisti zan euskeraz ikasi gura ta emendik ebillena.

Atsegiña zan. ikasten asia zan, eta naikoa ondo alkar ulertu giñan. Ondoren, beti ondo ulertu izan gara, bai berbaz, bai eskutitzez ogeita iru urte oneitan.

Emen dozu berak idatzitako liburua; berau Xabier Peña'ri eskiñitakoa dozu, bein ari esan eutsan: nik liburu bat egingo dautsut. Peña, euskal irakasle zintzoa il zan, e ta emen daukagu berak eskiñitako liburua.

Kistik ez daust esan inoizbe zergaitik asi zan euskeraz ikasten, bere ikasketak amaituak lez eukazan eta orduan asi zan izkuntzak ikasten. Donostiko sendi bategaz eukan ezaupidea, eta onen bitartez asi zan gauzea atontzen, nun ikasi, zer ikasi eta abar.

Eta egun baten or daukagu enkartaldean, ez leku egokia euskeraz ikasteko, eta Xabier Peña, ainbateri euskeraz irakatsi eutsena sartu zan bitarteko; etzan esku txarrean jausi.

Nik, ibaiondoko kale barrenean ezagutu neban bigarren aldiz, euskeraz ikasten gogotsu ebillela. Arrezkero, sarri alkar ikusi izan dogu, euskeraz beti; bai Helsinkiko idazkietan, bai emengo jardun aldietan. Peñak sarri eroaten ebazan bere ikasleak ara ta ona. Ni be Kistigaz batera erabili nindun EUSKALERRIÑ zear basterrak ezagutzen. Uda baten Kisti Helsinkitik etorria zan, bere ume seme alaba biekaz eta adiskide bategaz, au bere alabatxoagaz. Itzaltzu, Otxagabia ondoko erritxo baten geunkan gure egoitza, guztientzako, Kistiri atsegin jakon nik egunero esaten neban mezatara etortea eta beti inostan eder be eder jakola meza ori. Kisti ez egoan bateatuta, eta berak esaten eustan, bera pekatari zala eta azkenean bateatuta pekatu danak parkatuko jakozala... Bein egun aretan, Leiren giñala, liburu pilloa ikusi gendun sarrerako atean. Kisti liburu zalea eta an geratu jatan liburu azterketan eta bai eta erosi be bat, "LEKAIDEEN MONASTEGIKO BIZITZA" bidean be luzaro irakurten joan zana. Or bere zaletasunak.

Itzi zun gengozala, sarri joan giñan MUSKILDA ermitara, ANDRA MARIARI bisita egitea. Bost egun an inguruetako erritxoak ezagutzen egin ondoren, gure etxeetara, Helsinkitarrak lenengo gugaz batera Izarra ondora Enbejtatarrak ikustera, gero Zornotzara, gero euren baserrira enbeitatarrei azken agurra egitera, eta azkenez Helsinkira euren kotxe eta umetxoekaz. Gero be sarritan egon da Kisti Euskalerrian, lurrau oso maite daualako.

Gero, emen liburu au, nik ikusteko eta ona nik eta zeanuritar batek ikusita. Idazle arrotz batek egindako lan oni ez dautsagu azterketarik egin nai izan. Bego berean, langillearen lana. Kistik emengo euskalkien barri ondo daki, eta ez gaitezen asi aren lana obetzen.

Azkenengoa eskutitzean au adierasten eustan: "euskeraren jabea ez naz, euskalki jatorrak ez dakizkit, eta gustientzako ere euskera ofizial bat bear dugu?"

Neure euskera, ofiziala egijn dut. Euskera batua NEURE ERITZIAREKIN batu dut! Euskera batuaren erregelak errespetatzen saiatu naz, beste alde guztietatik, atxeari dagokienez baino. Hatxea, nere ikusgunetik, aozko izkuntzan galdua bada, atzerakoia da, eta erromantizismo alperren señaile. Kaltegarria da. Sinbolo izan zedin nai zuten, eta sinbolo besterik ez da izan.

Izkuntza orokor baten, literatur izkuntza, naiko artifiziala da edozelan ere; gaiñera biurritzea, aozkatu gabeko letrak erantsiz, umekeria da, nere ustez.

Mente latinoaren froga da, espainolentzat eta frantzetarrentzat ondo dagona, mutuak eukitea. Euskeraren espirituaren aurkakoa da H ori aozkatzen ez ba da, H bezela, eta ez J bezela noski. Au nere iritzi pertsonala da.

Kistik erakutsi onak emoten dauskuz. Euskaldun barriak askotan, euren iritzi zekenki erakusten dauskue. Bego emen Kisti'ren, atzerritar eta euskaldun barri danaren aburu eta irakatsi zorrotzak.

Aita Onaindia

ERDIAROKO EUSKAL- IZENEN IDAZKERA (II ATALA). BALPUESTA'KO GOTZAI DIAREN LARRUKIAK

804'EKO IDAZKI BAT (V)

Jarrai dezagun IX mendearen asierako larruki orren azterketa. Ez dezagun aztu, larrukj ori, Asturietako II Alfontso'rena dala, eta Alfontso ori, I Fruela'k Autrigoiei eraso zienean, aurrena baiturik artu eta gero bere emazte egin zuan "Araba'ko Muña neskati Baskoi" aren semea zala.

Oroi dezagun baitare, "III Alfontso'ren Kronikoiari artutako aipu orrek adieraztera damaigunez II Alfontso erdi bisogota eta erdi euskotarra zala. Bisigota I Fruela aitaren aldetik, eta erdi euskotarra Muña neskati arabar aren aldetik.

Erdi euskotar zalarik, "bai ote zan euskalduna? Baleike. Gero ere, erregetza artu zuanean, aurka jeiki zitzaion iraultza batetik iges, bere bizia salbatzeko, Araba'ko Autrigo Baskoien artera, ots "bere amaren aileen artera" (ib) etorri bait zan igesi, eta emen asti naiko luzez bizitu.

Ta, jakiña, bere amaren aide aiek ez zioten oraindik sortzeke zegoan España'riren sarkaldeko erromantzez itzegingo. Ezta noski lateraz ere. Naiz izkuntza ori Erregeak berak bai, Muña neskatiak eta onen guraso ta aide baserritarrek ez bait zuten jakingo.

Lotsagarri gelditzeko beldurrik gabe esan dezakegu beraz, Asturietako II Alfontso erdi euskotarra ba'zan ere euskaldun osoa izan zala.

Ez dira asko, Errege onen larrukian aztertzeke gelditu zitzaizkigun toki-izenak. Auetxek, ainzuzen:

* * *

OVETO VALDEGOVIA RIANTA CAMBRIANA BUSTO RODIL

OVETO. "Regnante Rege Adefonso in Oveto". "Ego Adefonsus gratia Dei Rex Ovetensium".

Antziñako Oveto ori gaurko Oviedo da: Asturietako uri nagusia. Ainzuzen gure Errege au, II Alfontso, Muña neskatil Baskoiaren semea izan zan Obeto basa-erri bat izatetik uri izatera jaso ondorean Asturietako Uri Buru biurtu zuana. An bizitu zan bera eta an ezarri zuan, ordura arte egoitza ziuurrik izan ez zuan Asturietako Errege Bisigoten Aulkia.

Bai Obeto eta bai Asturieta euskal-antza daramaten izenak dirala zalantzan ipintzerik ez dago.

Obeto'k, Obieto, Ubieto, Obieta ta Ubieta bezala "obi"z —edo berdin dana—"ubi"z asten d'jran izen ugariekin senidetasun argia duala dirudi. "To", atzizki ugaritasun adierazle dugu. "Obi", berriz, "zulo, gazteleraz "fosa"... "Illobi, "fosa de muerto", "sepultura" dala gaua jakiña da. Beti ote du "obj"k zentzu ori?

Araba'n bada **OBEKURI** izen-duan erriska bat, Trebiño'ko Konterrian orain. Bere elizan erromanik-erako atari polit bat duan erria da. Obekurj'n ordea zulorik ez da.

OBEKURI du izena Enkarterrian Sopusuerta'ko auzo batek ere. Bai ote da an zulorik? "OBI" ta "OBE", toponimiaren arloan ez ote dira zentzu bat bereko jtzak?

* * *

OBEKOLA, Bizkai'ko Zenarruza'ren alboan egon zan antziña. **OBEAGA**, andik ez urruti, mendi baten izena da. Eta, baita, **OBELAR** ere. **OBELBA**, gaurko Salvatierra de Ezka'ri esaten zitzaion antziña. **OBEKA** eta **OBEKO** gizaalaba eta gizasemeen euskal-izen zaarrak dira.

Eta izen oietako "OBE" guzti oien aintzindari dirudian **OBEA**, Gipuzkoa'n Tolosa'ko abizen zarra da.

OBE-ka, OBE-ko, OBE-ko-uri, OBE-l-ba, OBE-aga, OBE-lar, OBE-a ta gura Erregeak Asturietako un nagusi egin zuan OBE-TO, eta orrelako toki-izenetan "OBE" ori zer ote dugu?

Ez dakit.

Lopez Mendizabal dar Isaka nere erritar adiskideak, beti bezala, auntsaren antzera larrera jotzen du, eta OBE aurizkia "OBA"ren aldakuntza dala diosku, eta "oba"ri, gazteleraz "pastizal" esaten diotela.

Mitxelena'k berriz, errezero —errezegira— joz, "Obe", "Mejor" dala esaten digu, eta Tolosa'ko "OBEA" ura, "El Mejor" dala.

Arrapazak!

Eta, jakiña, "Obe"="Mejor" dalako orrek ez bait dio "Obe"z asten diran beste izen aietarako balio, Mitxelena'k ez ditu aipatu ere egiten.

Nik, Lz. Mendizabal "pastizal" aren eta Mitxelena'ren "mayor" onen artean, oraingoan, zalantzarik gabe, "paztizal" arekin geldituko nintzake. Zoritxarrez, ordea, ez dakit "oba" "pastizal" dalako ori nere adiskide arek nondik aterea zuan.

**

ASTURIETA. Itz onek ez du bere euskalduntasuna azaldu bearrik. Asturizaga, Araba'n Altube'ko abizena da, eta, Asturlaga, Ondarrabi'ko kaiaren izena.

Ast-Uri. "Uri" atzizkia zer dan badakite gure errietako kaleetan zer-janerentilla jauzika ibilli oi diran txolarre berritxuek ere.

Ez da ain erreza "Ast" aurrizkia zer izan daitekean ulertzea, naiz Euskal toki-izen eta abizenetan ugari agertzen zaigula, gauza jakiña izan. Ar ezazu edozein iztegi eta nai dituzun aiña izango dira jaso dezakezun "ast" aurretik daramaten izenak.

Mitxelena'k, "ast" ori "asta"ren laburpena dala esaten du. Ori, ordea, bazuetan da egia; ez beti:

Orrela, adibidez, Astamenda, patanaren (mentaren) antzeko belar latz bati esaten zaio, eta ez, noski, astoek gogo onez jaten duten belarra dalako, "asta", "asto" itzak, aurrizki bezala, "zikotz" itzen zentzua artzen bait du.

Berdin ezan daiteke, nere ustez, "Astalarre" toki izenaz: "belar zakarrez betetako larrea" dala.

Nik ez nuke, ordea, esango Astaburuaga "Astaburuz Betetako Tokia" danik: "Lugar de Cabezas de Burro". Edo Araba'ko Astobitza erria, (Asto- Bitza) "Lugar de Encuentro para Burros" danik.

"Are gutxiago esango nuke nik, "ASTURI" "PUEBLO DE BURROS" izan daitekeanik.

k

Zer ote da ba, "AST" ori "asta"ren laburpena ez danean?

"Latz", "zakar", eta orrelako itz basatien zentzua artzen badakiala esan dugu. Azkue'k, berriz, itz oien antzekoa dan "silvestre" itzaren zentzua ere artzen duala diosku. Azkue'k merezi du uste ona, iñork Euskalerrian merezi ba'du. Arrigarria gure Erri ontan gertatzen zaiguna. Azkue'k berdiñik gabeko bere iztegia argitara eman zuanez gero, eten gabe ari zaizkigu iztegiak agertzen. Euskaldun berriek ere ori bait dute beren guraririk kuttunena: Iztegi bat argitaratzea. Iztegi oiek danak, ordea, ez dute Azkue'naren aldean sos bat ere balio.

Azkue'ri gure uste on guztia emanez, ar dezagun ba egiazkotzat, "ast" aurizkia "silvestre" izan daitekeala. Ortaz, "Asturi", "Pais Silvestre", "Pais Montar z" ote da? Ez dut uste. Ortarako, euskeraz, Ast-Uri ez baiña Uri-Ast izan bearko bait luke.

Alatagutziz, idatzirik dagoan bezala ere, ASTURI itzak —Ast-Uri— ederki balio duala derjzkiot, lurralde aren etimologi bat eratzeko.

Ona, irakurle, beti bezala eskiertasun geiegirik gabe, nere etimologi ori: ASTURI = PUEBLO DE MONRARACES.

* *

VALPUESTA: - Araba'ko aranik sarkaldekoiena da. Arras polita. Lerra (piñua) berez jaiotzen dan lurraldea. Naiz gaurregun bere zatirik aundiena arabarra izan, badu an Burgos'ek mingaiña bezala egoaldetik sarturik, lurralde medar luze bat.

Lurralde orren azkenean aurkitzen da Balpuesta. Orain, errikozkor txiki bat. Aro zaarrago artan, ordea, errikozkor dotoreagoa, noski. Ori adierazten bait du bere latinezko izenak: VALLIS COMPOSITA, laburpena egiñik, VALLISPOSITA.

Eusko-Elizaren Edestirako, bertako "gobiek" egiten dute gaurko Euzkadi'ren zatj ura anitz garrantzitsua. Izena ere, nere ustez, beraiek eman bait dioten lurralde atsegin arri: VAL-DE-GOBIA = GOBI-ARAN.

Gobi oiek zer diran? V mendeaz gero, —eta agian IV'az gero—, antziñako kristau euskaldun otoitz eta garbai (penitentzi) zaleek bakartasunean bizitzeko eskulanez irikitako leize-zuloak.

Asko diran? Bai. Asko, Araba'ko sarkalde artan eta askoz geiago Araba'ren sortaldeko basoetan, Naparroa'rekingo muga-lurretan. Ainzuzen sortaldeko auen kopuruari era bikaintasunari so-egiñez izen eman zion Araba'ko lurralde ari "LA CAPADOCIA DE EUROPA" Joxemari Latxaga'k bere liburu batean. Ez ornen da ba Europa'n alako talde eder eta ugaririk.

Leize-zulo oiei, toki batzuetan GOBI eta beste batzuetan GOBA esaten die oraindik Araba'ko jende baserritarrek. "Araba'n Sarkaldeko Euskera, gaurko Bizkaiera, itzegiten zalako adigarri naiko sendoa? Araba'ko sortaldean bai: Bizkaieraz egiten zan. Baiña..." sortaldean ere bai? Edota, an, aro artan, auzoko Baskoien Euskerak "GOBA" erabiltzen ote zuan "LEIZA"ren ordez? Eta Baskoiengandik sartu ote zan itz ori, leiñuz bardulitarrak ziran Araba'ren sortaldeko euskaldun aien mintzora?

* * *

KOBA, KOBEA, GOBA, GOBEA, jatorriz itz euskalduna ote dugu? Ez dut uste.

Barkatu eidazu, irakurle, auziño oni-buruz gertakaritxo bat kontatu nai dizut-eta. Aurtengo udazkenean, Donosti'n etxebete bateko gelatxo batean

geunden bildurik euskalzale batzuk. Bazan an, anitz-oituraz-kanpoko-aburuz betetako adiskide bat. Koba itzaren euskalduntasuna aipatu zuan norbaitek. "Euskalduna izango ez da ba, oi u egin zuan asarre, gure adiskide arek. Ona bere arrazoiketa:

"KO", zerbait utsa eta borobilla da, (eta ori adierazteko bi eskuak erabilliz zerbait borobillaren itxura egin zuan aidean); "BA", berriz, beetasunaren adigarria da, (ta, ori esatean astiro beeruntz jetxi zituan eskuak).

"Argi dago (berriro esku-jokua erabilliz) Koba itz euskalduna dala".

Ta, bere erakusketa ari indar geiago ematearren noski, "latiñez, cueva spelunca zan. Cueva ez zan latiñezko itza", azken-esan zigun..

Egia, adiskideak erabili zuan arrazoiketaren bigarren zati au: Latiñez "cueva", "spelunca" esaten zan: eta "specum" eta "antrum". Baiñan "Cueva" ez zan latiñezko itza.

Latiñezkoa zan ordea, eta ondo klasikoa gaiñera, gaztelerazko "caverna"ren ama dan "CAVEA", latiñaren iztegi guztietan ikusi daitekean bezala. Eta "KA-BE-A"tik "KO-BE-A"ra, laburregia ta errezegia iduritzen zait bidea KOBEA, itza, naiz bere agoskera ta idazkera guztien pean itxur'aldaturik agertu, latiñetik etorri zaigun itza ez dala aldarrikatu aal izateko.

Ainzuzen ortan datza Euskeraren merezimendurik aundiena: Bere nortasuna galdu ez izatean. Itz asko, —asko!!!—, artu zizkion latiñari. baiñan bere nortasunik, bere nolakotasunaik, bere izaera bereizirik..., —ez zuan galdu! Euskera ez zan "Izkuntz Latindarretako bat biurtu! Euskera "Legua Isla" da: "Kidekorik-Eza"!; eta beste iñorekingo aidetasunik gabeko Izkuntza izanez jarraitzen du.

Noiz arte?

Ez dagit galde ori elbatuazaleek nork geiagoka sartzen ari zaizkigun frantzerazko itzei-buruz. Ez dira izango ordu bi, apaiz adiskide elbatuazale bat Españi'ko kode berriaz unetxo batez mintzatu zaidala bere parroko mutil batzuek soldaduskara joan nai ez dutela-ta. "Code", frantzeraz, gaztelarazko "Cc/digo" da. Itxuraz, elbatuazaleek, frantzerazko itzak sartuz "euskaldundu" ni digute Euskera!

Euskaldun batentzat ez ote da frantzerazko gaztelera bezain erdera? eta, Abertzale batentzat, ez ote da Frantzi Españi bezain atzerri?

**

Noiz arteko galde ori, Euskerak zenbat denbora bizirik jarrai dezakean pentsatuz egiña dut. Gure Erribera'ko eta Errioxa'ko eta Enkarterri'ko ikastolen garaitzek ez naute geiegi pozten. Ori egin bearra dugu, baiñan beste ororen gaindik egin bearra duguna euskera oraindik asko edo gutxi itzegiten dan errietan euskera bizkortzea eta bertako erritarren artean zabaltzea da, eta

eguneroko eginkizun guztietarako Euskera erritar guztientzat izkuntza bakarra biurtzea.

Orj, bereiziki, gure emakume maitagarrien eskuetan dago.

* * *

Al Gure adiskide ark esku- dantzaren bidez orniturik erabillitako arrazoiketa-ri-buruz, itz bi:

—Arrazoiketa orren muiña letra eta silaba bakoitzak bere esannai bereizi bat baduala uste izatea dala.

—Ori izan zala Astarloa'k erabilli zuan arrazoiketa-era. Eta Gorka Oteiza iru- digilleak era badiola, era orri, maitasun kuttunik aski.

— Alare, letra eta silaba bakoitzak bere esannai bereizi ori baduala uste izateko batere arrazoirik ez dalako, gaur parragarri gelditzen dala arrazoi oren aurkako arrazoiketa ori erabiltzera ausartzen dana.

Latiegi'tar Bixente



ASTIGARRIBIA ETA TRITIUM TUBORICUM

1.— San Andrés Apostoluaren Eliza

Astigar-ibia, aldebatetik bestera ibaia pasatzeko unea, itsasotik lau kilometrorra dago. Auzoa Mutriku da eta bertan zegoen Deba'ko portua, Monreal erria sorlua izan baiño lenen. Itziar'ko Monreal izan zan asieran, Deba'koa sortu aurretik.

Zergaitik eskatu zuten itziartarrak Deva'ko Monreal sortzea? Arrantzatik bizi ziranez, Astigarribia'ko kaia urrun zegoelalako; beste aldetik, berriz, itxas-lapurren arriskuak amaitu ziralako.

Astigarribia'n, gaurdaño, eldu dira bi izen auek: moillatxua eta astillero. Beraz, an barkuak egiten ziran, Lastur'en ainbat burni-ola zegoen garaian. Lastur-beatik aurrera doa Sasiola'ra irteten duen bidea. Gerora, ordea, moillak eta astilleroak Deba'ko Monreal'era jeitxi ziranean, olak ere bai: or daude astillero kalea eta Errota-zar fut-bol zelaia. XVIII'garrenean olak, errota biurtu ziran.

Astigarribia'k moillatik eun metrora, eleiza berezi bat dauka edo obeto esateko, bi, bata bestearen barruan, Aralar'ko Mikel Deunaren elizan bezela. Orrek errespeto aundia ematen dio barruko eleizari, kanpokoaren babesean dagoenez (LEKUONA, Manuel. Tomo III, Obras Completas, pp. 151, Ed. KAR-DABERAZ, Tolosa, 1978).

Eliza aundiak leio luzanga batzuek ditu, and;ik geziak botatzeko portu alde-
ra, iba;itik itxaso-lapurrek agertu ezkeru.

Mutriku dala esana daukagu; baña, Mutriku (1.200) baña eunka urtez aurretik bizi da Astigarribi; antxen bertan daude zubi zarrak eta berriak. Baita auropista berarena ere. Aita San Franzisko'ren semeek, euren Gipuzkoa'ko irugarren komentua ez zuten ez Deba'n ez Mutriku'n egin, astigar-ibi onen ondoan, Sasiola'n, baizik. Zergait;ik? Batetik besterako ibirik ez zegoelako: andik pasa bear zuten bai batzuek eta bai besteak.

Errromatarren Tritium Tuboricum aitatzen danean, guztiak ao batez esaten dute Mutriku'n dagoela: Astiarr;bia'n ala Mendaro'n. Biak dira Mutriku. Lekuona'k ere orrela dio; baña, nik usten det ez zegoela ezkerretara, ibaiaren esku-bira, baizik: Itziar'ko aldean, geroago ikusiko degunez. Astigarribia ballaratxo batean kokatzen da, kare-aitzeko mendi artean, Mutriku eta Elgoibar'erako bidean.

Mutriku ba'da ere, Gazteiz'ko Gotzategia 1862'ean sortzerako, Calahorra'koa zan Astigarri'ko eliza; baña, ez mutrikuarra. Ertze orretaraiño eltzen zan Calahorra'ko Gotzaiaren eginkizuna. Bear ba'da, ordea, D. Manuel Lekuona'k dionez, aurretik Bayona'koa ere izanda dago; XII'garren eunkian, Bayona'ko Gotzai batek sagaratu bait zuen eliza au. Egi ori sendotzeko D. Manuel'ek LANDAZURI'ren "Historia de Guipúzcoa" eta LUCIANO SERRAÑO'ren "Cartulario de San Millán de la Cogolla" aitatzen ditu.

Orren ondoren Calahorra'koa dala agertzen da paparetan; baña, ezker-eskubi, Mutriku ere bai, Iruña'koak dira. Adar antzeko mutur luzea sartzen du Calahorra'k, Azpilgoetatik gora, Astegarribia'raiño. 1081'garreñ urtean —D. Manuel'ek dio bere Irugarren Liburu orretan— Castilla'ko Alfonso Laugarrenak


San Andres'en eliza au, "inter Byzcahiam et Ipuzkoam" zegoena Rioxa'ko Monasterio de San Millán de la Cogolla'ri eman zion. Ez dakigu ziur zer esku-bideekin, esaten digu Lekuonak, "eta, ain xuxen, an dago San Milla'n Suso'ko elizan kapera bat bisogtiko antzerakoa arko perradunekin, moroak sartu aurreko estiloan".

Aurreko orrialdean esan digu berak, Don Manuel'ek, Astigarribi'ko eliza ere bisogtikoa dala, erromanikoaren aurretikoa, aldarean duen leioaren perra-antzagaitik. Bisogtikoa ez ba'da, mozarabea: dana dala, erromanikoaren aurrekoa.

Astigarribia izango zan kristautasun-zabalkundearen toki barezi bat, bisogtikoen garaikoa: Sevilla'ko San Isiforo, Toledo'ko San Eugenio eta Armentia'ko San Prudenzio'ren egunetakoa eta aren lekuko degu San Andres apostolua-ren elizatxoa eta bere aldarako leiotxo perraduna... Elizatxo bat beste baten barruan.

Zarra dala historian agertzen digu bajta ere, lenago esan degun beriztasu onek: Astigarribia Bayona'ko Apezpikuaren mende zegoela, Gipuzkoa'ko barrutian. Lacarra jaun naparrak, Erdiaroko arazoetan jakintsua, ez zan batere arritu nik esan nuenean, emen bisogtiko aztarnak zeudela —dio Don Manuel'ek— Emen, Lacarra'k dionez, merkataritza ugari izan da Bayona (Lapurdum) eta Bizkaikosta artean itxasoz.

Ez da;gun aastu —dio berriro— Deva ibaiko portua or zegoela eta barku-



Situación de los nombres de lugar citados por los autores grecolatinos en la Provincia de Guipúzcoa.

merkaritza ugaria izan zala gure artean; egunez bakarrik itxasoratzen ziran eta gauero kai baten babesa billatu bear, gure itxas-ertzeko ibaieta. Barku bat daukagu ondoratuta Asturiaga Bidasoa'ko Higuier muturrean; beste bat Garona ibaiean, Burdeos parean; irugarrena, Galizia'n Corteagada auzoan... Orra iru otxas-ontzi erromatarrek ondoratuta: bata Galizia'n, bestea Euskalerrian eta irugarrena Burdeos'en... Gertaera onek garbi erakusten digu nundik ibiltzen ziran erromatarrek itxasmerkataritza egiten. Egunez udetan, gauetz legorreen. Astigarribia'n zeukaten babesa eta edateko ur geza naikoa, Ugartemendi eta Lastur'en galtzen diran urak, Astigarribi-alboan agertu. Orra arrazoi galantak erromatarrek an agertzeko.

2.- Azter-lanak Astigarribia'n

Lekuona'k lau aizetara botatako S.O.S. ura, Astigarribia'ko eliza bisigotiko zala, alegia, ez zan alperrik galdu: Donostia'ko aldundegiak eliza aretan azterlanak egiteko Ignazio Barandiaran, arkeologoa, Zaragoza'ko Ikastola Nagusiko erakuslea, aukeratu zuan. Onek berri apuir batzuek eman zitun "Guipúzcoa en la Epoca Antigua", Gipuzkoako Kutxa 1973, Ilburuxkan eman zitun. Bere adierapen bakarra aUxe izan zan: bisigoitko ez baña mozarabea da Astigarribia'ko egitura.

Gauza auen berri, ordea, Don Manuel'ek berak emango diskigu euskeraz, lenago aitaturak III Liburuaren 392'ti,k 396 orrialdetara. Onela dio berak:

"Leio romaniko bezela, ezaguna zan leen ere Astigarribia'ko San Andres Elizaren Abside Prebisterioko leio luzexka estua.

Lopez Vallado'ko aipaturik zeukan bere "Geografía del País Vasco-Navarro"ko lanean; bañan "ventana (románica), bezela, de arcos concéntricos, muy ruda, pero muy interesante". Berdin baita 1930'eko Serapio Mugica'ren eta Fausto Arocena'ren "Guía de Guipúzcoa" deritzan liburu polit batek ere: "un ventanal románico en el ábside".

Iñork ez ziion jaramonik egin leioaren goiko arkoari; arkoa zaldi-perra-antzekoa dala, alegia... Seminario'ko Arkeologi klaseetan, aipatu, askotan aipatzen nuan nik Astigarribia'ko zaldi-perraren detalle ori... Eta gero, berriz, gerra-teak itzali zizkigun, gauza auetarako gogo eta adore guztiak.

Bañan, gerrondoan, denboraren buruan, Gaztelz'en Arkeologi-Batzar bat izan zan: "De Arte Paleocristiano"... Bañan, ez dakit nola ta zergaitik artarako egiña neukan Memoria, etzan iritxi batzarrera.

Bañan, andik laister pentsatu nuan, Aldizkariren batean ezagunerazi bear nuela nere sekreto... Eta, esan-da-egin. 1963'gn urtean "Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País-era bidali nuan artikulo bat, gauza nola dan esanaz. Eta, danok dakizute, geroztik, Astigarribia'ren inguruan sortu dan ikusi eta ikasi nai bero bizia. Eta, geroztik artu degu Gupuzkoa'ko Diputazio'tik, gauzari degokion azterketa eta erakuntza guztia egiteko agindua; eta egin ere, ola egin da... Eliz-barru artan egin dan azterketa eta erakunde ederra.

Lan luzea izan da, iru urte ontan, Urkola Manuel Arkitekto jaunaren ardura-pean... eta kontu aundiz eginbearrekoa. Lenengo-lenengo lana, barru-aldetik leio estaltzen zuan Aldare Nagusiko retabloa kendu zan, leioa agertu zedin. Gero, karez estalitako Presbiterioko orma zabalari, karea kendu... Kare-kentze ortan, Presbiterioko goi-goian, baste lelo bat azaldu zan, leio estua, saietera-antzekoa, ez, ordea, perra-itxurakoa.

Gero kendu zitzaioan Elizari, azken-urte otan bobeda-orde izan duan "cielo rasoa"; eta orduan azaldu zan bere izaera osoan, Elizak leen zuan egurrezko bobeda, naiko interesantea, bere frontal eta kapirio-jokuz. Andikan bereala garbitu ziran, esker-ezkubiko ormetako kare guztiak, eta arria agerian utzi...".

Andik laister -Lekuona'k dionez- Elizaren lurra aztertzeari ekin zitzaion "ea nolako zimentegia agertzen ote zan... gauza bat agertu da naiko argi: Kruze-roaren burua estua zala, eta Elizaren ardi-aldea, zabalagoa; ala berean agertu zan argi-argi, antxiña-antxiñako aldare-maiaren oiñarria, oiñarri estu-antza Presbiterio-erdian, ormatikan bereiz". Lurrak urratzean, "ango gorputz obiratu-ten artean... ondar-arritzko bloke batean illobi antropomorfo eder bar: buru-aldea biribil, eta sorbaldak zabal eta gorputza luze-alean estu... -San Millan de la Cogolla'ko "Los Infantse de Lararenak" deritzaten antz-antzekoa".

"Azkenik... Don Ignazio Barandiaran'ek arakatu eta atxurto du berri lur guztia... gero lanaren ondorenak liburu eder batean eman dizkigu... Orain dana bear bezela eratua dago: lurra ol leunez estalia; illobi antropomorfoari dagokion lekuan ola jaso eta ikusteko eran; Presbiterioan malladia ta dana lengo neurrian; arrizko Aldare-maia bere lekuan; bobedatik txintxilik Gurutze Santu antxiña-antxiñakoa...".

Ignazio Barandiaran'ek leioa bisigoitko ez baño, mozarabe dala esan digu. Alaz ere D. Manuel pozik dago bere S.O.S. bisigoitko arrek, rnugitu dituela bazterrak arakatze auek sortuz. "Bañan, baita geroko D. Ignazio Barandiaran'en azken-itx jakintsuagatik ere: gure Astigarrabia'ko leio polita XI gizaldikoa dala, alegia, esan digunagatik".

Lekuona'k onartzen ditu Barandiaran, Ignazio, jakintsuaren intzak; baña, ez diote biotza lasaitzen era baretzen, orregaitik jarraitzen du era onetan:

"Ala ere, ordea, uste det ora;ndik, nere lengo itza eta iritzia es dirala bertan beera uztekoak. Oraindikan aztertu litezke orduko nere argumentu eta arrazoi-bideak: eta ortara noa orain azkeneko nere itz auetan".

Ignazio Barandiaran'ek ez du bere esana sendotzeko, arkeologiatik zuzenean ateratako arrazoibide bat ere ematen. Eta D. Manuel'ek orretan erasotzen dio:

"D. Ignazio Barandiaran 'en argumentazioa -argumentazioa "negatiboa"-ontan dago:

A) Arkuari berari dagokionez, perra-arkua, ez da, naita-nai-ez bisigotikoa; VIII gizaldia baño onutzago ere -X'an erebadegu perra-arkurik, mozarabe-estiloan.

B) Astigarribia'ko leioari "kontextua" falta zaio: ots! Bere inguruan, garai urruti artako zerbait "giro" esan ditekianik".

Bi esanaldi aueri onela erantzuten dio D. Manuel Lekuonak:

"Nere argumentazioa:

A) Perra-arkua, bere zaarraren zaarrez, ain da "gure artean" gauza bakana, beste olako bat arkitzeko San Milla'n de la Cogolla'raino joan bear degu. Leire'n bertan, bere antziñatasun aundi-aundia arren, ez dago perra-arku garbirik,

B) Kontextu-kontuari buruz, auetxek ditut esan bearrrik: argumentu "positiboa"

1.- Astigarribia, bere erri-izatez ez dala atzo goizekoa: ba dirudi Geografo Klasikoen (erromatar eta greziatarrek) "Tritium Tuboricum", gure Astigarribia dala: Tolomeo'k dion "Deva attingit Tritium Tuboricum", alegia,,: ots! Astigarribia dala, Deba ibaiak ikutzen duan "Tritium" arria, gero batean Alfonso VIII'k, izena

eta erri-izate, gaurko Motriko'ra eramana. Kontextu klasikoa (ordu greko idazleak izendatzen dute).

2.—Astigarribia Erdi-Aroan ibai-portu izana dala, artean Deba erririk etzeanean... an bertan dago kao-muturra (mollatxua izenakin) eta "astillero"... nunbait itxas-bastarrean porturik izaten itzan garaian an sortuak; garai artan, Bayona'tik Kantauri kostara merkatari-itxas-ibilliak egiten bait ziran, ibaiportuetan gabez egonaldiak egiñez. Erdi Aroko kontextua. (Kontextu orrek balio du Erromatarren garairako ere, Astigarribia'ko eliza sortu aurretik).

3.—Ikusgarria dala, gañera, ibai-ertzetik bertatik ateratzen dan galtzara sendo-sendoa, leratan kargak erameteko egoki-egoki egiña. Arkeologi-kontextua. (Elizak dituen saeterak bide orrei begira era kontextu arkeologikoa da).

4.—Gipuzkoa'ren izena bera, lenengo aldiz azaltzen dan dokumentua, Astigarribia"ri dagokion dokumentu bat dala... San Millango Monategiari Astigarribia erregali egiten zien dokumentua, 1086'gn dokumentua. Dokumentu kontextua.

5.—Ala berean, baita, beste gauza berezi bat ere: dirudianez, Bayona"ko Gotzaiak bazuela zer ikusi —jurisdizio?— Astigarribia'ko Elizan; 1108'gn urtean etorri bait zan zerbait konsagrazio egitera... Historia kontextua.


6.—Aipagarri dala, gañera, Elizaren beraren izaera berezia —antziñatasun-kontextu—: ots! Tellape berean bi Eliza izatea, alegai; oso gutxitan ikusten dana, Eliza baten barruan, beste bat: emen oetan Aralar'ko San Miguel'en bait degu or; eta Orreaga'ko "Santispiritus" en, eta Eunat deritzan Nafarroa'ko beste Elizatxo ots aundikoan. (Baita Irun'go Santa Elena'n ere; barruko etxetxoa erromatarren illerri izana).

Gero aipatzen ditu Ormaiztegi eta Idiazabal'ko ponte zaarrak bisigotiko aztarnak topatzen dizkielako eta Astigarribia'ko illobii antropomorfoa (giza-irudikoa) San Millan de la Cogolla'n eta Araba'ko eskuz egindako kobeetan berdiñak daudelako...

Onela amaitzan du Manuel Lekuona'k bere kontextu arazo onekiko erantzunak. Nik usten det Astigarribia'ko kontextuari buruz oso larria dala eta astuna, Tritium Tuboricum zorieko ori.

3.— Tritium Tuboricum

Ignazio Barandiaran jaunak, berriro aitatzen degun bere "Guipúzcoa en la Edad Antigua" liburuan, 31'gn orrialdean, mapa bat dakar izen-buru onekin: "Situación de los nombres de lugar citados por los



Astigarrabia.

autoreas grecolatinos en la provincia de Guipúzcoa". Kosta-aldean, eskubitik asita Aquitani izena dator egalean; ezkererago, Bidasoa ibai inguruan, Olas-son; ondoren Magrada (Urumea) ibaiaren aldamenean, Morogi; Urius ibaia eta bere ezker aldean Menosca (Guetaria); ezkererago beste izen-gabeko ibai bat eta azkenik Deva ibaia eta bertan Tritium Tuboricum.

Onela dio, itzez-itzez, Barandiaran Ignazio'k, bere liburuaren 32'gn orrialdean eta guk, aal degun zuzenean, euskeratuko deguna:

"Deva ibaia Plinio, Mela eta Ptolomeo'k ipintzen dute Nervión ibaia eta Higer-muturraren tartean, Varduli'en muga bezela sartalderuntz... Ele-aztar-netan dabilzan guztiak, alkarrekin bat datoz, Deva izena zeltarena dala edo beintzak zelta-itxura duena. (Tovar'erekin beste lau jakintsu aitatzen ditu esae-ra orren agerbide): latiñeko "divus" setik datorrela (edo bestela indoeuropeo "deivos", jainkosa edo jainkoarena esan nai duen izena), da berea. Eta orrek eramaten gaitu zelteen denboretara; ibaiak eurentzako jainkosak ziren... Hispania'ko lurraldeetan Devfa asko dago emendik kanpora ere: Deva ibaia Santander'en, beste Deva bat, Miño ibaiara dijoan erreka; Portela Deva Pontevedra'ko mendate bat eta Riodeva Teruel'en.

Tritium Tuboricum Vardulia'ko Deva ibaiak ikutzen du: "Flumen Deva Tritium Tuboricum attingit". Ala esaten du Pomponio Mela'k (De Situ Orbis, Liber III, Cap. I) Aita Fita idazleak dionez. "Attingere" eskuakin ikutzea da; beraz, ibaiak Tritium ori ikutzen du, uraren ertzean dagoelako. "Attingere" itzaren esan-nairik errezena eta zuzenena orixe da.

Tritium ori nun dagoen asmatzen dabilzanak esaten dute, ao batez, Mutiku'n dagoela, Astigarribia'n dagoela, baita Mendaro'n dagoela ere. Dana dala Astigarribia eta Mendaro Azpilgoeta, Mutriku ziran. Mutriku esanakin asmatzen dute.

Aitatutako idazki orretan Aita Fitak au dio: "...haciendo reacer el sitio de Tricio várdulo cerca de Astigarribia". Badago Astigarribia'ra eldu aurretik ibaiak egiten duen mako aundi bat, Iruroin baserria egon dan tokian, Arno mendipean. Laua da eta zaldi-perra baten itxura du. Ez du berezkoa danik ematen, ain txukun eta ain borobil eta ain neurri berdiñak ibatiik mandia... Astigarribia'ra eramatea Tritium ori, bidezkoa da; bera izan bait da Deva ibaiaren lenengo portua. Erromatarrek ibai-barruetan billatzen zituzten euren kaiak: Bidasoa'n, Irun'go El Juncal'en; Urumea'n, Ernani'n; Artibai'en, Berriatua'n; Gernika-Oka'n, Forua'n eta abar.

Beste alde batetik, berriz, JULIO CARO BAROJA jaunak, bere "Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en Relación con la Latina", Universidad de Salamanca, 1944, 124-25 orrialdeetan, onela dio:

"Esta división por valles se encuentra expresada desde época muy remota... Y en la demarcación del Obispado de Pamplona, que quería pasar por una documento del año 1027, siendo una falsificación de algo después, se dice: "...cum vallibus subscriptis, scilicet Lerin, Oiarzun, Lavaien, Araiz, Larraun, Araria, Ozcue, Ernani, Seyar, TICIAR... cum omnibus supradictis vallibus et toa Ipuzcoa".

TICIAR ballara neronek azpimarratu det.

Itziar, dokumentu orretan, ballara bat da eta izena, Ticiar. Benetan interes-garria da xeetasun au: ITZIAR = TIZIAR. Batak I dauka T'ren aurretik; eta bes-teak I ori T'ren atzetik.

AURELIANO FERNANDEZ-GUERRA, "Geografía Romana de la Provincia Alavesa" izeneko bere lan batean (Bol. De la Real Academia de la Historia,

1883), "Deve Tritium Tuboricum attingit" gogoratzen digu onela ondoren esanaz: "En Plinio, en Tolomeo y en las inscripciones son neutros los más de los nombres geográficos" eta orregaitik berberak erderaz itz oiek ipintzean onela deitzen die: Tricio Tuborico. Errietako izenak ez dira UM'ekin amaitzen, latinez ala egiten ba'dute ere, "neutroak" diralako. Latinez, erderaz bezela, iru eratako itzak daude: masculino, femenino eta neutro. Euskeraz danantzako bat egoten da: naiz gizon, naiz emakume, naiz errien izenak izan. Ederra, berdin esaten da gizonagaitik, emakumeagaitik, mendiagaitik; latinez, ordea, iru amaiera bear dira: o, a, um. UM euskeraz ez dagoenik, ezin izan litezke Tritium Tuboricum'en amaiera oiek euskaldunak.

Zer amaiera zuten euskeraz? TuboriKo, amaiera ona dala euskeraz iruditzen zait, tokiko izenak Ko orretan amaitzen dirata: DebaKO ibaia. Orrela izan ezkerro, Tuborico Tritium'en tokia da.

Baña, Tritium ori, zer da? Erderaz, Tricio egin dute; baña, itz ori euskaldunada eta ez erdalduna; beraz, Tricio ez da UM ori ez da O. Kendu dezagun O ori. Zer gelditzen da? TRICI. TICIAR izateko A bat falta. Kundu deiagun TICIAR'eri A ori. Eta ona TICIR izena. UM ipiñi dutenean amaierako A bat sobrea zeukaten eta R izkiakin zer egin ez zekiten eta T'aren ondoren ipiñi zuten: TRIZI = TIZIR; Galdutako A'kin orra TIZIAR.

Tritium Tuboricum Tiziar Tubori-ko biurtu da. Badu euskerazko kutsua. Iruña'ko dokumentua idatzi zuenak, Plinio eta Tolomeo'k egindalo okerra egin zuen: ITZIAR'en lenegon izkia, I, T izkiaren ondoren ipiñi: ITZIAR - TICIAR.

Oker au beste toki batzuetan ere ikusi degu. Bada erromatarren garaiko Bide Zabalen artean Via 34 deritana, Burdeos'tik Astorga'ra zijoana. Baditu geldiuneak (statio) tarteka: Burdeos'tik Iruña'ra bitartean orretan daude Immo Pirineo eta Summo Pirineo (Orreaga). Andik Iruña'ra beste bat dator: Turisa, Turissa, Iturisa, (turissa. Lau itz `statio' edo geldiune berdiña esateko. Bi alditan galtzen da I asierako ori: Turisa eta Turissa'n. Gañera ikusten degu S orrekin ez dirala bat etortzen: S batekin edo SS birekin idazten bait dute. Erromatarrek ainbat aldiz orrela ibiltzen ziran, gure euskal itzekin batez ere.

Zailtasunen bat aurkitzen zuten izen orretan. Lekuona Manuel'ek, zailtasun berdiña topatzen du, bere erriaren izena, Oiartzun, idazten. Batzuek S batekin eta beste batzuek SS birekin. Tolosa'n atera ziran Bere lan Guztien liburuteko XII'ganean, 1978, 15-16 orrialdietan, onela dio euskeraz:

"Bi ejiptotarrak (Tolomeo'k eta Estroban'ek) gure Erriaren izena, OIASSO idazten dute... deklinabidean sartu ezkerro, bukaeran -N artzen duala... gaurko Oiartzun'en antza-apur bat geiagorekin...

Nolabait dala, itz orretan, -r-'rik gabe idaztea, ez da, bear bada, ain arritze-lo gauza. Bear bada, gure bi grekoak —Tolomeo'k eta Estrabon'ek— -ss- doble baten bitartez -rs- bat, edo -rz- esan nai zuten. Ez dakigu garbi-garbi, zer misterio ezkututzen dan -ss- orren barruan; bear bada, ain zuzen, guk -rs— eda -rz-'tarekin esaten degun gauza bera... -r-ren eta -s-ren artean diran artu-emanen indarrez...".

Geiago ere esaten ditu ondoren Oirtzun'eri buruz; baña, guretzako oiek begien aurrean idukitzea naikoa degu, Turissa edo (turissa itzen gaia aztertze-ko. Azterketa ori JULIO ALTADILL jaunak egiten du bere liburu onetan: `De Re Geográfico-Histórica' Vian y vestigios romanos en Navarra. 1923. (Publicado en el Homenaje a D. Carmelo de Echeagaray. San Sebastian. 1928).

504-507 orrialdeetan, Via 34'ren Geldiune orrek lau izan dituela (Turisa, Turissa, Ituisa, (turissa) esaten digu eta ondorengo orrian, onela dio:

"La vía romana al ascender y tocar en `Iturrisa' (ha cambiado a posta el `Iturissa' por 'Iturrisa') brindaba al caminante el agua pura y cristalina de una fuente cuyo nombre de `Iturrizar' subsiste único y generalizado todavía...". Don Manuel Lekuona'k Oiartzun'en ikusten zuan illuna, `Iturrizar'en argitu da. Bi SS'ak R eta Z gordetzen dute... Garai artako Erroma'tik zetozen idazleek, emengo itzak eurentzako errestu egiten zituzten naiz-eta aldatu, latin kutsua emanez. Eta orixe berbera egin zuten gure Tritium Tuboricum'ekin.

Garrantzi aundiko gertaera au: Iturrizar'en 'statio' edo geldiuene bat ipin-
tzea, Orreaga'tik Iruña'ra. Besterik ez dago. Eta zergaitik sortu dute 'statio'
ori? Edateko ura dagoelako. Iruña'tik 32.582 metrora dago eta andik gora,
Orreaga'raño, ez zegoen besterik. Iruñati'k Orreaga'ra, bat bakarrik; ura zego-
elako. Eta Gudarosteak bearrezkoa zuen edateko ura eta Iturrizar'en sakone-
ko lana egin zuten erromatarrek (Altadill. 580 orri.) ura ugari une batean izate-
ko.

Legorrek Gudarosteak ura bearrezkoa ba'zuten, baita itsasoko ontztlak
ere: gerrarako barkuak eta merkataritzakoak. Gogoan izan gaez biltzen zirala
geure kaietara eta Astigarribia'ra areago: ur-billa.

Ignazio Barandiaran'ek dakarren mapa orretan, Gipuzko'n lau txoli adieraz-
ten dira: Oiasson, Oyartzun'go zillar meatza; Morogi Pasa; edo Donosti'ko
kaiak; Menosca, Getaria'n eta Tritium Tuboricum Deva'ko ibaian. Oiartzun'go
Arditurri zillar-meatzak garrantzi aundikoak ziran oso (400 gizasemek 200
urtez landutakoak); Donosti ta Pasaia berezko kaiak dira, oso ederrak; Get-
aria'k beti eman die babes a jtxas-ontxiai, ekaitzetan batez ere; baña, Deva'ko
Tritium Tuboricum orrek, zer zeukan, orrelako mapa baten bereizteko? Ura
ugarj. Izarraitz'etik Ipar-aldera biltzen diran urak, ugarte baserriko osin batean
galtzen dira; eta Lastur'koak, ainbeste ola erabiltzen zituztenak, aiek, berriz,
Lastur-bean desagertzen dira. Eta mendi barrenetik pasata gero, an agertzen
dira Astigarribia-aurrean, ibitik beste aldera, Itziar'ko (Deba'ko) Tubori'ko are-
tan. Ez daude Astigarribia'ko auzoan, aurrean, baizik: Ticiar'ko dallaran. Eta
tokia da Tubori-ko. Via 34 deritzan erromatarren bide zabalean, `statio' egin
bazuten ura zegoelako; emen ere berdin jokatu zuten: iturria erakutsi nun
zegoen: "Flumen Deva Tritium Tuboricum attingit": eskuakin bezela ikutzen du
ibaiak iturri berezi au. Ibaitek amar metrora agertzen da, ez iturri bat, errekatxo
bat. Baizik. Ibaiak ikutu eta berekin eramaten du. Ontziak bertaraiño joaten
ziran, naidan beste ur an bertan artzeko. Ontzi batentzako ez, ontzi-talde oso
batentzako urak datoz. Xeatasun au ez zuan D. Manuel'ek ezagutu; ez det
uste idazleetako beste iñork ere, errekatxo oso motza bait da. Nik ori banekien
bertan perretxiakutan ibilli-ta gero eta orretxeagaitik konturatu nintzan Tubori-
ko Tubori-ko ori iturria zala.

Ticiar'ek bezela, itz onek ere T aurreko I galdu du edo tokiz aldatu. Ipiñi
zagun bere tokian: Iturbu-ko (Itur-buru-ko ikustea ez da zailla). Itziar Iturbu-ko.
Onelako murrizketak, euskeraz, edonoiz egiten dituguz (Joxemiel Barandiar-
an)... Kanpotarrek egitea, errezago. Itur-buru au Itziar'ko lengo bailaran dago.
Iruña'ko Gotzaitegia zabaltzen zan Itziar'ko ballaraiño = `el valle de Ticiar' ...
Itz-ziar, ur-ziar izango da eta Ballara onek Ifar-aidetik Itxasoa (Itz-oso) dauka;
aldamenetatik bi ibai-erreka: Urola eta Deva; eta egoian, Izarraitz (Iziar-aitz)...
Iru aldamenak urez eta laugarrena, aitez: or biltzen da itziar'ko ballara eta
bailara orretan dago Itziar'ko Iturbu(rua), gaur-egun Deba'koa bada ere.

Iñork ez du arrazoibiderik ematen, erromatarren garaiko idazleetan, Deva
ibaiko Tritium Tuboricum ori azpimarratzeko. Lau gauza kostaide osoan, eta

bat, ori. Zergaitik? Inortxok ere ez digu sekulan esan; baña, nere iritziz beste arrazoirik ez dago, gaurkoz beintzat, urarena baiño. D. Manuel'ek billatzen zuen `kontexto'rako interesgarria da oso, uraren arazo au: erromatarrek, bas-koiek eta ondorengo ontzi guztiek Astigarribia'tik pasa dira beuren eztarriak bustitzeko. `Kontextu' hau sekulako kontextua da. Kontexturik ez zala zion Ignaio Barandiaran'ek, elizako arku-perraduna bisigotikoa zala esateko. Ori ba'da bear zana, ortxen dago. Bazuen Lekuona'k beren argibideak, bisigotikoa zala esateko; bañan, kontextu au ez zuan gargi-garbi ikusi.

Urrutira joan gera Astigarribia'ko bide onetatik, baña, merezi zuan D. Manuel oorez jazteko, berak ikusi bait zuan lenengoz, begi-biztan zegoen arku perraduna. Bisigotikoa izan leike, berak asiera aretan esan bezela; gerora, ez gogo onez, besteen iritxira makurturik, atzera egin zuan. Baña, bisigotikokez-ka ori ez zitzaion sekulan burutik aldendu.

Astigarribia'ko Eliza orrekin, gure arteko kristautasuna oso zarra zala, agertu nai zigun, eta ez gizaldikoa beste batzuek ziotenez. Erromatarrek ibilli ziran Tritium Toboricum'en etenik gabe eta ez da batere arritzeko, lenengo kristauen gunea bat or kokatzea.

Arrinda'tar Anes

EUS^K "BERRI" 9

"Amicus Plato, sed magis amica veritas", dio latinezko esaera zaar batek. (Ots, "Adiskide dut Platon, egia ordea adiskideago").

Ésaera honek eragiñik eta bultzaturik nator idazlan au egitera. Iñundik ere ez iñori minik emateko edo aurka egiteko asmoz. Nornairentzat guztizko pake-asmoz, begirunez eta adiskidetasunez baizik. Egiaren irrikak nakar. Egiaren beraren argiak euskeraren ibilpidean gida gaitzan. Euskeraren eta euskaldunon onerako. Besterik ez.

Jardungai mugatzeko, oraintsu-oraintsu irakurri ditudan esakuntza edo esaldi batzuk aipatuko ditut:

- "Eleizearen edestia euskeraz" (DEIA, abuztuak 15, 1996).
- "Euskerazaintzaren lendakaria" (ZER, 210 zenb. 1996, 9 orr.).
- "Euskalerriko Elizaren edestia" (EUSKERAZAINTZA, XXXVI zenb., 1996, 19 orr.).
- "Elizaren edestia" (ibid., 25 orr.).
- "Euskalerrri zabaleko edestia" (ibid., 19 orr.).
- "Gure edestia" (ibid., 25 orr.).
- "Eliz edestiari buruz" (ibil.).
- "Eliz-edesti-sorta" (ibid., 22 orr.).
- "Euskal Elizaren edestia" (ibid., 22 orr.). Eta abar.

Leenengoz auxe esan bear dut agirian: esapide oriek neretzat berriak edo oraintsu arte gutxi-gutxitan entzundakoak direla. Ia-ia guztiz ez-ezagunak. Euskararen eremuan ez-ikasia naizaleko izan daiteke ori. Ez dut ukatzen. (Kontuz! Ez dut au nere buruari arrika egitearren esaten, ezta gezurrezko apaltasunak edo, obeki, apalkeriak eraginga, buruan tinko-tinko ezarria daukadala-ko baizik. Eta bidenabar zerau esango nuke: zoritxarrez, euskeraren barrutian euskaldunak geien-geienok -bat edo beste kenduz gero- eskolagabeak gerala, ustez zerbait badakigula eta arro-arro burura gora jatorik bagabiltza ere, euskeraren goi-bee-zabalarri bagagozkio, % 15 edo 20 ozta-ozta jakingo dugu eta, gure izkuntzaren 80 edo 85 ez-ezaguna zaigularik. Geiegixto esatea dela? Jakin nai nuke!!).

Aipatu dizkizuedan esamolde edo erdi esamolde oriek pixka bat zalantzatan eta kezkatan jarri naute. Ez ditut okertzat jotzen, ez euskera gaiztotzak salatzen. Ez, ez, ori ez da nere egitekoa, ez nere asmoa. Neri "arrotz" egiten zajzkidanez, aztertu egin nai ditut, besterik eziñean ikertu, neronek aal dudan neurri medarrean, eta ori iru aldetatik:

- Erriak gaur darabilkigun euskera-motaren argitan.
- Izen aundiko irakasleek eta maixu aundiek damaizkiguten irakatsien arabera.
- Aoz-ao edo tradizioz antxiñako gure asabek utzi ziguten euskeraren aldetik.

1.- ERRIAK GAUR DARABILKIGUN EUSKERA

Aurrera egin baiño leen, zerbait oartarazi nai nuke. Alegia, errian entzuten

diren itz eta esakun guzti-giztiak ez direla besterik gabe jatorrak eta onargariak. Gutxitze eta murrizte au adibide batez azalduko dut.

"ARANTZAZU" aldizkarian (urria, 1996, 29 orr.) gazte-gaztetxo baten gutuntxo bat dator, zuzendariari egiña. Labur-laburra denez, ementxe agertaraziko dut: "Itziar naiz, 11 urte dauzkat. Arantzazun ezagutu nizun. Ez dakit ezagutuko didazun. Idiazabaldik idazten dizut. Esan bear dizut Itziarko Ama Birjiñaz idazteko. Baina ez dakidana da noiz aterako den errebista. Ez du inporta. Agur. Itziar".

Eskutitz polita eta atsegiña. Ikus baina zelnen aditz-joko okerrak dakarzkina: "ezagutu nizun" (zindudan), "ezagutuko didazun" (nauzun). Neskatilla orrek orrelaxe entzungo du itz egiten etxean eta errian, dirudianez. Adizki oriek ez ditu iñork gure egunotan jatorizat emango. Emendik eun Urtera edo bearbada euskera bizi badadi, bizi dedilla!— erabilgarriak izatea badaiteka, izkuntza eta aditza ere bai— eten gabe aldatzen eta aldatzen daukagu eta. Azkuek berak erriko izkeran entzun oi diren esaldi batzuk okertzat eta ez-onargarriztat jotzen zituen, adibidez, "begirutzen dautsagu/diogu", "begirutzen dogu/dugu" esan bearrean. Orregatik esan dut ainbat esaldi, erriak erabilli arren, ezin ditza-kegula onartu, itziartxok bere gutunian damaizkigun "nizun" eta "didazun" adizki aizun eta ustelak bezala. Guzti au ere bide batez diot. Noan berriro arira.

Darabilgun auzigai oni gagozkiola, nola itz egiten du erriak? Auxe jakinkizun. Adibide batzuk ekarriz erantzungo dut:

—"Gure etxe-KO lurrak". Au da, lur orien jabea "gure etxea" izan arren, ez dut "gure etxea-REN lurrak" esaten entzun, beti-beti "gure etxe-KO lurrak" baizik.

—"Erri-KO basoak". Ots, baso orien jabea erria bada ere, erriko izkeran "erri-KO basoak" esaten da, eta ez "erria-REN basoak".

—"Erri-KO taberna", "erri-KO plaza", "erri-KO udaletxea, eta abar. Onelaxe itz egiten du erriak noiznai eta nun-nai, nik dakidala.

—"Eliza-KO terrenoa". Berdin esan bear: ez dudala iñoiz entzun "Eliza-REN terrenoa" esaten, "Eliza-KO terrenoa" baizik.

Orrela eundaka adibide bil daitezke, erriak egiten duen euskera-motaren adierazgarri izan dakizkigun.

Nere bizitzaldi guztian ni bizi izan naizen toki guztietan onelaxe itz egiten entzun izan dut. Baina Euskalerrria zabala denez, nonbait -KO atziakiaren orde, -REN erabiltzen den ala ez, ez dakit. Ala baldin bada, eta norbaitel jakinarazi balezait, biziro poztuko nintzateke.

Atzikiok erabiltzerakoan, iñoiz idazleen artean zalantza ere ikusi izan dut. Esate baterako: "Israel-EN Jainko", ene ustez "Israel-GO Jainko" esan bear zukeanen orde. (Orduen Liturgia, 706 orr.). Urrango orrian, berriz, "Israel-GO ondarea" dakar, ez "Israel-EN ondarea". "Elizbarrutia-REN mixioak" esamoldea iñoiz irakurri izan dut, "Elizbarruti-KO mixioak" asan bearrean.

2.— IRAKASLEEK ETA MAIXU AUNDIEK IRAKASTEN DIGUTEN EUSKERA

REN (-EN) eta -KO atzizkiak "genitivo" deritzan kasuari dagozkie. Ez ordea itz guztietan era berdinean. Batzutan -REN (-EN) atzizkia, eta beste batzuetan -KO. -Ñ, -EN atzizkia **bizidunekin** erabilli oi da (Patxi, Xabier, Begoña, eta abar). **Agerbidez:** "Anton-EN etxea", "KOLDO-(R) EN lurrak"... **Biziga-**

beei dagozkien itzetan, berriz, (etxea, erria, familia, eliza, lagunartea...) -KO atziakia. **Esate baterako:** "erri-KO", "familia-KO", "eliza-KO", eta abar (gorago ekarri ditugu adibide batzuk). (IKUS MIKEL ZARATE, "Euskal deklinabidea", Derio-Bilbao, 127 orr. Ikus baita liburu beronen 65-74 eta 121-130 orr.).

Euskal letretako barrutian erraldoia edo gizaundia izan zenaren aipamena egiten dut emen; R.M^a AZKUE jaunarena (ez dut uste iñork ukatuko duenik oiez-bezalako maixu aundia jzan genuela bera). Entzun dezagun jakingai oni buruz zer dioskun: "-N, -EN es genitivo que indica posesión: el genitivo -KO indica lugar o tiempo en que se contiene o pasa algo: GIZONAREN ETXEA, "la casa (que es posesión) del hombre"; "ETXEKO GIZONA", "el hombre de (que está contenido en) la casa"; "ATZOKO EURIK", "las lluvias de ayer". (R.M^a AZKUE, DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, tomo primero, pág. 491). Orra argi eta garbi esanda.

3.— AOZ-AO EDO TRADIZIOZ DATORKIGUN EUSKERA

Euskera erriarena da. Egia. Ez baina gaurko erriarena bakarrik. Euskal erria aspaldidanikoa dugu. Eta millaka urtetan bizi izan den euskal erriak millaka urteotan jtz egin du euskeraz. Guztiz ziur esan dezakegu, millaka urte dirala garai artako euskaldunek zerabilzkiten itz, aditz-joko, esaldi eta abar gaur ere badarabilzkigula, adibidez, izan aditzaren joko batzuk. Azkuek irakasten digunez, aditz au erabjlliaren erabilliaz ora:n "defectivo" egin dela, ots, a:nbat joko falta zaizkiola. Beste itz eta esakuntza asko galdu egingo ziran ziurki. Eta beste asko aldatu.

Gure arbasoak zein motatako euskera egin zuten jakitea garrantzi aundiko arazoa dela uste dut, euskera jatorraren aria eten ez dakigun, au da, gure gurasoek egin zuten euskeraren eta gaur egiten dugunaren artean jarraipena izan dadin edo aien euskeraren eta gurearen artean leize bat ireki ez dezagun.

Orregatik, guztiz zuurki egin bear genuen galdera auxe dela uste dut: gure gurasoek nola esan zuten au edo bestea? Ze (r) esakuntza edo esaldi erabilli ote zuten? Au dela eta, gaur egiten dugun euskera jatorra den ala ez jakiteko, antxiñakoak egin zuten euskerarekin berdinkatzea guztiz onuragarri izan daki-gukela deritzait.

Ondorenez, tradizioaren bi lekuko ekarri nai ditut, bi testigu bikain: LARDI-ZABAL, Zaldibiko apaiz idazlea bata, eta IZTUETA kondairalaria bigarrena, au ere zaldibitarra (oker ez banago). Biok joan-mendearen erdi aldian bizi izan ziranak, orain 150 urte, gutxi gora beera.

Lardizabal apaizak izenez TESTAMENTU ZARREKO ETA BERRIKO KONDAIRA zeritzan otsaundiko liburua idatz; zuen. Otsaundikoa diot, euskal etxeetan geienik irakurri izan den liburua ez ote den izango iñoiz irakurri izan dut eta. Emen ere, irakurlearen baimenaz, tartekotxo jakingarri bat jarri nai nuke.

Liburu orrek neretzat oroipen berezi-berezia dauka, nik euskeraz irakurri edo irakurtzen entzun nuen leenbiziko liburua izan bait zen. Gogoan dut oraindik gure aitak —euskaltzale amorratua bera— gure etxeko sukaldean, bertako sugarraren argitara, liburu artatik zati luze bat nola irakurtzen zigun, geien-geienetan aots zoliz, an geunden guztiok entzun genezan. Sarri-sarri egiten zuen ori, negu aldian batez ere, gaua luzea izaten den aldi orretan. Orduantxe erne eta piztu zitzaidan nere biotz barrenean gure izkuntzaren gano-ko zaletasun'bizia, ondoren sekula ere itzaliko ez zitzaidana.

Gogoan ar dezagun Lardizabal idazleak bere liburuari TESTAMENTU ZARRE-KO ETA BERRI-KO izena ezarri ziola (ez TESTAMANTU ZARRA-REN ETA BERRI-REN...) Onek zerbait esan nai duela uste dut.

Tradizioaren bigarren lekukoa Iztueta kondairalaria da. "GUIPUZCOACO CONDAIRA o HISTORIA DE GUIPUZCOA" izeneko liburua idatzi zuen. 1847-garren urtean argitaratu zen, Iztueta bera illik zela, bi urte aurrerago il bait zen. Emen ere leengoa bjr-esan bear dut: ez zuela GUIPUZCOA-REN CONDAIRA idatzi, GUIPUZCOA-CO CONDAIRA baizik. Orra tradizioaren bi testigu bikain joan-aldietako euskeraren berri damaigutenak.

4.- EDESTIA ala KONDAIRA?

Biak dira itz jatorrak euskeraz, bai edestia eta bai kondaira. Biak, ondorenez, onargarriak eta erabilgarriak. Baina bakoitzak bere esanai eta esparru bereziak dauzkala dirudit, eta ez genduzkela naastu bear.

Plazido Mujikaren DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO izeneko iztegiak onela dio: "Edestu = relatar, referir, contar, narrar, historiar" (t. I, 576 orr.).

"Edestu" aditzaren esankizuna eta adierazkizuna naiko ongi zeazturik eta mugaturik datoztela ematen du. Au dela eta, kontakizun edo gertakari bat norberak edo beste norbaitek "edestu" egitea, oso ongi esanda dago ene iritziz. Baina eginkizun ori kontalari edo edestilari batena da, ez kontakizuna edo gertakaria bera. Eta kontaktzen edo edesten den zer oni nola deitu bear zaio euskera jatorrez? "Historia objetiva" delakoa edo kondairako (historiako) gertakariak (gaztelaniaz: "los mismos hechos históricos") adierazteko zein itz autatu bear dugu? Orra nere zalantza eta egiten dudan galdera. Lardizabalek eta Iztuetak ez zuten "edesti" itza autatu "historiako" gertaerak aipatzeko, "kondaira" baizik. Garai adan eta leenagotik bearbada euskaldunek itz orixe erabiltzen zutela dirudi gaztelaniazko "historia"ren edukia adierazteko. Au dela eta, orixe dela tradizioak damaigun euskerazko itz jatorra esan ote ledi? "Edestja" itza esanai edo zentzu ontan ze (r) tradizio du euskal literaturan? Nik ez dakit, eta dakianak esan bezait.

Lan ontan zintzilik gelditzen diren galdekizunei, bere baitan edo lagunekin gogoeta egiñez, irakurleak berak eman bezaie erantzuna.

Norbaiti oker nagoala baleritzaio, eta oker ori agertarazteko, argibideak eta arrazoiak balekarzkit, eskerrik gartsuenak emango nizkioke. Baina ekar bezaizkit agerbideak eta frogak, mesedez.

Barkatu ene ausardia.

Pedro PUXANA, arabarrak

LHANDE TA LAFITTE'RL-h IZTEGIKO LL ETA Ñ' DUN ITZAK

LL'dunak:

- A Aball, Naballa L/ abantaila, abanthalla / abulle, agulleta / abill / abulla / aburrell / afurrell, anpurrell / adrillu / adrallol / adrilla / adejlatu, aullatu / aihalgallu / ailanda, allanda / ailubre, allobre, allurbe / -aill, -all C/ (gerri, gerhail) / Ainzille-Harrieta / aitorapillo / akamallü, akamelü, akhamalla, akhamailu, arkhamailu, akharamallu / akhulo, akhulu, akhilu, akilo, akilu, akhüllü / akhümüllä, akhümüllü / ukhabil, ukhabil, ikhamil / andoila, andolla / angareilak, angarelak, angarillak, angailak, angela, angelera / apaillu / apherile, apherilla, apherila, apila /apurillo / arakoill / araul, irauli, iralli / Arballa, arballes / arbvallande, ardall, ardalla / arhillu mendi, arkhillu mendi / arnella / arrabilla (pelota jotzerakoan: "Arrabilla, billa, billa, friu, freski") / arradaill C, ardall S/ arrataill / arrolla, arroilla, arrolla S N/ arrol, arroll / arrosilla / arroskilla / arrozill / arrullo / arruskulla, arroskilla / aspil, aspill / (aspilletik edan) / atail, atalla / auleta, aulleta / aurkhitu: 1. Bilha nindabillana aurkhitu dut / azaro, azil, azilla, zemendilla / azillarr / azkargallu/
- B bakailau, bakalau, bakala / ballera / ballesta / baralla/ barandail, baranthalla, barantall, baranthailla / baratilla / barbail (mardaila mardalla) / bari-lla / barrabilak, barrabilak / barroil, baroll / basoilarr, basollarr / basoilo, basollo, basaoilo, basa olio / bagull / berdel, bardeli / betillun / bihotz-bella, S, bihotz-bera C/ bilbill (burbul) / bilho C, bilo, billo N/ bilhurr, billurr L N, bilhürr S, bülhürr S/ billa / billart / billisti / billole, billore / billu / billurimataza / billuzi / biuill / bizkaullu (bizigaillu) / bohilli, bohulli, bohüllü / bola, bolha, bolla / bollurak / bühüli, bohüllü / bulharr, bullarr / bulliga / bullunku / büllhürr / bullta / bulute, büllüte, bullute, bulhute, bülüte / barbu, barbull / burkila (mürkhülla) / burunkhüllü / buruskail, büskall / burrulla/
- D dafaila, dafalla / dahalla, dahallu, dafaila, tahalla / dalla, dallu, dalli; iradallu; dallari, dailari, dallatu, dallatze / deboil-, deboll- (atu, atze) / deskant-saill / doilorr (dollar, dolorr, doillorr / duhill SN (argent): duhallatez neroske hartaz maitatu izana / dullu, dullureia / dullubio / dullunia / durdullaska / dutxulli, dutxulo, dutxulu /
- E egurr-arrail / egurr-olla / eltzegile, -gille, gin / erabakitzaile, -tzaile / eraile, ehaile, erhaile / erdoil, erdoll / erbioillarr / erradall, arradaill / falla / falli, fallo / fardillo, fardillu / farfall / farfulla / farrall, farralla / farramall / ferdallun / firrilla, firringilla / fornilla /
- G gabilla / gailu / gainzigilu, gainzigillu / galleta (pitxarra) / gallurdun, galluru, gallurru, kaldurru / gangaill / garaitzale, garaitzaile, garaitzaile / game-lla SN (gravier) / garbolla / gasaila, gasalla / Gaztella, gaztelarr / gidaillez gilla /gillape (tellape) / gillapi / gillarr (txillar) / -gile, -gille, egile / Gillen / gillen-peskerr (martin-pecheur) / gillikatu, gilika / gillikor / gingilla S/

gizerhaile, -ile / gollare / golli / gorgoll / gresilla S, grisella, grexila S/ (bi sapai-ots itz batean ez: G itto, txito) / grijilla / gripill / haballa / abaila, aballa / habe, habell (fourré), abe / hallaberr / halli (dim. de hari) / harmalla / hendella / herreill-merreill / tzillo-tzaillo / haillabete / hllanko (hillare, hillarr) / hillerri / hilenki, hillenki / hoila, holla / holla (feuille de papier) / hollaska, hollasta / hollats (jaunâtre, blond) / humill, umil, umill / hungaillu / hunella (petit entonnoir) / hüllan, hülen / hilltü /

1 J jaunkillatze / ihali, ihauli, ihalli / Jiriko oillo / ikhustzaile, -tzalle / il, ill, hil / ill-odol / illabete / illadats / illamina / illarri, ilharri / illargi, ilhargi / ille, ile / illen (bot.) / illendi / illeta, illerri, illeta / illerne / illetsi / illezindu / illa, uli, euli / illitxa / illindi, ilhinti / illoba C, iloba / illoe, illoal / illor, ilhor / illumini / illun, ilhun / illun-ezkila / illun-ezkilla / illuntzl (bot.: osier) / andi-oillar inguratzaile, -tzale, -tzalle L/ jostagaillu, jostailu / iradailu, iradailu, iradallu / iradokotzalle, -tzalle / irajtzalle (iraztzalle, irajzle) / iralli, irauli / irazkjtzalle / iringlle / irubilla / irule, irulle / irulleta (velours) / isgili, iskillu / ispillu (spiegle, mirror) / istillero / itsas-ibile / izengilla / izengillatu / izengillatuki /

K kabila, kabilla / kabillü / kabull / kafaillaka (karkailaka) / kahalla, kaholla / kaila, kailla / kaillabit, kalabit, kallabit / -kailu, -kallu, kaillü, -kaillu / C (var. de -kailu, -gailu) / kallamika / kallarda / kallarroza / kalleria / kalleta (I eta II) / kalikatu, kallikatu / kallau / kallota / kamamilla S/ kandelairu, kanderailu C/ (ganderailu) / kankalloska / kanpantxillar / kapela, kapera, kapi-lla / kapelladun / kapellan / karkail, karkalla / kartilla S/ kartillon / kaskabilla / kaskallu / kaskailli / kaskilla N/ kasulla, kasullo, kasola / katellu, katillu (gathelu) / kehell / kehella, khereta, kehela / kerella / keskaillu / khabeilla / khaillustu / khailatu, khallatu / khailu, khallu / kharakoilla / kardaila, kharkalla / khestatzaille / khareila, kherella / khereilla, kherellü / khorbollo / khurrulla, khorroka / khuhullia, khilo / kihilla, kirilla, (khereta) / killa, kila / killibet / killika, kilika / killiko / killikorr / killo, khili / khulu, killo / kinkalla / kirkilleria, girgilleria / kirrikilli-karrakalla / kiskill, kjskil, kizbil / kizkilla, kiskilli, kiskillu / kodrilla / koillir / kokillo / kokillot / kollara, kollira, kullera, kullid, kullira / konkallo, kunkallo, konkatx, kunkatx / konseilu, kuntsellü / kuruillo, kurullu, kurrullo, kurrillo / kuskaila, kuskull / küküll / kükümall, kükümailla, kukumarall / küllümüllü / küsküllü /

L lakatzalle / langarilla / larreoillarr (basollarr) / larru-aphaintzaile, -le, -lle / larru-ontzale, -tzaile, -tzalle / lastotzale, -tzalle, zale / laño, llano / lentilla, lentiña / (sorseñale) / lephalla / lephail / letxugilla / lili-pilla / lillura / lo kukullux / labil, lobili / lohil, loil, loill / loja-martillü / lollo / losa-martillu / luharbil, luharbill, lupill, lupillatu / lurtupingille / luzull (lur-sull) / lüharrolla (üharrolla) / -lla S. Dim. Hegilla / llabe (labe) / (labrit / llaburr, labürr / llagarr / llago / (lagun / llano (laño) llanprega / llapa / llapharr, llaparr / (lapi, llapur / llarhote, llarothe / (larri / llaudeta / llebrausta S/ llebrosta LN/ llekatu, likatu / llepei / llergo / lilllura (lillura) / flimmika, milika / llinpre / llaba / llolla, Hollo / llame (Guillaume) / -llü S, -llu, dim, C/ (thapallu) / llüllüra, lilllura / llüztro N/

M maatil, maratilla / maatolla / Madril L, Madrile N, Madrille S/ mahas-biltzaille / mahats-trilla / mahel, maheill / maill / mailla-mailla / mailu / maiola, makolla, makola / makallao / makhila, makhilla, makila, makilla / makulluak / malla (I, II, III) / malleatu, maileatu / mallo, mallu, (mailu) / maikorkoil, maikorkol, maikorlo, maikurkullu (barekurkullu G) / manatzaille, -tzalle / manaiatzaille, -tzalle / mardaila, mardalla / mardailer, marda-

- ller / mardailleria / marfulla / markallo / mari-korkoila, marikurkuillu /
 marteilu, martilu S N/ martellu / martimullo / (martin-mulo, -mullo, muilu) /
 maskaillu / maskulu, maskulo, maskullo, maskullu / matamullo N/
 mehartzalle / mehetzaile, -tzalle / matraila L, matralla / meatilla / medai-
 la, medalla / mehakoil, mehakoill N/ meilloratu N/ Mikhelle (Michel) /
 mila, milla / millazka (ms. Londres, Azkue) / milleka / milika, millika /
 millin N/ milloka N/ millosto / millua, millura / minkholla / mirail, mirail /
 mirakuilu, mirakullu / mirllakatu (milikatu) / mizpirabillo / moillia S/ mon-
 doi, mondoil, mondoill, mondoin / mordoillokatu / morralla (morroilu,
 morroll) / moxkoill, moxkoll / mugatzaile, -tzale, -tzalle / muilloko /
 mullai, mullatu / mullu / mundoll, mondoll / murdulla S/ murkhilla, murki-
 la, murkilla, murkhulu, burklia, murkuilla, murkhulu, murkulu / murtxilla L/
 murulu, murullu / muraila / mustipil, mustupil, mustupill / mürkhülla /
 muzilla /
- N** nabaila /nahaspil, nahaspill, nahaspilla / neskatila, neskatilla /
- O** odoi-billima / oilarr, oillarr / oilo, oillo / oilanda, oillanda / oillaka oillabara
 S/ oillagorr / oillakabarr, oillakaran / oillarbüztan / onkailu, onkailu, onk-
 hailu / orgileri, orguileri, orgulleri / orgulu, orgullu / oropillo, oropillatu,
 (koropilo) /
- P** pabillu / paillarda, paillarta / paillat / paillona, paillun / painbolla,
 (Larram.) / Panpillu (Jean-Pierre) / pakailleria / pallün / palletina / pardillo
 / Peillo L, Peio C, Pele, Pelle, Pello C, (Pierrot) / Pellella, Pellele S
 (Jean-Pierre) / pelleburu / perallu / pelota, pilota, pillota / peril, perill /
 petolliat / phailot / pikaila, pikarta / perditun, perdillun, perdira, perdirain
 / pilla, pilla (II, III) / pilsta, pilixta, pillista / pilka, pillika / pinpollo, pinpullu /
 pipojll / pitili, pitilla / pizgailu, pizkaillu / poalla, poella / poli, polit, polli,
 pollit / pollin, puilla / pulla / pullanka / puhuillu S, pühüllü S, pukulli,
 pukullu S/ pulla / pullo C/ punpollo L/ punpula, punpulla, punpullo /
 punpullu / S/ punpullka / purpiolla N/ purrillo N/
- S** sagaillo L/ teilla-sagar / sail, saill, sail C/ sakail, sakail, sakhaila, sakhalla
 / sakhil, sakhil, sakil, sakill / sakaraila / sarrail, sarrail / saskigila, -gille /
 segaila II S, segella S, segilla S/ sentagaila, senthagaila / sentagailu /
 seringilla / sillistillo / segeila, segella, segilla / sendagail, -gail, gall, -bail,
 sendail / soil, soill, soll / sojllaru, soilleru, solleru / skhil, sokil, sokill / sor-
 hopil, -pill / subil, subill / sudur-pillak / sugandela, sugandila, sugandola
 / suila, suilla / suin-eskaill / subil, subill, sunbil, sunbill / sühilla, sühüll /
- T** tabardilla / tafaila, tafalla, tahalla / teilla, thaila / taillarri / tapagailliak /
 tarateilu, taratellu, teatulu, taratuli / tartaila / tella I / teila II / teilla, tella O,
 teile, teille / terreillka, therrilka / thill / thoil, tholl, toll / thoroill / thortoill,
 thorooll / tilla / tillinton, tilinton, dilingo / tillür (lita-ur) / tintilla / tollitü, hollitü
 / tomillu / trail, traill, treill / trailu, traillu / trilla / troil, troill / trunbillatu /
 trunpilo, L, N, trupillo N/ turtulla / turrupila, torropilo, turrupilla / txarpille-
 ra / txarpoill, txarpot / txintxila, txintxillo / txipillu / tzillo-tzallo = herreil-
 merreill / turrila, tturrill
- U** uoilo, uollo / urdail, urdabil / uhendilla / uhillada / ukhabil, ukhabil,
 ukharibil / ukhubeil, ukhubil, ukhumil, ukhumilo ikus ukabil... / ükhümilla,
 ükhümillo, ükhümümüllo, ükhümüllü / umil, umil) / unhil, unil, unill / usul,
 usull / ühollo, uhollo / üllü / ürgüllü, ürgüllü / urdail, urdall / urkoroil, urko-
 roill, urkuroillo / üzkali (uzkaldu) / üllü (uli) /
- X** xabil, xabil / xakhürr ollaka / xangollo / xanpillua / xarpill / xarpoilla,

xarrangil! ! h_i! ::i :I, ;iLi / xilho, x^llo, xillo / xilla / xillarr (zilharr) / xingill I, xingill II (xingall) / xirixtillo / xirtxil, xirtxill / xorabil, xorabill / xorbilla / xorropl, xorropill (sorhopill) / xubill /

Z zail, zaill / zaillatu / zakail II, zakail / zallo (dim. de zail) / zangail, zangil, zangill / zanka-mail, zanka-mull (marchapied) / zanphill / zampil / zapallo (igel) / zaragoil(ak), zaragoll (ak) / zarpail, zarphail, zarpill / zarra:la, zerrail, zerrailü, zerrallü / zilla I, zilla II, zilha / zilharr, zillarr, zirarr / zillo, zilho, zilo / zirtzilluak / zizillu, zizelu / zumendill / zurruil, zurrukutull, zurrul / zurrimillo, zurrunbillo / zurzuil, zürzüill /

Ñ' dunak:

- A abañ / agoñü / ainazkarr, añazkarr / ainhata L, añhara S, añhera S/ gabainhara, gaiañhera / ainik-eta, ainik-ere, L, añiketa S/ ahuña C, ahüñe, Ahuña, Ahüñe / aña S/ añaborma N/ añagu N/ añak, aün/ añañas / añarte, añartean, anadean / aña L S/ añharba NS/ Añharbe / aña, anu L/ añaola / añibo / añaigo / añiketa, añiketa S/ añikere, añikere / añuriaz / añauska / añaoskatu / añañi (aphur-ñi) / araxina, erreziña / argizaiñ S/ argizeñü S/ arahen, arraheñ, arrahent S/ arrai N, arraiñ, arrañ / arrapiuñak N/ arraxiña N/ arrotxiña L, arroxina (errexina) / astozurrumiño Ñ/ astaña S/ axiroin, axiruin, axuriñ V axurthuñ S/
- B baina C, bainan S, baña, bañon L/ baino L, baño L, beno SN/ baño (batño) / basagaztaña C/ basagazteina L, basagaztena N/ basagaztañatze S/ behizain LÑ, behizañ S, betzein (Oih.) / (unhai, ülhañ S) / Behi idurian: muturgañ C, bürgañ S/ istezañ / aztaparr-axeiuñ, -axiruiñ, -axiroiñ, -axuriñ LN, axur-huñ, axurthuñ S, haxoin N/ belhañ, belhain SN, belhau, belaun LN / belhañ-ezurr S/ berañez S/ berazañ, berezan S/ berezain, beazañ, behazañ / berhai, berhañ SN/ beroina, beruña / beuña S/ bestalde, bestañez, bestañik / betamiñ / bezain C, bezañ S, bezein N, bezin / bidegain LN, bidegañ S/ bidogañ s, bigodain C/ biña-berse, biña-berje / biñer / Bithiriña N, phetiriña S/ bitiñ L, bitiña S/ botoin, bottu / breña S, briña L/ burdin, burdiñ LN, bürdüñ, bürdün, burduin, burña, burduñ / burmuñ, burufuiñ, bürhün, buru-muiñ / buregikhobañ S/ buztan-gaiñ N /
- D dafarnari, ostatu-zañ/ dainatu, -tze L, dañatu, dañatze LN, dañu LN/ -daino, dino, ... ño: gaurdaño, etxeraño, bazterretaraño / dañ S zer dañu denziberuko haritxetan / dein, din doi, duin hein LÑ, heiñ S/ di 1. L gizondia; 2. L sagardi, lizardi, zingiradi; syn. -Doi, toi C, dui L, sagardoi, harriztoi, harizti, Laburdi, Laphurdi; dia handi bat muthil; ongiegiñ dia (le grand nombre de bienfaits) / diño / dispiña / N, thipiña S/ dohañ C, dohañ S, dohañik S/
- E ehiñera C, ehiñere S, ehiñerago S/ eiña S (facile) / -eiño L (jusque) / ekhain L, ekhaiñ S/ elhur-lahiña S/ engreñatü S, engriñatü / enhea, eñheia S (fatigue) / enheiu, enheu, eñhu C/ enkeñu N, kheñu, enkheñu / entreñak / entseña SN; entseñu S/ enhüde, eñüde / enul, eñul N/ eñatu S, eñhe, enhe / erdañ, erdeiñ / erdi II: erdi baño lehen / ereñdu / ereñotz / ertiñal / errakina N, errekiño S/ erraiñetako S/ erreskiñat S/ erreskiñatü S/ erretxiñoleta C errexinul S, errexinolet N/ erreziña / (eskarnio II): ... ene lurren gañeko hañbeste gisako eskarnioak... S (imitazionia,

- 1720) / eskeñü / eskoratu... itsasoaren gañean (j. Etc. 1626) / eskorkatü
S: urdek gaztañak eskorkatü ditzie... / esne gaiñ **L/** Espainia, España,
 (a) arr, -(a)ol / españulika / esparteña, espatiña / estal-i 5. Zeñiak estali
 baitzuen... / estañu / ezpañ, ezpain / estainu, eztainu, ezteinu /
- F** fedediñ / fuñ, fuin / fuñika /
- G** gabainhara, gabañhara / **L/** gaharr, garka, garhasi, garhiña, garhaxi / gai-
 ñetarr **S/** gangañ / gañ **C/** gañala, gainera, gañela, gañera / gañez egin,
 gañez-gaiñ / gañga / garaño **L,** garañu **S/** garbiná gardaña **S,** gardaño,
 khardaña **LN/** garhiña **N/** gari-aiñagu **N/** Garindaño, garindañtarr / gark-
 hiñatu, garkiñatu, garkiñu / gaztain, gaztañ, gaztaña, gaztena, gaztiña,
 geinhazale, geinhazale / gehiago, geiago / genhatu **N,** geñhatü **S/** gere-
 ño, gereñu / gerrri: Handiagoaz ifiñirik bi eskuak gerrrian... / gibel-karga:
 Hañ ekharri gaiza ederren ikhusteko, hañ gibel karga gaiza aphalen
 besarkatzeko (Imit., 1720) / giñarr, ginharr / giñarreba, -emazte / giñatü /
 giño / godañatze / godeiña / goiña / gona gañekoa / goña, goiña / goñi-
 bi / gorgoña / gorhiña, gorhain / goriña, gorriña / gorriña, gorriño / gudu-
 ña / gutiñis, gutiño **C/** gotañá / Gotaño, Gotein / gotañtarr / greña, griña
 / griña **C/** grosain, grexain / grozein, groxiña, grozin, groziña /
- H** haiña / haiñen, hañen / haiñik ere, añikere, aiñik ere / harminkheiñ /
 heloiñ / hoñ, hoin / heloiñ / higuin, iguin, iguñ, kgun / hiñ, hein / hiñ, egin
 / hoiñ, hoiñen / hun, hün, mun, fuin, muñ /
- 1 J** barreskuñ / jeñu / igañ, igan / iguñ, iguin / idatzaiñ (secrétaire, archivis-
 ta) / junkuñ / ikhañ / ithañ / ilhuña / indarr agoña (agñu) / inkauñi / ink-
 heñu / intziriñaka / iñañi / iñharr **N,** iñharñi / iñaurre **N,** inhaurre, iñobre /
 iñausi, ihausi / iñausi **S/** Iñaut (Arnaud **N** le soleil) / iñharta, inharta /
 iñharr, iñarr / iñhausi / iñhazi / iñhurri / xinhaurri / iñibri / iñobre / iñoiz
 (egundano) / iñoiz, nihoiz / iñoka / iñui, eñui / iñun / iñurri **S/** iphiñi, ibeñi
 / irañ, irain, irauñ / iruñarr, lruñe / iskiñaso, iskiñuso, uxkinaxo / isuriñ /
 ithañ, ithain / ithun, ithuñ, ithu, ithain / ithun **I.** ithuñ **S/** itsas-gaztañ **SN,** -
 gazten **L/** itsas-uhain **L,** itsas-uhañ **S/** itxes-ñabo / izkiribiña (encrier) /
- K** kaburiñ / kadiña, khadiña, khadena / kanpañu / kanpañarr / kaña /
 kapeñot / katiña / keiña, kheiñu, kheiñu, keña, kheina / khardaña / khi-
 no, khiño / khiñatze / khobain, khobañ / khuña / khüzuna / kinkuñ, kin-
 kun / kiñatu, khiñatu / kiñi, kiño / kixe ... polikiño / klala-mahañ / konpa-
 ño / konpañian / kunkuna, kunkuña / kuña, khuña / kuñat / kuñata /
 kutxizkiliña / kunkuña, künküño / künkünküño / küzüna /
- L** labajñ, labañ / lafatiña, laphatiña / lainho, laino, laño / lakain, lakañ, laka-
 ña / lamina, lamiña / laño, lanho / laño (plain, égal, uni) / lapa, lapatiña /
 lapathin, lapathiñ / lapatiña / larain, lariñ, larani, laranja, liranja / larrain,
 larrañ / Larraño (Larrau) / laño (llano) / leziña (lezñak egñ) / lebañazale /
 lehoin, león, lehu, lehuñ / leñhuru, leiñhürü / leiñtatü / leinu, leiñu, leiñ-
 hürü / lekaxiñ, lekazin / lentilla, lentiña, (sorseñale) / leña (lera) / leña
 (leuna) / letheriñak / leziñaka / ljkhain, likhañ / liña, liho / liñakorda / lñña-
 sopi / liñi (linja) / liño, liñu, liho / liran, lirain / lisiña / lozain. lozañ / lozebi-
 ña, lozabi / lupiña / lurrgañ / lühñatü /
- M** maina, maiña, maña **N/** mainada, mainata, maiñada, mañat, mañata /
 maiñhu, maiñu, mañu / makhiñ, makhiña **NS,** makina, makhina / matu-
 tiñ / mariñel / marloiñ / mikuiñ / mlñ, miñ / minagre, miñagre / miña (vig-
 ne) / miñarda / miñard / miñer / miño / miñot / mirtiñeta / Mitriña, **N** Bit-
 hiriña / mingaña / muin, muiñ / muiño / muñ / muñak **S** (balayeurs) /

- muño, muño (g. Moño) / muñuka / muñuña N, muñuñuk / muriña / muruñ (bourrache) / muxiña, musuña, müsüña, müxiña /
- N Ñ** nano, ñaño / ñabela / ñaphurr, ñapürr, ñafurr, lapurr / niñaita / -ña: aphurña, astaña / ñabarr, nabarr ; ñabarra, nabarra / ñabo, ñaba / ñafilatu / ñasi / ñago / ñaka, naka / ñakako / ñako I / ñako (kako: eskua ñako du Ñ) / ñañ (jan) / ñaña (gazta) / ñandro / ñañi (tati) / ñaño / ñaro / ñarro, ñarrot / ñaste / ñattiko, ttattiko / ñau / ñauka / ñaukela / ñel / ñekato / (haur)-ñi / ñika / ñikañaka / ñikatu / ñiki-ñaka / ñiku / ñakuka / ñimi (ttipi) / ñimiño / ñiña, ñiñaño / ñiñi (nini) / ñiñika (ninika) nirr-nirr / ñiu / -ño: haurño, poliño, baraxeño) / ño (no) / ñoro (zoro) / ñukhu, ñuku / ñuñu / ñuñuka (bon-a-rien) / ñuñukatu (s'enervar) /
- O** odeñ (larga): adarr-odeñ / oin, oiñ / oinhaze, oñaze, oñhaze / oñhazia (iñhazia, oñaztua, ximixta) / Onize-gañe S, Abense-de-haut / oño, oraino / opiñ (zotin, Xotin) / artzañ-or / oraidaña, -daraño, -dino, -dio / orai, orain, orañ / ordañ, ordian, orduan, ordean / Ordiñarbe, Urdiñarbe, Ordipar; urdiñarbiarr / orein C, oren N, oreñ (fr. original, orignac, tout animal du genre cerf); orein eme (bicha) / [LEXIS, Larousse: orignac, original (du basque oregnac, pl. De oregna, "cerf") mot canadien v. 1500. Grand'élan du Canada et de l'Alaska. (Famille des cervidés)} oroz gañekoa, gañetiko, oroz gaiñian /
- P** Pau, Paue, Pabe, pabetarr / pazin, paziña / pegañeka (sens-dessus-dessous) peña, pheña, phiña (peñazko orma, peñazko bihotza) / pikaño (pika) / pinpiñeka / piñu, pinu, pino / piñuela / piñus LN (ive muscate) / plaiñ / plainu , plañü, pleinu / plantain, plantañ / porrokiñatu / probonañtu, probenatu / probena, progoña / prüziña (erraña) / puñal / putiña (olloeri deitzeko)
- R** -rano, raño /
- S** sabel-min, sabel-miñ / sain, saiñ / sakristiña / sardina, sardiña / sediña / sein, seiñ / seiná, seinale, seña, señañe C, seinhale / señañura / sinu, siñu / soeñ / sorr-señañe / suburdin, su-burdiñ / suin, suiñ, soin, soiñ / suiño / sumin, sumiñ / suño /
- T** tardana, tardaña / taulen, tuloñ / terriña / thina, thiña / thina II, thiña / thini, thiña / thipiñ, dupin, thipiña / thuña / tiña / tiñu / tiñun / tirain, tirañ / treiñeru / tuin, tuiñ, tuñ / tupin, tupiñ / tñako / txütxeagoñi /
- U** ugañ / ugañ, uhain / uhuiñ, ohoin / uliño / uñhu / urmin, urmiñ / urdairaiñ / urdaiñ, urdaiñ, urdañ, urdaña / urruin, urruñ / urdin, urdiñ / Urdiñarbe, Ordiñarbe / urin, uriñ / Uriña, lruña / ügadera, ügañ / ügi (igüñ) / ühaiñ, uhain, uhin / ühaiñ, ügañ / ühañ I, ühañ II / ühañ 111, Üündürüñe, Undurein / ündüintarr / üñhürri (xinhaurri) / iñhurri / üñhüstoka / ürxain, urxañ / üsküñaxo / üztainñ, üztar_i, üztariñ, buztarin /
- X** xagiño / xaiñtxa / xaldaiñ, xaldain / xardin (sardina C, sardina S) / -xeagoñi S, -xagono N/xixain, xixein, xixaiñ / xoriño /
- Z** zain II, III, IV zaiñ / zain, zeñ C/ zaina, zeinha, zeña, zeña / zeinhu, zeinu, zeñü / zifrañ (zahaiñ) / zigi, zigiñ, ziguñ / zikhin, zikin, zikiñ / zizain, zizañ, zizeñ / zizkuña / zoikhiño (zoko-khiño) zoñhü / -zoñu: askal-zoñü / zopin, zopiñ, zotiñ LN (xopin) / zotheña (xothena) / zuhañ, zühañ / zuhirin, zuirin, zuririn, zuhuruñ, zurin / zoin, zuin, zuiñ / zurrunpiño /

GURE GIZONAK

"BASARRI" BERSOLARIEN URREZKO ERREGEA

Manu Oñatibia adiskide miñak "BASERRI", bere etxean ikusteko aukera eskuratu zidan.

Dagonillaren 20'garren egunean, asteartean joan giñan, arratasaldeko zazpitan. Antxen zegoen "BASERRI" gure zai, semea ondoan zeukala.

Itxura ona, lasai gure gizona; patxara ederrean, bañan ez zen ezertaz gogoratzen. Ez dugu esaten burua galdurik zeukala, ez. Berri gutxi eman zizkigun. Bear bezala lana egiteko aukerarik ez nuen izan. Batez ere xeetasunen aldetik; dena alperrik.

Aleginduko naiz gutxinaz "BASERRIÑ" itzala agertzen.

"BASERRI" GIZONA

"BASERRI" izenarekin ezagutzen dugu gure bersolaria, berez INAZIO EIZ-MEÑDI MANTEROLA da. 1913'garren urtean, Errexil'en GRANADA izeneko baserrian jaio zen. Gaur larogaitairu urte ditu. Alta, Antonio, Granada baserriko semea, ama berriz Maria Manterola, Urdaneta'n Aia'ko auzoan jaioa, Markees' ko baserrian.

Bost urteekin Zarautz'era bizitzera eraman zuten; betiko aldatu zen sendi osoa...Orrela aurtzaroaren aurreneko urteak GRANADA ERREKAN igaro zitula ikusten dugu.

Granada basarria toki basatian dugu, bakardade aundian, mendi zulotarte batean datza. Aldapa ikaragarri, lau erreka batutzen dire bean. Ura bazter gutzietatik sortzen da; ur garbajaren ondoan belar berexiak usaidunak. Udaberrian txoriak txistuka, belardiak loretan, zugaitza galantak itzal ederrarekin. Errekan amurrajak nunai.

Granada erreka Gipuzkoa'ko basaburuaren biotza da, oso gutxi bezalako.

"BASARRI" amar senideetan zarrena da.

Sei urteetik amaika urteak arte praileen ikastetxera dijoa. Eskolatik aterata lantegi edo olategi txiki batean asten da lanean.

Iziar'ko Usarroz baserriko alabarekin ezkontzen da, Maria Aginagalde'rekin. Lau seme alaba dituzte.

Anaiarteko gudan gudarekin dijoa; ogeitairu urte ditu. Bilbao'n ertzain bezala dabilkite. Antxen atxilotzen dute eskubitarrak. Lanerako gizamultzotan sartzen dute: Aritxulegi'ko mendizulobideak egiten ibilli zen.

LANA ETEN GABE

Bere bizitzaren gai nagusja lanean, euskara izan zuen: egunkarian idazten,

bersolarien txapelketak osatzen, irratian iru aldiz astian, sarietako epaimaietako kide bezala, omenaldi ta euskal jaietan. Lana nunal, idazle, bersolari, izlari bezala; zulo asko ta aski betetzen zituen.

Bederatzi liburu ba ditu argitaratuak, oietatik sei AUSPOA irakorlan. Ara liburuen zerrenda:

- ATANO III BERE EDESTIA BERSOTAN, ITXAROPENA, ZARAUTZ 1949.
- BASERRI'REN BERTSO SORTA, ITXAROPENA, ZARAUTZ 1950.
- KANTARI NATOR, ITXAROPENA, ZARAUTZ 1960.
- MI ATALAYA MONTAÑERA, LA VOZ DE ESPAÑA, SAN SEBASTIAN 1967.
- ZELAYA GABRIEL, MANUSCRITO 1965.
- LAUGARREN TXINPARTAK, AUSPOA, TOLOSA 1966.
- SORTU ZAIKIDANAK, AUSPOA, TOLOSA 1973.
- KEZKA GIROAÑ, AUSPOA, TOLOSA 1983.
- BERSOLARITZARI BURUZ, AUSPOA, TOLOSA 1984.

Omenaldi bezala bi liburu eskeñi dizkiote:

- BASARRIRI OMENALDIA, UDALA, ZARAUTZ 1985.
- BASARRIRI OMANALDIA, ZARAUTZ 1995.

ERRIAREN EUSKARA TA GIROA

"BASERRI", danez gain bersolaria dugu; beste bersolarien aurretik dijoala, deritzaigu. Baita ere, amar senideetatik bersolari bakarra.

Ettxeko tabernan, "Azken Portun" bersolariak ikusten asi zen, Antxen zebiltzan maiz bersotan bersolariak. Gaztea zelarik asi zen bersogintzan etxean.

1935'garren urtean, "Vitoria Eugenia" delako antzerki etxean, Donostia'n, beste bersolarieekin batean agertu zen. Egun aren aitore bezala ortxen dugu argazki zoragarria: antxen daude agirian Txirrita ta Aitzol.

"BASERRI" bersolari guztiz ona bezala dugu ezaguna. Etorria zeukan, ta gañera ez nolanaikoa, oso ona baizik. Danez gain agertzen zitzairen. Ez zen agortzen; bere neurritan beti onena.

Erriko jaietan ibiltzen zen bersoetan. Erri guztietan nai zuten euki eta aldi geintsuetan Uztapide'kon azaldu bear. Biek onenak; euskara garbia, asmo biziak, otsa beroa. Erria berriz, orduak entzuten, zorutzen. "BASERRI" urrezko itzekin errege: ots sendo batekin bazterrak betetzen zituen, baita astintzen bersozaleak. Eunka sari bildu oi ditu, iñorrek zalantzan jarri gabe.

"BASERRI" gañera albistari dugu, oso gutxi bezalako. Anaiarteko guda aurretik asi zen idazten "El Día", "Argia", "Euskadi", "Eguna" aldizkarietan. Betiko euskalzaletasunak bultzatzen zuen idaztera.

Guda ondotik, "LA VOZ DE ESPAÑA" egunkarian, irakurleak ugaritzeko, euskaraz zerbait eman bear eta "BASERRI" deitu zuten. Orrela asi zen agertzen "ÑERE BORDATXOTIK" "BASERRI'REN" lana. Egunkari ori aitu arte iraun zuten agertzen bere lanak. Idazlaneetan irakurriena izango ziren bere idazlanak. BI izkuntzetan azaltzen zituen bere asmoak. Auexek ziren gaiak: euskal bizia, erriaren giroa, baserritarren jolasak, idi demak, azokeen gorabarak. Milla-ka idazlan euskal berriak emanez. Egunkariaren erosleak ugaritzen zituen "BASERRI'K": "Gogozkoa ninduten", berak zion. Ez zen arritzekoa; "BASERRI'K", berak bakarrik zulo aundi bat betetzen zuen.

Beste eginkizun garrantzi aundi bat zebilkin erriaren alde "LA VOZ DE GUI-

PUZCOA" delako irratan; iru aldiz astean euskaraz mintzo zen. Ogeitabost urte iraun zituen irrati ortan. Ze gaiak?, azkotan bersolaritza ta erriaren jolasak eta barriak. Millaka gizasemeak entzuten zuten egunero. Euskara zoragarria zeukan, joskera garbia, itzak gureak, berriak gaurkotasunarekin jantziak.

Esan bearra ere, atsegin zitzaiola **BASERRI'RI** itzaldietan esaldiak itz neurri-tuaz agertzea, izkuntzaren egokitasuna era bat azpimarratzen alegintzen zen.

ERRIEAN ITZALIK AUNDIENA

"**BASERRI'K**" betidanik euki du euskararen maitasuna ta zaletasuna. Berari entzuna diogu: "Beti euskararen aldetik izan naiz"... "Euskararen alde lana egin dut", jarraitu zuen.

Ikasketa sakonik ikastetxeetan egiñak ez dauka. Dena bere aldetik ikasi du; ikusi ta asko ikasi. Egin zuen guztia: "irakurri ta ikasi". Lana berriz, "gogoz egiña". Egunetik egunera lanik maitena egin du, asper gabe.

1935'garren urtean Ilbeltzaren 19'an Irabazi zuen aurreneko besolarien txapelketa. 1985'garren urtean ospatu zuten sari onen 50'garren urtebetetzea. Zarautz'en egin zioten omenaldia.

1961'garren urtean egin zuten Euskalzaindia'ko laguntzailea; 1984'garren urtean oorezko kidea.

1992'garren urtean egin dute **EUSKERAZAINTZA'KO** kide osoa.

Emitza benetan aundia utzi dio bere erriari: ldatzitatoak or daude, bañan ezin dugu aztu sortu duen aozko elertia. Edozein etxeetan edo edantokietan entzuten dituzu **BASARRI'N** bersoak buruz. Eten gabe eta nunai dago aipatua **BASERRI'**ren izena. Euskalerrriak berea bezalakoa dauka izen ori ta ez nolanaikoa.

EMAITZAREN IKERLANA

Asieran esan dugun bezala, "**BASERRI**" gure ikusaldian bere bizitzari buruz ezer gutxi oroitzen zen. Gure galderen errenka luzea, ia utsa gelditu zen. Eman ditudan berriak, "**BASERRI'REN**" semeak edo Manu Oñatibia'k emanak dire.

Gai ederra dago "**BASERRI'REN**" bizitza orretan, baita lan oietan, ikerketa sakon baten bidez, emaitza eder onen mamia ikusteko, gai aberatsa, batez ere Ikastetxe Nagusian "**DOTORADU**" bat egiteko. "**BASERRI'K**" ba ditu alderdi oso onak aztertzeko. Danez gain joskera; esaldi motzak ondo lotuak, itzak euskal erro jatorrak dituztenak, euskararen gito osoa gurea ta gaiak erriaren kutsua daramatenak. Emitza orren sakontasuna ikusteko, orriak millaka irakurri bear. Orduan bakarrik ikusiko litzake gizon baten lana arriaren alde. Tsundituta geldituko giñake. Lan eder orrek urrearen antzeko dizdira aterako du. Edozein orrialdetan izkuntza berexi bat eta erriko idazle baten erregetza, bene benetan nabari.

Ezin dugu aztu "**BASERRI**" sinismen aundiko euskalduna dugula. Arantzazu'ko Amaren bederatzigarren izenaren unean, urtero antxen ikusten genuen gure gizona bere emaztearekin eliz giroan jaiak igarotzen. Gure Andra Mari'ren zalea zen.

MAI:TIN GAR ALKORTA EUSKAL BEGI ERNEA

Denak "GORRI" deizen diote. Illea oso gorria zeukan gazte garaian eta ortik gelditu zaio izengoitia. "Euskerazaintza" delako elkartearen billeretan ezagutu dut. Itsuraz gizona soila dugu, erriko semea.

ERRIKO GIZONA

Ondarru'n sortua daukagu, baita azia ta zartzaroan ontzaz artua. Emen-txen jaio zen 1913'garren urtean, Uztaillaren 16'an. Aita, Martin izenduna, Mena ibarrekoa zeukan, ama berriz, Maria, Ondarru'tarra. Etxez etxe, baserriz baserri oialak saltzen bizi ziren. Lau mutil eta iru neska euki zituzten.

Aita, Sabin'dar sutsua zen. Inguru ortan azi da: etxean oialak saltzen eta karrikan aberzaletasun garbia xurpatzen. Gazterik sartu zen erriko batzokian.

Amairu urtekin ikastetxetik alde egin zuen. Ogeitairu urtekin pelotari bezala "SEVILLA'N" asi zen. Ogeitamasei urteekin uzten du lan ori.

Ogeitamalau urteekin ezkontzen da nafar neskakina: Maria Mercedes du ize-na, Iltzarbe'koa, Ataribia'tarra (Villaba). Alaba ta semea dauzkate.

Gure anaiarteko guda dator frontoi "EUSKALDUÑA'N" zegolarik. Berez, euskal gazteen taldera dijoa. Aberzalea dugu. Bilbo galdu ondotik atzilotu zuten eta bortxatzen dute beartutako lantokietara, "Cardeña" delakora ain zuzen. Andik "BARBASTRO'RA" bidali zuten, "EUZKARAZ ARI ZELAKO". Kapitanak espetxean sartu zuen. Andik sei illabetera askatu zuten. Etxe ondo-ra bildu zen.

Lana obeto ordaindua billatzeagatik VENEZUELA'RA dijoa 1954'garren urtean. Andik 1980'garren urtean Euskalerrri'ra itzultzen da. Ondarru'n dela, bata ta besteari laguntzen dio. Berealaxe, Augustin Zubikarai elkarte berriaren billeretara, Euskerazaintza'ra berebillez ekartzen asten da, gaur arte.

BEARREZ IDAZLEA

Euskerazaintza'ko idazleen giro ortan sortzen zaio barruan idazteko gogo-a ta bearra.

"ZER" aldizkarian eta "DEIA" egunkarian "GURUTZIZKIAK" argitaratzen ditu; danera ogeitabost.

Beste griña bat dabilki barruan: Sabino'ren emaitza babesteko gogo-a. Lan ori ALDERDIAK bear bezala agiten ez dula ikusten du. Euskalerrri'ra bizitzera etorri aur'etik, pixko bat lentxeago, Aju.riagerra iltzen da. Andik gutxira ALDERDIA erdibituko zaigu. "GORRI'K" asmorik onenarekin eskutitz luze batzuek idazten asten da: DEIA egunkarira bidaltzen ditu, baita alderdiaren ardu-radunai. Orrela jaio dire "GORRI'N" eskutitz bildumak. Berrogeitamaren bat izango dire: ogeitamaren bat ARZALLUS'ERI EGIÑAK; BAITA BESTE AMABI ESKUTITZ GARAIKOETXEA'RI eta beste sei XABIER KINTANA'RI. Bere zartzaroan.asi zen idazten, barrenak aginduta.

IDAZKIEN BEREXITASUNA

Naiz "GORRI" idazle aipatua eta ezaguna ez izan, naiz bere lanak aldizka-

rietan ez ikusi, naiz zartzaroan idazten asi, gauza bat garbi dago: idazlearen esku, begia ta kemena dauka.

Idazteko biderik errexena aukeratu du; eskutitza. Ba du bere gaia: Sabino'k utzitako Alderdiaren emaitza.

Eskutitzak idazten esku ona agertzen du. Zuzen zuzen arira doa. Garrantzi aundiko asmoak azaltzen ditu. Garbi ta argi esaten ditu gauzak. Aitorle bat bezala mintzo da. Elerti ta edestiari laguntza ederra eskeintzen dizkio. Alderdiari buruz erri mallako giroa nolakoa den agertzen dio. Bere erritarren adimena esna arazten alegintzen da. Egitazko gizon bizkaitarraren indarra azaltzen digu; zerbait oso berexia egiteko gogo eder ori. Eskutitza oiek ez dire gabako auntzaren ezstula, edo txoro baten lana, erriaren barren barrendik ateriak dire. Ta erriarekin ez jokatu.

Asmo guzti oiek, gizaldiak aurrera dijoaztela, izango duten oiartzuna, gero ta aundiago arkituko dute. Erriaren bear batetik sortu dire, ta gizarte baten emaitza bezala artuak izango dire. Eskutitz pillar orrekin mesede ederra egingo dio bere erriari: ez dire erre kara botatzeko. Orrekin ezer gutxi irabaziko luke gure erriak. Erriarekin izketan jarraitzeko eskutitzak gauza egokiak dire. "GORRI'K" ba daki nundik nora dabilen.

Ñere iritziz, "GORRI'K" garrantzi aundiko beste zerbait egin du: eskutitz multzoa bilduma baten antzera osatuta, liburu bat egin du. Orrekin eskutitzak kulturalizatu ditu. Lana ederra benetan: gaurkotasuna aundiko eztabaidaren arriak, buruauste aundiko alderdiak biurtu ditu.

Bilduma ori, den dena agertzen den bezala, idazleak berak egiña dago; idatzi, fotokopiatu ta josi. Liburu bezala, garbia, polita gelditu da. Erne bizi den norbaiten antzekoa.

Gañera, doai banatzen du egilleak bere lan ori. Gero Euskalerrri'ko liburutegi nagusian jartzen du; ikasleentzat, eskueetan artzeko aukera euki dezaten. Ortxen dugu jokabide jatorra. Euskal idazki denak bear lukete izan Euskalerrri'ko liburutegietan; gure edestiaren iturriak dire; neurri berdiñean "GORRI'REN" eskutitzak. Zorionezko asmoak; azkenean idatziak, zabalduak, babestuak. Azkenean, emaitza aundi bat...

IDAZKIEN MAMIA

Euskalerrri'ko buruaustek, "GORRI'K", barren barrenean dabilki ta ortxen nundik sortzen zaion lendabiziko kezka ta lendabiziko eskutitzaren izenburua: "Nor izango da gure Josue?" (1987). "ZER" delako aldizkarian agertu zen. Galdera sakon orreri ez zion iñorrek erantzunik eman, "UMANDI'K" ezik.

Alderdi'ko arduradunari azterketa sakonak egiten dizkio. Iru elburu nagusi zaintzen ditu bere idazkietan: Euskadi aberria eta Sabino'k eraikitako alderdia ta erriaren euskara, au da "BIZKAERA".

Etorkizuna gaizki ikusten du Euskadi'n: Aberzaletasuna galtzen.

Gaurko Alderdiari arpegira oker bat botatzen dio: Erriari ez diotela erakutsi zer den JEL. Makurrena bezala artzen dut erabakirik txarrena, JEL kentzea. Orixe da Sabino'ri emandako ostikorik aundiena, Egitazko aberzaleak, JEL inguruan bildu nai lituzke. Aberzaleentzat, ezkertiar aldetik ez du etorkizunik ikusten. Sozial-demokrazia ori gaba illuna deritzaio.

Giro orretan karrexia aundi ori sortu zitzaion: "Nor izango ote da gure Josue?". 1987'garren urtean esaten du ori. Orduan uler dezakegu, zeñen gogor sartzen den, berak uste duen Alderdiaren ondartzalleekin; batzuentzat gogorregia.

Sabino'n kristau mamie oso goien ikusi nai luke.

Beste gaia borrokarako egokia euskara batua dauka. Batutzalleak euskara elbarritu dutela, dio: Ederki utzi bearrean Orregatik Euskerazaintza'ren elburuak zaintzen ditu. Euskalzaindiak euskera, era bat zikindu du. "GORRI'N" orria, gure euskararen karrexia da. "GORRI'K" erriaren utsa jasotzen jakin du. JEL eta Bizkai'ko izkuntza ez ditu iltzen utzi nai... Su bizkorraren antzera pistu nai lituzke.

AKATS BAT

Eskutitzen azkeneko kuaderno onek irurogei orrialde ditu. Danetara ogeitamazazpi eskutitz daude; ogeitazazpi erderaz eta amar euskaraz. Sartu ditu ere, tartean, abesti ta olerki batzuek euskaraz; danetara zortzi, ez direnak egi-llarenak.

Olerki geienak erdaraz daude eta idazleak berak esaten digu zergaitik?: "Erdaraz idatzi bear nai ta naiez, geientsuenak euskaraz ez direlako mintzo". Nere ustez erdarak euskarari ez dio laguntzen; euskara ezin diteke erdararen morroi agertu.

Auxe dugu ezin duguna ontzaz eman: kuadernoaren izenburua erderaz bakarrik. Orrela esaten du erdaraz bakarrik: "IMPUGNACIONES A LA COPULA PENEUVISTA". Euskaraz itzik ez. Ori ez da euskaldun baten jokabidea. Bizkai'ko armarrria ederragoa ta esana or gelditzen da betiko, eredu ta oi u indartsua bezala.

Ez dugu gure izkuntza bear, erdera geiago entzuten delako. "EZ, "GORRI"; EUSKALERRIA EZ DUGU ERDARAREKIN EGINGO". Bearrezkoena egitazko euskaldunak izatea da. Naiz gutxi euskara ulertu, gure aldetik, dena euskaraz egin eta idatzi eragin bear ko genuke.

Bizkai'ko bitxia ez da GUGENHEIM museo berria, euskara baizik. Erderaz eta euskaraz ondo idazten duzu, baña zure izkuntza euskara da. Euskararekin zure nortasun berexia agertzen duzu. Lotsarik ez izan.

BIDE BERRIAK

Utsune galantak betetzeko, asmo jatorra agertzen digu. Alderdiak, Sabino'n emaitza zaindu ta zabaldu egin bear lukela batzokietan, dio; bañan ez da egiten. Ori dena berak dionez.

Lenengo urratsa eman bearra: Ikastaroak Sabino'ri buruz antola, batez ere, bai politikaren aldetik, bai izkuntzaren aldetik. Ez ba du Alderdiak egiten, norbaitek egin bear ko du. Ba da garaja.

Ez naiz ibilliko Alderdi berri bat sortzeko asmoak pixten. Baiñan ba dala garaia JEL eusteko ta ekintzak, bide ortan sortzeko, ekintzak bezala, erritik jaiok. Urtero JEL inguruan ekintza ta billera bat egitea ARALAR'KO SAN MIGEL'EN merezi luke. Oiu batean JEL'TAR guztiak ARALAR'en bildurik, gure etorkizunari buruz ezer obeto ezin egin. Danok Sabino'n atzetik BAT.

Asmo sendo oiek "GORRI'Ñ" papereen irakurtzeatik sortzen dire tximista bezala. Gutxi al da?

LATXAGA

EUSKERAZAINZA FA ERRIOXA

Euskalerrria uste baño zabalagoa da. Ez dute bakarrik zazpi lurraldeak osatzen. Orren eredu ortxen daukagu Errioxa. Moruen uztarpetik aske gelditu ondotik, Nafarroa'RI ERANTSIA AGERTZEN ZAIGU; Nafarroa'ren barrenean. Ori garbi ikusten dugu Kukulla'ko San Millan' en, toki zoragarria bene-tan.

Euskalerrria'ri bi alderditik ematen dizkio argitasunak Errioxa'k. Sinismenaren aldetik itzala ederra eskuratzen digu, Andik sortutako lekaidetxeak abek dire: Araba'n amar, Nafarroa'n iru, Gipuzkoa'n bat. San Millan izeneko elizak berriz: Nafarroa'n amabi, Araba'n amar, Gipuzkoa'n lau. San Millan izeneko erriak: Bizkaia'n lau, Araba'n bi.

San Millan'go kobetan daude gure kobetako kristau sustraiak.

Gañera esan dezakegu, Errioxa'n Nafarroa'ko itzala andia dela, batez ere San Millan'en. Goien (Suso'n), lenengo eliza, kobetako inguruan, Iruña'ko erregeak, Santxo Abarka'k eraiki zuen 984'garren urtean . 998'garren urtean berriz Almanzor'ek dena erre zuen. Nafarroa'ko erregeak Santxo III'garren "Andia" delakoak altxa zuen berriz eliza, dena aundituz, gaur oraindik goien ikusten dena.

Beko lekaidetxea ta eliza erromanikoa, Nafarroa'ko erregeak Garzi IV'garrenak egin zuen, amaika garren gizaldian.

Gañera, San Millan'en idatzi zituzten euskarazko esaldi zarrenak, 992'garren urteren inguruan, "Bezerro de San Millan" delako liburu zar zarran. Antxen agertzen dire lenengo bi esaldi euskaraz idatzita: "IZIOKI DUGU-GUEK AJUTU EZ DUGU".

Lenengo olerkiak erderaz Gonzalo de Berzeo olerkariak egin zituen. San Millan'go zuzendaria zen, Berzeo errixka'n sortua. Idazle onen olerkiak euskal itzez josiak daude: "ARDURA" amairu aldiz, "ASMAR" larogei, "ZATIKO" BI ALDIZ, "BILDUR" ALDI BAT, "BASKA" BAT ETA ABAR.

Tokien izen aunitzek euskal aztarnak dauzkate: "LIZARDE", "ARTAZAR", "MENDIKAS", "URRE", "IRUELA", "PIKOMENDAIZA", "GARMENTERI", eta abar.

EUSKERAZAINZA delako euskeraren erri akademiak elburu bat dauka: euskara garbia ta errikoia zabaltzea. Gañera aurtengo 'rallaren 21'tian ekintza berexi bat zuzendu bildu gera San Millan'en. Izan dugu Meza abestiekin euskaraz, bertan. Goiko eliza ikusi ondotik, illen otoitza egin dugu Santxo Abarka, Santxo III'garren Andia delakoa ta Garzia IV'garrena Nafarroa'ko erregeen alde, euskaraz; "GURE AITA" denen artean euskaraz abestua izan da.

Anaiarteko bazkaria Badaran'en euki dugu; "lursagarra lukainkarekin" ta "arkumearen saieskiak erretea", dena "ardo gorriakin" bustia. Bazkarian bersolariak euki ditugu, Asier Lejarreta mutil gazteak eman zuen asiera. Jose Mari Muruak jarraitu zuen, "EUSKERAZAINZAK ERRIOXA'KO SAN MILLAN'EN..." BERSOEKIN. Azkena Paulino Solozabal zetorkigun amabi kopleekin "KUKULLAKO SAN MILLAN'ERI..." kantari:

"egi-egitan esan giñake
KUKULLATARREN ARGIAK

izan zirela euskaldunentzat
zerutar itur bidiak".

Maikide baktxari doai eman zitzaion LATXAGaren liburua: "ERRIOXA'KO
SAN MILLAN EUSKAL ITURRI". Liburu onek dakar San Millan'en abesti baka-
rra euskaraz ezagutzen duguna, Jon Oñatibia'k egiña. Ala dio bukaeran:

"SAN MILLAN, APAL TA ALTSUA,
-AU GARAI ZAKARRA-
EUSKALERRIAK BERAZ BA DU
ZURE BEARRA".

Bersolariekin benetako euskal giroa sortu zen bazkarian.

Arratsaldean, "CAÑAS'KO" lekaime etxera urbildu giñen, Urraka lekaime-
ren pare gabeko arpegia ikustera; ba du begiratu ona ta Jainkoak ematen
duen zorionezko atsegiña. Nafarroa'ko erregeak, lurralde galantak eman ziz-
kien Bizkai'ko jauntxo indartsuei. Urraka delako lekaimea, Lope de Haro Biz-
kai'ko bederatzi garren Jaunaren alaba da.

Errioxa'ko ibillialdi eder onekin, urrats aundi bat eman da Errioxa esna
dedin eta entzun dezan, oraindik lotan daukan euskal sena. Errioxa'rekin
onezkoak egin bearrak ditugu, an ere euskara pixtu dedin. Emen dugu lenen-
go urratsa emana. Ezin dugu ezer utsean galdu; Errioxa Euskalerrri'an sartzea
lortu arte.

LATXAGA

"RIKARDO ARREGI" DELAKO KAZETARITZA SARIA

Orain dela bizpairu illabete eskutitz bat jaso nuen eta barrenean orrialde bat
zegoen nerj adierazia, eta Patxi Baztarrrika'k izenpetua, baita beste paper bat
iru zatjtan tolestatua izenburu onekin: "RIKARDO ARREGI KAZETARITZA
SARIA".

Sari orren ekintza, gertakizuna bezala, bearrezkoa zeritzaidan. Ikustaldi
batean bi elburu izango zitulakoan nengoan:

a) Albistaritza ta, b) izkuntza zaintzea. Berriak ematerakoan jarri esaldi labu-
rrak argi ta garbi agirian, euskara berriz egokia. Bide ortik jarraitzekotan, ara
sanaren garrantzia.

Bañan zer ikusi nuen eskutitz orren barrenean?: mugarik gabeko esaldiak,
asmo illunak eta euskararen ordezt "ROMANCE" bat, euskara erderaren
morrontzapean.

Idatzia mugarik gabeko esaldi luze ta illunarekin asten da. Ikus:

"Euskararen erabileraren normalkuntzarekiko konpromezuak bulztaturik, eta, kontuan hartuta, kazetaritza gizarte-bizitzan eragin itzela duen iharduera izaki, euskararen normalkuntzak ezinbestez behar duela euskaraz egindako kazetaritza eta orohar komunikazio prestu, ta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak VIII.Rikardo Arregi kazetaritza salaren deialdia egiten du".

Erabiltzen duten euskarari begiraturaz, joskera erdalduna dela ikusten dugu. Ara eredu batzuek:

"nola baitere zazpigarren oinarrian xedatutako baldintzak betetzen dituzten proiektuek daukate sari honetan partehartzeko eukera".

Ara beste eredu bat:

"lehen oinarrian aipatutako epealdian Epaimahaiaren iritzian komunikabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin deuen pertsona, komunikabide edo entitateari emango zaio".

Oraindik beste eredu bat:

"Fenomenu eta gertakizun puntualetatik areago doazen idazlanak izan beharko dira —saiakera laburra— atalean kontutan hartuko badira eta edozeintera ere, egileak aztergaiari buruz egindako hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna, aberastasuna eta zomortasuna, hala nola idazkeraren egokitasuna, aberastasuna eta kalitatea izango ditu kontuan epaimahiaksaria erabakitzerakoan".

Eredu auetan, joskera ez dela euskararena agirian dago. Erdal mordollo bat bezala agertzen zaigu. Ez daukate euskal senaren usairik.

Orain dator garaia itzak aztertzeko. Ikus ditzagun erabillitako eredu batzuek:

"Balorazioko kazetaritza"
"prentsa"
"testuaren"
"estiloa"
"iritzi propioaren funtsa"
"erreportaia"
"orijinaltasuna"
"exhaustibotasuna"
"gidoigintza"
"gai librea"
"tratamendu"
"produkzioa"
"gidoi teknikoak"
"komunikabideak"
"partehartzeko"
"autoreek"
"kasu"
"kopja"
"empresak"

"emisio ziurtagine"
"Presidente"
"bokalak"
"Diploma"
"Apelaeziña"
"Alfabetatze"
"proposatu"
"ediziorako"
"Aldaketa medio"
"Anima zaitetz"

Ori dena salaren zuzendariak egiña: euskara, era bat nastu nai dute (mestizatu). Inguru orretan euskara lantzen duen batek, salaren aldetik ez dauka ezer egitekorik. Ez digute jokabide zinezko batera eramaten.

Zer esan olako gauzak ikusita? Usteona berealaxe galtzen dela...

Sanaren giroa ta ingurua azaltzen digutela, asmo borobil batzuek burura datoz:

a) Euskararen egokitasuna ez dutela zaintzen, ez itzen erroen aldetik, ezta ere joskeraren aldetik, garbi ikusten dugu.

b) Esaldi argi, garbi eta laburrak ez dituztela maite eta ontzaz artzen.

c) Bide ortik goaz errex irteera ezagun batera; au da adiskideak saritzera.

Giro orretan zalla usteona zabaltzea eta sortzea idazleen artean: naikeria nagusi.

Galdera bat egin dezakegu: "Nor joan diteke edo aurkeztu orrelako sari batera?". Euskara garbia eta errikoia lurperatzen dute. Agertzen digutenez, erdal kutsuzko euskarak balio du bakarrik...

Jokabide kaxkarrak salatzen ditugula, euskara garbizaleak, gu "BUNKER-TARRAK" gerala ba dakit esango digutela. Bost ajola. Ez dago gurutzerik gabeko zorionik. Iritziak, garbi ta argi agertzen direla, ondo oñarrituak daudelako, esan agirian euskararen onerako. Beldurrik ez izan. Geroak arkjtu du nun dan egia. Erriaren ona nun dan geroak ikusiko du, zeatz eta meatz. Ortarako asko belio du eredu txarra eredu onaren ondoan jartzea. Neurketa orretan argia pixten da.

Nai ta naiez, euskara, bear bezala zaintzeko, lan onari eutsi bear. Ortan gaude sarturik gogotik.

LATXAGA

BORTÜZALE

Goiz hontan, lo arin batetarik landa,
Ailande jaiki da argitü beno lehen.
Egüna igaran nahi dü bortüak gainti.
So bat arrunt kanpo.
Lanapeak bazterrak hartürik dütü.

Barda ekitzalgia gorri zen. Berartan dio:
- Horik xahatüko dütük;
gorago zohardi izan behar dik,
sarri orotan berotüko dik.

Anutako hartzen dü bi otarteko:

- Ez ditiak janen, bena zer hel ere.

Uste dü hon dela, korpitz osagarriarentako,
noizetik noizeala xühürkiago jatea.

Hau arren aldi haütüa,
Egünoroztako akodiñak ützirik, ehñerago delakoz.
Hala beita arenkürek
jatera eta jatera bultzatzen düela,
batere beharrünerik gabe.

Haatik, sakola zolan,
sükre tarrok zombait, bospesei, goititzen dü.
Ekiak gogorki joko düanean,
eineren nabaritzen hasiko denean,
horietarik bat, arteka,
bustü eta hurean,
hurtzera ütziiko dü ahoan.
Sükreak emaiten dü igeitarzüna zankoer,
bühürtzeko indar zain oroer.

Makila bere zokotik elkitzen dü;
franko hon date hirugerren zanko bezala.
Bi banba eginarazten deio sükalteko zoladüran.
Zur kente honekoa da,
elorri xuritik berezia.

Aspalditik begistatzen züan zerrailüan.

Besteen erdian xüxen eta txüt zagon.

- Südür hona üken nüan, bildü nüanean.

Bere kolore gorraila eman zeion,
behar zen bezain bat
gorotz barnean ehortzirik uztez.
Lüzentarzün osoan, adar hanpülotsez beterik da.
Zolako mütürrak
egiten deio bürü bat bezala.
Gainekotik, esküak,
bi adarxkoren artean doi gahatzen dü.
Hots, makila ejerra eta haütüa, baldegabekoa.

Abiatzen delarik, orano üluna da,
ez ülün beltz beltz hetarik,
zure südür püntta ere ikus ez zinirokeenetarik.
Bena argizagia gorapen erditan beita,
bestalde lana oso tink ez delakoz,
labio argaltarzünxkot bat orotan hedatzen da.

- Begireik hoinak non jar!

Lehen üratsak egin bait,
eztülaldi bat jauzten zaio:

- Ontsa heltü zaïk!

Boztarioan eta kanpoko aire hotxeala elkitzean,
ahoa zabal zabala joan da.

Dioe ere gaüko sena gaixto dela.

Ordü goixtiar horcan,

ez dü bere indarra orano ahültürik.

Bestalde, ahoa idekirik hartzen düzün hatsak
ez dü südürrekoaren epeltarzüna.

Oihaneala heltü beno lehen,
argitzen hasi badü,
lanapea tinkago da eta goiza nabartzen dü.
Oihanaren barnean sar eta
uste dü ülüntzen ari dela.
Zohartihitzak busti dütüan bago ostoetarik
ebi txoltolak erorten dira.

Etixerik abiatzean segün bazen
sarrixe aro ederra zateala gorago,
orai bere ustekeria
ebi tzapasta horieki batean hurtzen da.

- Aldi hontan, haatik, ez diat bidaro.

Ata hanïtxetan hola hola agitü zaïo,
gero egün goxo baten gozatzeko.

Oihanean barnago eta
airea beroxetan ari dela üdüri zaïo,
aize epel batek builtaka
maxela bailakutzen deiolarik.

Beharriala kuxelükan hasten zaïo:

- Ez dük batere zertzaz gogöülün izatekorik.

Bidexe argi bat goiti,
bere büria igaiten berriz ïkusten dü.

Gain hartan, bortüa,
bere günetik igitü gabe,
aitzinetik zen bezala eta gero datean bezala,
haren haidürü dago.

Ailandek oihan pea ützen düanean,
lana beti hain tink da, ez bada ago.
Heben aizeak begitartea zaflatzen deion hatsak
lantzer xehe baten egite badü.
Zühaintzeen peko eztitarzüna galdü da,

bere korpitzean jauntsietarik barna traukatzen
hozküra bat nabaritzen dü.

Bere aitzinean,
bere gibelean
bere aldegainean,
lanoek lasterra hartzen düe.

Bertan üngürüak arintzen dira,
batbatetan argi ütsügarri baten erditan dago.
Negüan, hotzetik landa,
sütondoko garreala hüilantzean bezala,
alpo batek tinkatzen dü.

- Hau xoradüral Dio.

Düala apür bat hotzak hartürik bazen,
orai atorras jarri behar dü,
ekiak, jadanik aspaldian jeikirik,
bere leinürüez erratzen beitü.

Goraxeago igan eta bidexe hegian jarten da.

Hartarik ez hürrün, behera,
fano beltxaranak
taigabe zoinlehenka ari dira.
Haratago aldiz, ez dira igitzen ere,
itsaso zabal baten egite düe,
bena xuri xuria.
Haur zelarik, hori harrigarri zeion.
Nolaz lanoak aldepean ziren,
beste alditzaz aldegainean zütüalarik ikusten.
Izan ote leitekea, zelüa gainean zelarik,
zankapean üken litzan
txilintxau egoitea ohi züen lano horik!

Lanoitsaso horren erditan,
üharte berde balde,
mendi tontor bat.
Bi günetan, botxe txüt elibatek goihera zilatzen düe,
gizonek zelüalat igorri txirrixtak üdüri.
Oso izan dadin haren lillüra,
aize ezti batek haren ametsa txurdunpatzen dü,
ühainek itsasuntzia egiten düen bezalaxka.
Peko akodiñak oro ahazerik,
holako arte baten goza gozatüz bai,
nornahi lüzaz laket leiteke.

Ailende ja, bortüak
bide lüze baten egitera deitzen dü.

- Bihoa, arren, zeharka eta rnarratüz,
bortüzaleek ohi düen arabera.

So bat igorten dü batean goiko tinier,
bestean peko lanoitsasoari.

Bidexkan bi gaintietan, sortzen dira
zühain eta belarrak.

Horra, motoka, barantola bere lili gorrail ttipiekl.
Beti maite dü, adarxkot bat moztüz,
ahürrean tinkatzea,
eta horren ürrinonaren üsnetzea.
Noizean behin biltzen dü ere;
nütenatürük marranta idorra ezitzen beitü.
Zaingozaok ere hadatzen dütü bere zanko xehe ozkedünak.
Horik alatzen dütüen ardien ezneareki egin gaznak
gozo haütü bat badü.
Gük, gizonek, zainak dütügü idorrazten,
mardail edo erxe sühardüraren sendotzeko.
Botxen ondoan diren ahabetzeak künküino dirade.
Dioe ahabeak begia tzorrozten düala.
Haratago errostek
hargünen artea metra bat gora horitzen düe.
Haien zain karatsek zale düe gibelesko mina aizatzen.
Ba; eta ere gosea pizten;
Ailandek badaki
jataitzin edari hobenetarik baten egiten,
ardu xuriari nahastez.
Han hor, alagiak gainti, errorizak
konkortzen dütü bere mondoil berde beltaranak.

Aroa pezüalat doalarik, ülüiak
gaizten dira eta larrüar; lotzenago.
Behiek orduan oihaneko bidea hartzen düe,
zonba!tetan behera jaisteko.
Bena egün, bazka gizenez aserik,
bortü lepoan dirade,
batak hedailo,
besteak xütik igitü gabe.
Gainti hetan hanitxetan,
behien erditan,
b;z; da zezen bat.
Ez da saldot; berezten.
Besteak alan, zezena alan;
besteak etzanik, hala ere zezena.
Hor den zezen beltzak,
Ailande ikusten düan bezain sarri,
bürüa iharrausten dü;
gero, mihia lüzatürük hari so,
lürra aitzineko zankoez erreüski aztaparkatzen dü.
Aide gaitza dü.
— Abil jakitera zer harrek ote usuki düan!
Ailande, prefosta, nahiago da
heltü den lekütik arrajoan
eta galdü haren begien aitzinetik,
taigabe Bürüa ütüliz
ea jinen zaionez gibeletik.
Bena, bere ebilaldiaren jarraikitzeke,

baxa behera hartü beharko zaio.
Bidea lüzatürük ere, badoa arren
behi saldoari
eta zezenari saihets eginik.

- Zer nahi den, dio, ez diat hautürük;
beste gaintitik igaiteko botxüa txüt txüta dük.

Ez da lotsatzen, maite dü bortüan ebiltea,
orenez eta orenez,
zankoak zale eta hatsa arin.

- **Izerdi bat apürrago edo haboro, alo arren!**

Hona orai artola;
artzainak gozik builtatü eta
ardiak bortü maxelan ilertürük dirade, alan ari,
zoinlehenka belar hoberenaren ondoan.
Llabür mozten düe, bürü kaldüz.
Haien erditan artzanora;
haren bilo xuria ardien ilearen bezalakoa beita,
ez dü berala ikusten.

Han dago ekürü.

Bena badaki ardi bati lot baledi
edo artolari sobera hüilant,
tzüntzürreal jaüz leikeola.

Hartzari ere bühürtzen zaio eta lasterkatzen dü,
beste tzakürrek aldiz üsnatü eta
zale ihes egiten düelarik.

Oihanaren kantüan den olaren borta aitzinean,
Petiri artzaina.

Begiez arraheinki jarraikitzen dütü ardiak.

Han dago xütik, haidürü.

Hüilántzean, Ailandek agurtzen dü:

- Egün hon, Petiri!
- Bai zuri ere, parte hon!

Algarreki sartzen dira.

Kanpoko argitik landa, ütsütürük daude.

Barnea ülün da.

Argiarte batez beste leihorik ez da.

Sütondoan jarten dira, amiñi bat berrikatzeko.

Prefosta ororen üngürüa egiten düe,

lanak, bedakak, eriak, xaharrak,

holakoa eta halakoa aipatzen düe,

franko gertakari ere bai.

Hegoa jeiki da, kea builtaka ützülden dü.

Petiriri orobat zaio,

beno Ailander begiak erreskiñatzen zaitzo

eta arteka behar dütü txukatü.

Arauz harenak beno minberago dütü.

Norbaiteki bi hitzen herrokatzeaz
gizona botzik dago,

zeren eta han gainti igaraile güti den.

Egünko paradaz baliatzen da.

- Kafe txorta bat hartüko düzü.

- Ez, ez, eskerrik hanitx.

Elestan ari diren artean,

Ailandek hobeki ikusten dütü barneko xokoak.

So bat berreiatzen dü orotarat.

Gibelean, atzea,

taulen gainean lastozko ohe bat, estalki zonbait.

Bere aitzinean, untziak oro,

ez hanitx, doi behar dena.

Huruntzi bat xali bateki,

zartagiña bat, bi kaxot,

zorzea bere gaztanaxalareki.

Jateko xühür zonbait:

Txilintxau xahakoa

bai eta txinkor puxka bat, tipula eta baratxuriak.

Taula batetan ogi biribil lodi bat, arraultzeak, pattakoak.

Horik oro bortako gaintian ageri.

- Joaiteko püntüa dit orai.

- Builta bat goxoa igaran dizügü, dio artzainak.

- Bai botzik nüzü, zü ikusirik; bazizün aspaldi!

Ailande jeikitzen da eta badoa bere bidean,

gogoan erabilten düalarik

artzainen bizitze gogorra

beno ere zoin ederra.

Arrunt mozten dü baxa bati бүрүз,

hegitik igaiteko bixkar batetik bezala.

Han zolan, harlaxe batetan,

basahuntz bat hedailo.

So bat egin eta бүрүа beste aldealat үтзүлтzen dü.

- Nizan гүнетик, badakik

ez dizakeadala egin minik:

hүррүнеги нүк hitarik.

Baxa saihets үтзirik,

Ailande sartü da gaineko ordokiaren bidexkan.

Aldegainean, saiak ari dira үнгүрүkan.

- Kabale batek hilik izan behar dik.

Ez dezaen ikus, ejerki hүйlantzen da.

Bospasei, arakeihiltin bati, Iotүrik da,

tiraka eta tiraka,

puxka baten үрратү beharrear.

Beste hainbeste, gibelean,

beren aldiaren haidүрү.

Arteka arj dira moskoka.

Ikusten düelarik, hegalak zabal,

hartzen düe hapataka,

urrats zonbait egin eta aidatzeko
eta üngürükan arrahasteko.
Bera hürüntü ondoan, berriz lürrealatüko dira.

Haren aitzinean, ordokilla batetan,
zaldi saldo bat dago bildürik;
ütürri baten üngürüan, badaki.
Hur hona, besteak oro beno hobeia,
ixurten düan ütürria da.
Ohi düan bezala güne hetan delarik,
harat xüxenka jokutzen da.

Bortüko soropilaren erditan,
zaldiek titadüra ezbardinak egiten düttüe.
Badira gorrastak, gorribeltzak, ñabarrak.
Büztanaz, zaldixkek eküratü gabe
beren gibelaldia joiten düe.
Hur hotxetik hürrüpa bat gaintitü dü.
Bide gogorrena eginik,
alagietako sendetarik,
urrats arinez badoa,
aize ezti batek buhatzen düalarik.

Egün heltü nahi den güneala sartzen da.
Heben harria da nausi.
Latsün botxeak ildo barnez ozkatürik dira,
zilaturik bezala.
Bidexkatik kanpo, ihon ere ezin trauka.
Han hor, ez jakin nola jelkirik,
leher kakodünak,
hanitx kraskatürik,
aizeak eta elürak gaixki erabil eta.
Bekanago, lür inkaüñi bat badelarik,
aspiltze eta otsalexar
bihigorridün eta ostozilardünak.
Egiaz, beste mündü batetan ebilten da.
Mündü lazgarria,
berezik; tximixtak odeietar; k zeharka jaisten direlarik, eta
gortzen düen zaparta iharrausle irurzi karraskak erantzüten
dütüalarik.
Egün haatik gaitzeko ixiltarzünak,
bazter horietako tipiltarzünari,
alabadereko handitarzüna sorrarazten deio.

Pe hartan aldiz,
begiak goiko eder hor; ez beterik,
gogo bihotzak ematürik,
Ailandek egünoroztako bizitzea arrahartüko dü.

June Casenave

OROIMINEZKO IRUZKINAK

DON NEMESIO ETXANIZ, SUDUPE'REN ESKUTIK

Ljburu berria. Erosi ala ez erosi? Ezbaitsu ibillia nauzute. Izan ere, gaurko Euskaltzaindia'ren olagarro-guarretan erori ta gexaldutako atxemerkeen euskal idazkera "mestizua", gure izkuntzari aberasgarri etzaionik, ezago mezedegarri, irentsi eziñekoa egiten zait. Don Nemesio'k, ordea, balio du eta aren oroiz eta omenez erosi dezagun liburua.

Egutera-billa joanik iru astebeteko txangoa egiña dut egoaldera. Eta nerekin eraman dizuet Sudupe'k, gizon alegintsuak oretu ta argitaratu-berri digun liburu txukuna, don Nemesio zanaren bizitzune ta pentsabiedea ardatz arturik.

Amarren bat egunero irakurraldian orra bukatu liburukia. Azkartxo irakurritakoa? Bearbada, bai. Agian, orregatik auznartu ta txegosi gabea. Nolanai ere, prexkuran artu bear izaten dira gauzak, baztarrean geldi eta aztu ez daitezen ete ez nijoakizute denboran luzatzera irakurketak pentsarazi nuana adieraztera.

Ez deritzat gauza berririk eta aundirik esaten didanik liburuak, guda ondoko urte luze ta illuntsu aietan oso adiskide izan bait-nuan don Nemesio. Liburua, ordea, —ondo dakit— ez da neretzat bakarrik idatzia izan, ezagutu etzutenak, apaiz jator onen euskal luma bikain eta txinpartatsua zein mailletakoa izan zan eta zenbateraño alegindu zitzaigun euskal su nagia ernarazten, ikusi ta ikasi dezaten baiño.

Euskal senaz eta jakite-argiz ornitutako apaiza izan zan don Nemesio. Comillas —izenak berberak, aren ikasleku— asko esaten bait du. Soinkeraz ederbegi genduan, jasez dabil, urduria, geldirik ezin egona, oso gizatiarra, euskaltzale purrukatua, gizon irikia, ausarta, naigabeak tristetu bai baiñan jakabide eta ekimen burutsuz eredugarri ta kemen aundiko. Ez dakit labur ala luzazkiro esandako lerro guntsu auetan adierazia dudan, gaindikiro bederen, don Nemesio'ren nortasuna. Pako Sudupe'k, urrats txikiz, ate asko joaz eta orrialde ta eskutitz aunitz, an-emengoak irakurriz, aztertu ta pixatuz, liburura eraman diguna.

Nik ez dut don Nemesio parroki-apaiz bezela ikusten. Ez da, nere ustez, lau pareta tartean eta iñoren mende-edo egotekoa. Egoak zabal ditu. Eta irudimenak eta urduritasunak asko ikustarazten diote ta eragiten.

Euzkadi ta justiziarekin zearo zebillen uzterturik, bat egiñik. Eta xede auen alde bizi zan Francopcean, oientzat bizi gorputz eta animaz. Danontzat akuillu izan zitzaigun, gu ere, orduko aldaska gazteok, kemenez jantzi gintezen.

Gallego aizejo ta maltzur aren sasi-inperio odoltsuan arra bete luzeko zirrikitu edo ataka guztitan aurkitu zigun lanerako arnasabidea. Jitoan zijoan gure Erria. Dana zitzaigun aurkako, lazgarri. Kontuak atera zer gerta zeikioken gure Erria'ri orrela luzaro jarraituz. Alaz ere, garai artako Donosti'ko erdal Ateneoa

bezelako aretoak etzitzaizkion bildurgarri izan irudimenean gal-gal zabilzkigun iritzi ta gairik ederrenak aldarrikatzeko.

Ez daukat ixiltzekorik, "El rebelde de Jerusalem" (eberkeraren piztutzaille izan zan Eliezer Ben Yehuda'ren bizitza), 1959'gn. Argitaratua, Argentina'tik adiskide batek neri igorritako liburu yaukala irakurtzeko don Nemesio'ri utzi nionetik, ezin esaneko poztasunez, nolako itzaldi bizi ta garrantzitsua (ta ba'zeukan mintzatzeko ezpala!), jendez betetako areto eder artan egin zigun bertaratutakoen txaloak, ongi mereziak zinki, jasoaz.

Oso urbilletik ikutu zigun politikaren otadi arantzatsua. Ta neurriaren zentza galdu gabe, gobernadoreai egindako eskutitz-mordo arek garbi ta zoli adierazten digu nolako doaiz eta giarrez jantzitako gizona izan genduan don Nemesio. Agian, liburu berri oni auxe peit zaio, gutun guztien argitaratzea, auek zirala-ta nabarmendu bait-zitzaigun gure apaiz ausarta. Indarrean zan jaurbide bidegabe arri tajuz eta itz zorrotzez erasotzen dio 103'gn. Orrialdean: "un cura político es una estupidez. Pero no confundamos los términos. El defender la Justicia...".

Arreman birabiratsuak izan zituan ere jokabide kaxkarrez euskal larraina irakaten ari ziran gure gotzaiekin.

Kultur-aize edo goai berriak eskatzen zutelako, euskal miñez jota, berezko asma-indarrez eratu zituan (leena orainaz ezkonduaz) gure izkuntzar; ildo berriak urra nairik adimuin-labea goxarazitako abesti kilikagarriak, oler-senaz musika-sena bere baitan zekarren-da.

Alabear gorriak erabakia Agirre lendakariak azken arnasa eman zuanean, azkar baiño azkarrago, aren oroiz eta omenez, musika-miñez beteriko olerki bikain-unkigarri bata idatzi zigun, bereala aldakiak egin eta eskolaur ta aberztzale artean abestuz zabal-eraziz; Donibane Loitzun'en begirapen eta jauntaxun osoz Agirre'ren gorpu-aurrean eres; ziguna, aspaldi batean, gau-illetan, ilberri aurrean eresteko oiturari jarraiki.

Gure larunbateroko lagunarteko billeretan (ezin bestez kafetegi edo taberna-zulotan) zan zanez azaltzen zitzaigun: igande-aurpegiz, umorez jariotsu, danerako prest. Sotanak etzion beñere enbazorik egiten edozein tokitara joateko, onik egiteko, euskera edatzeko, amets-zero illuna argitzeko.

Agian etzan ekipo-gizon (etzan ere artarako garai egokia), baiñan besteen ekimenak biotz-biotzez aldeztan zituan. Nun-naiko euskaltzaleekin arremantetan zebilela ikusteak, ez digu nagikeriaren aurkako lan-zaletasunik besterik adierazten.

Pako Sudupe'k, nik emen esan dudan guztia eta geiago ederkitxo azaltzen digu. Baiñan... batuaren eraso zitalagatik ez ba'litz...!

Aisialdiko astebeteak joan zaizkit. Eguzkitan idatzitako au bere artan uzten dut.

Eta bukatzeko. Cupido'k ez baiña euskerak gezitua, maitemin gori, don Nemesio bere aldiko gizona, izan zan aurreragokia, gure izkuntza oraintasunez betetzen saiatu zana. Azken urteetan euskera "berrituaren" zilipurdiarekin gogo-urriturik ikusten genduan. Baiñan, beti Jauna'ren serbitzari, Justiziaren aldizkari eta Euzkadi'ren eta euskeraren maitale zintzo, itzez eta egitez.

Egaña'tar Gotzon

USO-ZURIA

Miren...

Patxi...

Neska koxkor batzuek:

I - neska koxkorra...

II - neska koxkorra...

III - neska koxkorra...

Atsoa (sorgiña)...

Emakume bi...

I - emakumea

II - emakumea...

Bi mutil-gazte...

I - gaztea...

II - gaztea...

Basarri bat degu ikusleen esubi aldea... Arrizko eserleku bat izango du basarriko ormaren kontra... Eta eserleku ortan eserita Miren... Seaskatxo bat izango du alboan... Zapi bat josten ari da Miren...

Miren... (gozo-gozo kantari)

Aurtxo txikia negarrez dago,
ama emaiozu titia.
Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokalaria...

Aita jokuan, ama lanean.
Auxe da negargarria...
Eskerrak zuri, Edurtxo maite,
zu zaitut nere zoria...

Patxi agertuko da basarri-burritik: ikusleen eskubi-aldetik...

Patxi.... Ez zera benetan ariko Miren...? Ñi ez naiz pikaro-jokalaria bat.. Eta ez naiz ere oartzen, noiz sartu nintzan, azkenengoz, taberna batean...

Miren... Ondo dakizu zuk, Patxi, ez naizela zuregatik ari... Kanta zaar onek ola dio... baiña ez zuregatik, urrutietako bategatik baizik... Ondo dakizu zuk, alproja jokalaria eta tabernazalea izan ba-ziñan, ez ziñala, gaur, nere senarra izango... Izan ere, ain da zoragarria gure Edurtxo... eta edozer zorakeri esatera erazten nau...

Patxi... Nik ere pozik-asko abestuko nizuke zuri, Miren, baiña lotsatu egi-ten naiz emen... Mendian ostera... Nere mendiko kantuak zuretzat eta Edurtxo-rentzat izaten dira... Barkatu, Miren... Oso-gustora jarraituko nuke emen zuekin, baiña deika ari zait nere mendiko lana... Agur, Miren...

Musu bat emango dio, eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da kantari...

Uso txuria esaizu,
nora joaten zera zu...?
Euskal-erri-ko portu guztiak
elurrez beteak dġtuzu...
Gaurko zure ostatu,
nere etxean ba-dezu...

Neska-koxkor talde bat agertuko da ikusleen ezker-aldetik kantari eta dantzan...

Neska-kox... Sorgin bat eta sorgin bi. Sorgin bat eta sorgin bi.
Sorgin danak amabi... Sudur-luze izaki...
Zatarra dute aurpegi. Ortz bateko atso zorri,
Ez bai-da bat on danik... alde azkar emendik...

Ez degu guk nai sorgiñik.
Ezta pizti gaiztorik.
Gugana betoz zerutik,
aingerutxoak betik...

Eta kantu eta dantza auek bukatzean Edurtxo-ren seaskara urbilduko dira.

1 neska-k... Lo dago...!
Miren... Lo dago, bai... Lo egin-bear izaten dute umetxoak aziko bada-
dira...
II neska-k... Ederra da, bada, gure Edurtxo au...
Miren... Besteak bezelakoxea... Umetxo guztiak izan oi bait-dira ede-
rrak... Alakoxeak izango ziñaten zuek ere...
Ñoiz ikasiko ote ditu nere Edurtxo onek zuen kanta eta dantza
eder oiek...
Kanta ezaiozute zer-edo-zer...
III neska-k... Bai, Miren...?
Miren... Zergatik ez...?
I neska-k... Esnatu egingu degu bear-bada...!
Miren... Ez dio ajolik... Lo darama egun oso-ta...
II neska-k... Orduan...

Eta kantuan ekingo diote danak...

Danak... Nere maitea lo-ta-lo. Egingo degu lo-ta-lo
Lo-giro edera dago. zuk orain eta guk gero...
Zuk orain, eta guk gero, Amets gozotan lo-ta-lo
egingo degu lo-ta-lo... lotan, seaskan, Edurtxo...

Miren... Oso ederki!! Egoak zabaldu, eta egizute orain egan usoak beze-
laxe... Zuenak bait-dituzute bazter guztiak... Zabaldu, bada, zuen
egoak, eta ibilli zaitezte, batetik-bestera egan eta kantari, usoak
oi duten bezela.
Noiz ikusiko ote det nik, Edurtxo, kantari eta dantzan, zuek orain
zabilatzaten bezela...

I neska-k... Ikusiko dezu, bai, Miren... Ez izan orren kezkarik... Agur, Miren, eta biar arte... Egan goaz uso-zuriak...
Miren... Ala zerate, bai... Agur, eta biar arte...

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira...

Ekaitz-aurrean izan oi dan trumoi antzeko bat entzungo da...

Trumoi...? Ezin, ordea!! Zeru osoan ez da ode; bat agiri... eta trumoi...? Eta ala ere, ezin esango det trumoirik ez danik izan... siñiskerietan siñistuko ba-nu, señale txartzat artuko nuke trumoi au... Baiña ez nadin orain gauza oietan pentsatzen asi... Trumoi bat ez da beste munduko gauza... Eta udako egunik beroenetan izan oi dira, askotan, trumoirik aundienak...

Eta ikusleen ezkar-aldetik Atso zaar eta zatar bat agertuko da. Zapi beltz batez estalia dakar burua, eta belbetzak dira ere bere jantzi guztiak... Sorgiña bait-da Atso zaar eta zatar au...

Atsoa... Arratsalde on, Miren.

Miren... Nundik ezagutzen nauzu...?

Atsoa... Aspalditik, Miren... aspalditik...

Miren... Ni ez naiz, bada, zurekin oroitzen...

Atsoa... Ez da arritzekoa! Aspaldi auetan ez bait-naiz inguru auetan ibilli... Alabear batek ekarri nau gaur onera...

Miren... Eta zerbait nai al-zenduke nigandik...?

Atsoa... Txorakeri bat, Miren... txorakeri bat... Ba-dakit zurekin txoraturik degoan gizon zintzo bat, dezula zure senarra... Ba-dakit ere, urna eder baten jabe zeratela biok, eta zorion osoan bizi zeratela, gaurkoz, zure senarra eta zu... Ezin bada nik, merezi duan ezer, zuri eskeiñi... Ala ere, eta nere gazte-denboran orraztaille onenetakoa izan nintzanez gero, zure buru ori orraztea, izango litzake neretzako pozkariorik aundiena gaur... Ez uste izangezurretan ari naizenik, ez... Ikus urrezko orrazi au.

Eta urrezko orrazi bat erakutziko dio.

saritzat eman zidaten orraztailleak izan genduan txapelketa batean... Eta orregaitik ni izaten det, noizian-bein, orrazi onekin bateren-bat orraztu. Nere kapritxo bat besterik ez da, Miren...

Miren... Ain narrasa al-nago, bada...?

Atsoa... Ez, Miren, ez!! Ez da orregatik... Esan d;zut leen ere: nere kapritxo bat besterik ez da au. Aspaldi ez dedala iñorkin urrezko orrazi au erabilli, eta zurekin erabiltzea pentsatu det gaur. Bakartu, Miren... Ez nai asarratuko, nai-izaten ez ba-dezu ere... Orrelako orrezketa batek, nere gazte-garai eder ura dakarkit burura... Eta...

Miren... Orregaitik bakarrik baldin ba-da...? tira, orraztu nazazu... baiña ezingo det iñora joan, umea emen bakar-bakarrik utzita...

Atsoa... Ez dezu emendik mogitu-bearrik... Bertan orraztuko zaitut... Eta etxean ba-lego, etorri dedilla zure senarra ere, nere orrazketa au ikusi dezan...

Miren... Mendjan dago nere senarra... Eta orrazketa ori emen egitekotan,
asi zaitetz leenbaitleen, mesedez...
Atsoa... Ementxe bai, Miren... Eta zuk uste baño leenago bukatuko degu
dana...

Eta Miren orrazten asiko da.

Oso illi ederra dezu, Miren... Gustagarri da zure buru ontan lan
egitea... Iru edo lau aldiz orrazia pasa, eta zoragarria geldituko da
zure burua... Bai, Miren, bai...

*"Bai, Miren, bai" esatean, buruan zerbait sartzen
dion kiñua egingo du.
Miren-ek orduan...*

Miren... Aie!!
Atsoa... Ez da ezer, Miren. Ori pasa da... Zoaz orain etxera, eta ikusi eza-
zu, ixpilluan, nolako buru ederra utzi dizudan...

*Eta "automata" bat bezelaxe jeikiko da Miren, eta
etxe-burruan ezkutatuko da...
Algara egingo du Atsoa-k.*

Orrenak egin du!! Eta ni izango naiz, gaur-gero, Patxi-ren emaz-
tea eta Edurtxo-ren ama...!! Sorgiñik ez!! Sorgiñik ez!! Kantari ari
zan, oraintxe emen, neska-koxkor talde bat... Ja... ja... ja...!! eta
ona ni emen, bertako etxekoandre egiña!! Zergatik ez det, bada,
nik ere kantatu bear...?

Eta kantatu ekingo dio...

Gaurtikan zure ama ni nauzu	Sorgin bat eta sorgin bi.
zorigaiztoko Edurtxo...	Sorgin danak amabi...
Egingo zaitut sorgin guztien	Sorgin guztien erregiñ
erregiña betirako...	Edurtxo izan dedin...

Eta laxe izango da. Ni arduratuko bait-naiz orrekin... Izan ere, sor-
gin batek ezin dezake il, ondorengo asko bere ondoren utzi gabe...
Eta Edurtxo izango da, nik utziko dedan ondorengo jatorrena...

Sorgin bat eta sorgin bi.
Sorgin danak amabi...
Sorgin guztien erregiñ
Edurtxo izan dedin...

*Eta bi emakumezko agertuko dira ikusleen ezker-
aldetik... eta arri-arri eginda geldituko dira Atsoa
ikustean...*

I emak... Ikusten al-den ori...?
II eurak... Ikusiko ez diñat ba...?
I emak... Umezai bat artu bear, eta ori artuko ziñan ba, Miren-ek? Ez ote
zegonan ba, emen inguruan, ori baño itxura obekoagorik...?
II emak... Zatarar den benetan, eta itxuragabea. Sorgiña zirudin... Eta sorgi-
ñik ez dala esango diña gero...

I emak... Zergatik ez zenagu berari galdetzen...?
II emak... Goazen...

Eta Atsoa-rengana urbilduko dira.

I emak... Arratsalde on! Zu artu al-zaitue Edurtxo-ren umezai...?
Atsoa... Ni Edurtxo-ren umezai? Oso oker zaudete... I Ni ez naiz Edurtxo-ren umezaia, ni Miren naiz, Edurtxo-ren ama... Ez al-nauzute, bada, ezagutzen... Miren naiz ni, Patxi-ren emaztea...
II emak... Ezin ordea... Guk oso-ondo ezagutzen degu Miren, eta zuk ezin dezakegu Miren izan... Zu baño gazteagoa da Miren, eta zu baño...
Atsoa... Ederragoa, esan nai al-dezu...?
II emak... Bai...
Atsoa... Ala diozute zuek! Baiña ni Miren naiz, Patxi-ren emaztea eta Edurtxo-ren ama...
I emak... Barkatu, Miren...! Baiña nik ezin sinistu diñat Miren aizenela i. Oa etxera, eta ikusi zan ire aurpegi ori ixpillu batean, eta orudian esango digun Miren aizen ala ez...

Eta Edurtxo seaskan utzi, eta etxe-barrura sartuko da Atsoa...

Laister agertuko da berriro intzirika eta aieneka...

Atsoa... Madarikatua!! Zer gertatu zait neri...? Patxi-berak ere ez nau ezagutuko... Nere zaar-itxura au ikusi, eta ezin sinistuko du Miren naizenik... Zatarra ikusiko nau Edurtxo-k ere, eta ez du nere al-tzoan egon nai izango... Baiña nork egin dit neri au...?
II emak... Barkatu, Miren... Baiña ez induen, bada, sorgiñen batek begiz joko...?
Atsoa... Nik ez zekiñat sorgiñik danik ala ez...! Baiña nere itxura au ikustean, ezin esango diñat, ez danik... Sorgin baten lana den au, bai... Eta nola agertu bear diñat nik gaur, itxura onetan, Patxi-ren aurrean...

Eta negarrez eta aieneka asiko da berriro Atsoa...

"Aitaren" egiñaz, ezkutatuko dira bi emakumeak ikasleen ezker-aldeetik.

Auek izkutatzean erabat aldatuko zaio aurpegia Atzoa-ri...

(irriparrez) Auek atzjpetu ditudan bezelaxe, Patxi ere atzjpetuko ba-nu...

Laister zabaldukko dute auek, erri osoan, neri gertatua... Izan ere, oso-osorik sinistu didate, Miren naizela ni... Patxi-k ordea... Sinistuko ote du Patxi-k, nere itxura au ikusita, Miren naizenik ni?

Ona da Patxi: biotz oneko gizona, eta bere emaztea benetan maite duan gizona... alakoxea dalako, biotzean joko dute, bear bada, nere gezurrezko negarrak eta aienekak... Aleginduko naiz nj, nere aldetik, aren erruki ori lortzen... Eta mirariak egin oi ditu errukiak... Eta ba-det orregatik, Patxi ere, atzjpetuko dedan itxaropena...

Arratsaldea ere aurrera dioa, eta sartu ditzadan, barrura, Edurtxo eta bere seaska...

Eta etxe-barruan ezkutatuko da. Berarekin eramango ditu ere, Edurtxo eta seaska...

Patxi agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

Miren ez dagola bere zai etxe-atarian, konturatzean, onela ekingo dio.

Patxi... Arrigarria! Onelako eguraldi ona, eta Miren, Edurtxo-az, nere zai ez...? Arrigarria benetan... Eta onelako eguraldi batekin... Arritze-koa da, bai...

Kontu eder bat nekarkion gaur gaiñera... Orain artean ez det nik, gure mendi ontan, usorik ikusi... Eta gaur, bai...!!

Gaurko arratsalde ezker, uso-zuri bat dabil beti, nere alboan, egaka... Eta ez da nere ondolik urrutiratzen... Oneraño etorri da, orain ere, nerekin... Uso orde, emakume bat ba'litz, ez dakit zer pentsatuko nuken...

Nun ote da, gaur, Miren? (Deika) Nun zabiltz, Miren...? Etorria naiz!! Emen nauzu...

Eta negar-otsak eta "aienakak" entzungo dira etxe-barruan...

Zer gertatzen da gaur emen...?

Eta Atsoa agertuko da aieneka eta negarrez...

(Atsoa-ri begira) Baiña nor zaitut zu? Zer egiten dezu zuk, emen, nere etxean, negarrez eta aieneka...? Nun da Miren? Nun Edurtxo?

Atsoa... (Negarrez) Miren nauzu ni, Patxi, eta bere seaskan dezu Edurtxo...

Patxi... Zu ez zera Miren... Esan zaidazu, arren, nor zeran, astakeri bat egin ez dezadan zurekin...

Atsoa... Bai, Patxi, baj... Miren nauzu... Ñik ez dakit zer gertatu dan nigan, baiña aratsaldea ezker nago itxura ontan... Sorginkeri bat izango da bear-bada: sorgin batek joko ninduan begiz, bear-bada... Niz ez dakit, Patxi, zer gertatu zaidan,... Baiñanere aurpegi au jxpilluan jkustean... Eskarrak Edurtxo...

Patxi... Zer gertatu zaio Edurtxo-ri...?

Atsoa... Edurtxo-ri ezer ez!! Leen bezein ederra dago ura... Ni berriz... Egia esango dizut, Patxi: zuri naigabe au ez ematearren, emendik anka-egiteko gogoia ere izan det: zuk sekula jakingo ez zenduan leku batera: eta an nere burua betirako izkutatu... Baiña ez det, zu agurtu-gabe, ori egiteko biotzik izan... Orain bada, eta zuk ala nai ba-dezu, betirako izkutatuko naiz etxe ontatik, eta Edurtxo-k emango dizu emendik-aurrera, nik orain-arte eman dizudan maitasuna...

Patxi... Ez, Miren... ez det zu joaterik nai... Leengo itxura galdu ba-dezu ere, zu zera nik betirako nere ematzat artu nuan emakume ura. Eta ez zaitut utziko leengo itxura ura galdu dezulako... Zu zera, bestalde, Edurtxo nere alabaren ama. Eta ez du Edurtxo-k, zu baño ama oberik izango... Maitasuna ez da gorputzeko azalean gordetzen, biotzean baizik... Eta sorgin baten begi-jotzeak, ezin dezake biotz bat galdu...

Aurrera, Miren. Zu izan zera, eta izango zera, etxe ontako etxe-
andre: zu izan zera, eta izango zera nere emazte mait-maitea: eta
zu izan zera, eta izango zera, gure Edurtxo onen ama bakarra...
Aurrera, bada...

Eta etxe-barruan ezkutatuko dira biak...

*Gaua da... eta illundu egingo dira iruditegiko argi
guztiak...*

*"Illunabarra" abestia entzungo da urrutian... Eta
abestiak iraungo duan arte, iraungo du gauak ere...*

Abestia... Illunabarra...

Eguzkia asten da
jetxitzen, jetxitzen,
diztiratze ederra
zaiola gutxitzen,
diamantezko pritzak

zaizkiola galtzen...

Urrezko bola baten
itxura du artzen,
eta geldi-geldikan
itxaspean sartzen...

*Abestia bukatzean piztuko dira berriro argiak, eta
etxetik agertuko dira Patxi eta Atsoa...*

Patxi... Arrigarria da bai, Miren... Ortxe egongo da, orain ere, nere zai,
dalako uso-zuri ori... Eta nerekin etorriko da mendira... Eta nere
inguruan izango det egun osoan... Eta ni batera joaten ba-naiz,
ara joango da bera ere, eta berdin egingo du beste iñora joaten
ba-naiz ere... Ez dit begirik kentzen... Nerekin txoratua dagoala
esango nuke...

Eta ba-da uso-zuri orren jokabidean, beste arritzeko bat ere: zuri
okerra gertatu zitzaizun egunetik, asi zirala gauza guzti auek ger-
tatzen: sorgin orrek zu begin-jo zinduan egunetik, alegia.

Ez al-da guzti-au arrigarria, Miren...?

Atsoa... Bai, arrigarria iruditzen zait, eta zuretzako aspergarria izan bear
duala, Patxi.

Patxi... Aspergarria...? Zergatik izan bear du aspergarria neretzako,
Miren?

Atsoa... Ez dakit ba! Baiña egun osoan, zure ondoan ibiltze ori ere...

Patxi... Aspergarria ez, Miren. Alderantziz esango nuke nik: oso pozgarri
zaidala... Zuk ba-dakizu, lagun nai izaten ditudala nik gauza guz-
tiak, eta ez etsai... Eta begientzako ere, oso pozgarri da beti,
uso-zuri eder bat ikustea...

Atsoa... Neri ez zait, bada, uso-zuri orren joakidea gustatzen...

Patxi... Zergatik ez, Miren?

Atsoa... Zuk ondo dakizu, Patxi, oso espatxuak general emakumeak, eta
gurea degun gizona, guretzako nai degula oso-osorik, eta ez
beste iñonentzat, naiz emakumea izan edo usoa izan au... Artu
ezazu, bada, eskupetea eta il-ezazu uso-zuri ori . . . Eta orduan
galduko dira nere espatxuak...

Patxi... Miren!!

Atsoa... Zer?

Patxi... Sorgin orrek gorputza ezik, zure biotza ere gaiztatu al-du...?

Atsoa... Zergatik diozu ori, Patxi?

Patxi... Zergatik esango dizut, bada? Ez dizut sekula orrelakorik entzun...
Min det, bai, zure gorputza orrela ikustea... baiña ez nuan uste,
Miren, biotza ere gaiztotu zizunik sorgin gaizto orrek.
Nundik zuk, Miren, espatxu oiek?

Atsoa... Arrazoi dezu, Patxi! Baiña ni onela ikusita, neregandik alde-egin-
go zenduan kezka izan det, Patxi... Eta kezka orretzek esan-erazi
dit esan dizudan guztia...
Barkatu, arren, Patxi...

Patxi... Barkatua zaude, Miren. Eta esan didazunaren kezkarik ez izan,
Miren... Oso-ondo ulertzen baitdet nik zure oraingo zoria.
Agur, Miren, eta gero arte...

Eta musu bat emango dio Patxi-k.

Ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Patxi...

Uso-zuri orren kontuak ez zaizkit betere gustazen... Kezkatan
asia det barrua...

Zergatik ibilli bear du, uso-zuri orrek beti, Patxi-ren inguruan?
Zergatik lagundu bear dio, egunero, oneraño...?

Eta iru egun damazki ori egiten. Iru egun!! Nere esku ba-lago itto
egingo nuke oso zuri ori: akabatu bein-betirako! Eta orduan senti-
tuko nintzake lasai, eta ez egaka ari dan artean...

Eta etxe-barruan ezkutatuko da.

*Sasoiko bi mutil-gazte agertuko dira ikusleen ezker-
aldetik.*

I mutil... Arrigarria dek neri gertatzen ari zaidana: ik ba-dakit, ez naizela ni
sekula abeslari izan: ez diat sekula bertsoetako ere iñungo griña-
rik izan... Eta onera sartu naizenetik, ezin kendu dituaz burutik
Iparragirre-n bertso batzuek...

II mutil... Ori besterik ez ba-dek, ez daukak zergatik estutu, mutil! Ez dek,
emen-inguruan, iñor agiri, eta gaizki kantatzen ba-dituk ere, ez dik
iñork parrik egingo... Ni-neroni ere ez nauk orrelako kantore ona-ta...
Kanta itzak, eta kitto!!

I mutil... Lagundu iak ik... Ik ere jakingo dituk Iparragirre-n "Zibillak esan
naute" bertsoak eta...

II mutil... Ba-zekizkiat, bai...

I mutil... Ortaz...

II mutil... Ekin...

I mutil...	Zibillak esan naute	Giltzapean sartu naute
	bizi-egoki	poliki-poliki,
	Tolosa-n bear dala	negar egingo luke
	gauza au erabaki...	nere amak ba leki...

II mutil... Ase al-dek ire gogo ori...?

I mutil... Ase diat, bai...

II mutil... Goazemak ortaz kale-aldera, an egongo bait-dituk gure lagunak
gure zai-ta...

*Eta "Giltzapean sartu naute" aokatuz izkutatuko dira
bi gazteak ikusleen ezker-aldetik...
Patxi agertuko da gero...*

Patxi... (Aurpegi illun, eta deika) Miren! Zatoz leenbaitleen atarira...

Eta etxe-barrutik agertuko da Atsoa.

Atsoa... Zer nai zenduke, Patxi...?

Patxi... Ezer bereizirik ez!! Zera esan nai nizuke babar-bakarrik: galdu dala, betirako, lagun nuan uso-zuria.

Atsoa... Pozten naiz, Patxi...

Patxi... Eta ez eskopetaz il-dedalako, ez... Askoz-ere errezagoa izan da aren desagertzea...

Jarri zaiz aulkian, eta entzun zaidazu arretaz.

Eta atariko jarlekuan eseriko da Atsoa.

Neri begira zegoan, arbola-adar batean, gure uso-zuri ori... Eta ez zait beste gauzarik burutu, nere eskua luzatzea baño... Eta ori egin diodanean, egaka etorri zait eskura...

Loxinkak egiten asi natzaio, eta gogortasun bat nabarmendu det bere buruan... Lumatxoak banatu, eta orratz-buru beltz bat aurkitu diot buruan sartua...

Anka-egin nai luke Atsoa-k, Patxi-k ordea ez dio lagatzen...

Eta entzun au ondo, sorgin gaizto: orratz-buru beltza burutik aterra diodanean, Miren biurtu zait uso-zuda: Edurtxo-ren ama eta nere emazte maitea... Zuk sartu bait-zenion bere buruan, uso-zuri biurtuko zuan, orratz-buru-beltza... Eta orregatik nai zenduan zuk, nik il-erazi nezala nere eskupetaz uso-zuri ori: Miren ilko baitnuan, uso-zuria iltzean...

Errez atzipetu ninduzun... Eta orregatik gorde izan zaitut etxean, Miren ziñelako... Baiña zure gezur orri ere, etorri zaio bere azkena... Orra-or, nun datozen Ertzaiñak zure billa... Giltzapean eukiko zaituen artean, ezin egingo diozu, beintzat, iñori kalte... Zure sorgin-keri gaizto oiek ez zuten beste azkenik merezi...

Eta bi ertzain agertuko dira ikusleen ezker-aldetik, eta bien-erdian eramango dute Atsoa...

Eta urruti batean entzungo da berriro, leengo bi gazteen abotsa.

Abotsa... Giltzapean sartu naute
poliki-poliki
negar egingo luke
nere amak ba-leki...

Eta abestia bukatzean...

Patxi... Aurrera, Miren!! Zure arerio guztiak aldendu dira. Ez daukazu, bada, zergatik bildurtu... Edurtxo, bestalde, zure zai-zai dago: zure bularra xurgatu nai nuke berriro...

Zoaz etxe-barrura... Artu ezazu Edurtxo, eta atera ezazu atarira...
Eta lo-erazi ezazu, leen oi zenduan bezelaxe...

Eta Miren agertuko da ikusleen *ezker-aldetik...*

Miren... Bai...?
Patxi... Bai, Miren...

*Eta etxera sartu, eta bereala agertuko da berriro,
Miren, Edurtxo besoetan...
Arrizko eserlekuan eseriko da, eta onela esango dio
Patxi-ri:*

Miren... Zer, Patxi? Leen bezelaxe...?
Patxi... Bai, Miren, bai... Leen bezelaxe...
Miren... Ez zera, beraz, asarratuko "alproja jokalaria" deitzen ba-dizut...?
Patxi... Ez, Miren... Ez naiz asarratuko, alderantziz baizik: poz aundi bat
emango dik "alproja jokalaria" zure aotik berriro entzuteak...
Miren... Orduan..,?
Patxi... Asi, Miren...
Miren... Aurtxo txikia negarrez dago
Ama emaiozu titia...
aḡta gaḡztoa tabernan dago
alproja jokalaria...
Patxi... Eta zuri inporta ez ba-zaizu, Miren, nik abestuko diot orain beste
kanta bat, bion alaba degun, Edurtxo-ri...
Miren... Bai...?
Patxi... Bai...! Entzun, ba, Miren:

Edur, Edurtxo nere maitea
aitatxo mendian dago,
krabelintxo bat, krabelintxo bi
bildu nai dḡtu zutzako...

Zu bezelako neskatxarikan
ez bai-da beste bat jaio,
Krabelintxo bat, krabelintxo bi
egin dezazun lo ta lo...!!

ZAPIA
Anastasio Albḡsu Ayerdi

▪ GAUR-BIARRETAN eta BERANDUEN BIAR-ETZITAN lan au bukatu bear degu...

- BALDINBETAÑ... (bandinbaitan).

- Oyea PATXADA EDERREAN EGON BESTERIK EZ, eta DAGON OTZAREKIN, gaur ere AIN GOIZ jeiki zera-ba zu...

- BILLERA OSOAN AO-ZABALKA ikusi zaitut; BART LORIK EGIN EZ ALA?

- Ez! Bestela! NEKATURA EDO...

- Gazta pixka bat jango al zenuke?

- ORIXE JAÑGO ÑUKELA...

- Gazta pixka bat pozik jango nuke, JANGO ÑUKENEZ,...

- Basoa bota, eta berriz landarea aldatu bearrean, AL-ALA utzi dute.

- ETA AIN ALA ERE... (Tan es aso.

- BANAN-BANAKA zijoazen...

- POZAREÑ POZEZ POZTURIK.

- Alaxen egin zuten askoren antzera, berak liburuetan AIÑ ALA JARRI ZUTEN AIETAN, irakurri zuan bezela.

- Joanean, bada, ni joalaraik...

- IXIL-MIÑETAN...

- Etziran ixillik egoteko jayoak...

- ORRA OR nun datorren izar berri bat

- ALAZ TA GUZI, baietz erabaki zuan.

■ ERROITZ (desfiladero) aundi baten erdian eudia egindakoan, erreka BERRATZEN denean, UR-YAUZI EDERRA sortzen da.

— Idorteetan ur gutxi dakarra eta ur-yauziaren ZURRUSTA TITIPITZEN DA.

(Azkar dijoan bati):

— BIZI-BIZI ZOAZ...

— GORRIYAK IKUSTEKOAK zerate!

— SALTAKA-JOKO ona egin det, baiña GEITXO BEARTU OTE NAIZEN...
ÑERE ONERA ETORTZEN; LARRI IBILLIA NAIZ; NEKETSUA GERTATU ZAIT:
emendik aurrera KONTUZ IBILLI BEARKO DET.

— Batxiller-ikasketak asterakoan, ERDERARIK JAKIN EZ, eta ezer ulertzen ez nuala, dana BURUZ IKASI bear izan nuan. NEKE AUNDIKOA GERTATU ziztaidan, baiña bide batez, oroimena asko BIZITU, AUNDITU zitzaidan.

(Eguraldi ona ikusirik):

— A ZER EGURALDIA DUTEÑ...

— Zu GOSALDUA AL ZERA?

— Lotan nagola, ESNA-ALDIAK izan oi ditut, eta askotan ERNA-ARAZI egiten nau.

— Alako nasketa sortu zan, NON ETA NOLA DEUDEN ARRASTORIK GABE gelditu dira.

— Itzaldietara JOATE-ALDEKOA NAIZ, asko ikasten da-ta.

— Illetan jende asko al zan?

— MUNDUAK! GUTXITAN BEZELA ELIZA GAÑEZKA ZEGON!